ASTELEHENEKOA

goiena
DEBAGOIENDARROK DIOGUNA

2011-03-14
ASTELEHENA
313. ZENBAKIA
7. URTEA
1,10 EURO
GOIENA.NET
TOKIKOM



# "Mitinak euskaraz egiten lehen politikari garrantzitsua izan zen Monzon"

**Ludger Mees** | Historialaria | 7

Irribarrez eta lagun artean egin zuten Takarraran 65 emakumek | 12



Bergarak 4-0 irabazi zion Ordiziari, lan handirik gabe | 9



Bergarako balearen barailezur bat Donostian erakutsiko dute | 29



Irabazlea, helmugara sartzen.
| JULIO CALLEJA

# ZIRKUITU BERRIA, GOZAGARRIA

Proba teknikoa, garbia eta lokatz bakoa egin zuten Aramaion | 25

## Gatzagarrak saridun itzuli dira First Lego League-etik

Entrenatzaile onenaren saria irabazi dute | 13



Prototype taldekoak. | EDORTA ARANA

## Gipuzkoako elizate zaharrenetariko bat, galbidean

Gotzaindegiak ez du konponduko Uzarragako eliza | 2

## Aretxabaletako osasun etxe berria, gertuago | 11

# "Honelako tragedia bat ez zuen inork espero"

Japonian bizi den eskoriatzar batekin hitz egin dugu

DEBAGOIENA 4 | IRITZIA 8 | HERRIAK 11 | KIROLA 22 | KULTURA 29 | ZURE IRAGARKIAK 34 | TELEBISTA 37 | ZORION AGURRAK 38 | JAIOTAKOAK 39 | ESKELAK 39

goienakluba
Abantailaz betetako kluba!

ASTEBURURAKO PLANIK BAI?

ZIENTZIAREN KUTXAGUNEA
KUTXAESPACIO DE LA CIENCIA
TXURI-URDIN
AQVARIVM

Txartela, beti aldean

► Zoaz 21. orrialdera

# Gipuzkoako elizate zaharrenetarikoa, galtzeko bidean

- Erortzeko arriskua dela-eta, Uzarragako (Antzuola) eraikin guztiak itxiko ditu Gipuzkoako elizbarrutiak
- Aho tradizioaren arabera, tenplarioek sortu zuten



Kanpandorrea ekialderantz okertzen dagoela dio elizbarrutiko txostenak. Horma zuriko e



Hego-ekialdeko aterpeko zutabeetako bat, okertuta. | USOA AGIRRE

**USOA AGIRRE** | ANTZUOLA

Aspaldiko urte hauetan Antzuolako Uzarragara bisitan joan denak igarriko zuen, seguru asko, bertako eraikinak ez daudela egoera onean. Bertan egin zen azkenetariko elizkizun batean txantxa doinuan entzun nion auzotar bati hauxe: "Ea apaizak meza bukatzen duen eliza behera etorri baino lehen". Txantxa doinuan esandakoa izan zen hori, baina behera etortzeko arriskua dela-eta Uzarragako eraikin guztiak ixtea erabaki du Donostiako Elizbarrutiak.

**Elizbarrutiko txostena**

Duela gutxi iritsi zaie Uzarragako auzotarrei elizbarrutiko arkitektoak egindako txostentxo bat. Arkitektoak adierazten duenez, eraikuntza multzoaren egoera "negargarria" da eta ondoren zerrendatzen ditu eraikinek dituzten arazo larrienak: "Hego-ekialdeko aterpeko hiru zutabeek bertikaltasuna galdu dute; apaizetxea guztiz hondatuta dago; kanpandorrea ekialderantz okertzen dago; eliza barruan pitzadurak daude; hilerrira ematen duten leihoak eta apaizetxekoak erronboideak dira, eta angeluzuzenak beharko lukete".

Txostenean ondorioztatzen duenez, "eraikin multzoaren azpiko lurren hondoratzeak eragin du egoera negargarri hori". Arazoa konpontzeko, lehenik eta behin, "eraikuntzen hormak geruza egonkor baten gainean jarri beharko lirateke, egonkortasuna bermatzeko".

**Inguru guztia hesitu**

Txostenaren arabera, lan horiek egiteko dirurik ez dauka elizbarrutiak eta, hala, eraikinen multzo guztia hesitzeko agindua eman du, "behera egiten duen egunean ezbehar pertsonalik egon ez dadin". Guztia ixteko agindua eman arren, auzotarrek ez dakite oraindik noiz itxiko duten. Hileko lehen domekan egiten da bertan meza eta, baieztatu digutenez, datorren hileko meza egingo da Uzarragan. Ondorengo hilabeteetan egingo diren edo ez, ez dago baieztatzerik.

**Leku kuttuna**

Uzarragako auzotarrentzat eta inguruko beste auzotar askorentzat leku kuttuna da Uzarraga. Parrokia izan zen garai batean bertako eliza eta eskola ere izan zuen auzoak Uzarragan. Duela urte gutxi arte taberna ere bazen bertan eta auzotarren bilgune izaten zen domeketan, meza ostean salda hartu eta hamaiketakoa egiteko. Azken urte hauetan, baina, baserriak hustu egin dira, Uzarraga bertako eraikinetan ere ez da inor bizi eta galdu du garai batean zegoen bizitasuna.

Auzotarrek, baina, penaz hartu dute elizbarrutiaren erabakia, eta penaz ikusten dute hondatzen auzoaren eta Antzuolaren historian horrelako zeresana izan duen lekua.

**Antzuola baino lehenagokoa**

Antzuolaren sorrera ezin da ulertu Uzarraga aipatu barik. Aho tradizioari nahiz hainbat idatziri kasu eginez gero, eliza tenplarioek eraikitakoa da. 1625ean Lope de Isastik idatzi zuenez, elizako atean San Juan ordenako intsignia zegoen, tenplarioek erabiltzen zutena. Baina gaur egun ez dago horien aztarnarik, lurren mugimenduagatik berritu behar izan baitzuten eliza.

Bergarako hiribildua sortu zenean, 1268an, inguruko bizilagunak ere (Uzarraga eta Oxirondo barne) onartu zituzten Bergarako herritar bezala. Beraz, ordurako Uzarragan jendea bizi zen.

### DATUAK

**1268**

URTEA

Bergarako hiribildua sortu zenean, 1268an, inguruko bizilagunak ere onartu zituzten bergarar moduan. Tartean, Uzarragakoak.

**XVII.**

MENDEA

XVII. mendekoak dira elizako erretaula, Antxietaren eskolakoa, eta marfilezko gurutzea, Mexikotik ekarria.

## Ordena erlijioso eta militarra

Beste zortzi zaldun frantziarrekin batera Hugues Painskoak 1119an Jerusalemen fundatutako ordena erlijioso eta militarra zen Tenplearen Zaldunak. Ordenaren lehen eginkizuna erromesak musulmanen erasoetatik babestea izan zen. 1128an, Troyesko Kontzilioan, Honorio II.a Aita Santuak ordena onartu zuen. 30.000 kide eta 9.000 egoitza izatera iritsi ziren. Botere handia lortu zuten, eta errege eta merkatari askoren mailegu-emaile bihurtu ziren. Botere horren beldur, hereje eta ez-moraltzat salatu zituzten eta Klemente V.a Aita Aantuak, Frantziako erregeak bultzatuta, ordena desegin egin zuen 1312an.

Euskal Herriari dagokionez, Tenplearen Zaldunak Nafarroan indartu ziren bereziki, erregeengandik hainbat dohaintza jaso baitzituzten.

## Bailarako ospetsuen hilerri

Uzarragak garrantzi handia izan zuen garai batean. Esaten denez, bertako hilerrian lurperatzen zituzten bailarako ospetsuak. Liburu batzuetan agertzen denez, Bergarako Ozaeta jauregiko jaunak Uzarragako hilerrian lurperatzea eskatu zuen 1484an.

Antzuola nahiz Uzarragako elizako aberastasunaren inguruan aitortza egin zuen Esteban de Garibai historiagile arrasatearrak 1565ean, Uzarragak herri izaera izan zezakeela esanez: "*El lugar de Ançuola, segun su poblacion y caserias muchas de la iglesia parrochial de San Juan de Uçarraga, podria justamente ser villa*".

Tenplarioen garaiko intsigniarik ez dago gaur egun. Antzinako elizaren aztarna zaharrena elizpean dagoen arku zorrotza da, XV. edo XVI. mendekoa. Antzinakoa da, beraz, auzoa eta eliza, eta garai batean garrantzi handia izandakoa.



raikinean zegoen garai batean taberna. | USOA AGIRRE



Elizaren barrualdea. Erretaula eta gurutzea XV. mendekoak dira. | IÑIGO RAMIREZ DE OKARIZ



Garai batean eskola izan zen eraikinaren teilatua hondoratzen dago. | U. A.



Apaizetxea, elizari itsatsita. Duela gutxi arte bizi izan da jendea bertan. | USOA AGIRRE



# "Kosta egingo zaie, baina ziur nago japoniarrek aurrera egingo dutela"

- Justo Segura eskoriatzarrak 48 urte daroa Japonian bizi izaten
- 1995eko lurrikara bizi izanda ere, honakoak "ikaratuta" utzi du

**LEIRE KORTABARRIA** | KOBE

Justo Segura misiolari eskoriatzarrari oraindik zail egiten zaio Japoniako hondamendia sinistea: "Ikaragarria, beldurgarria izan da. Esaten zen halako batean lurrikara izugarri bat etorriko zela, baina gertatu denak uste guztiak gainditu ditu, askogatik". 1995ean izan zen lurrikara handi bat, baina "oraingoa oso bestelakoa da; esaten dute hiru lurrikara batu izan balira adinako indarra izan duela. Hasieran esan zuten Richter eskalan 8,8koa zela, baina orain diote 9koa izan dela. Iparraldeko bospasei probintziari eragin die, eta horietatik hiruri, bereziki. Iparraldetik hegoaldera 500 kilometro hartu ditu, eta ekialdetik mendebaldera, 200".

Zarimutzen jaioa, Japonian bizi da Segura, hegoaldeko Kobe hirian; 48 urte daramatza Japonian. Bera onik dago, baina bat egiten du japoniarren sufrimenduarekin: "Irudiak ikusterakoan, ezinezkoa da malkoei eustea. Lehen Ministroak esan zuen dagoeneko 50 herrialdek agindu diotela laguntasuna, eta bera ere hunkituta zegoen hori esaten zebilenean".

Oraingo lurrikarak eta tsunamiak iparraldea suntsitu dute, baina herrialde osoari eragin diote: "Atzo [zapatuan] hemendik 120 kilometrora dagoen parrokia baten egon nintzen, eta hango arduradunak ez du amaren ez nebaren inongo berririk; iparraldean bizi dira haiek", esan digu Justok.

Bestalde, Japonia lurrikarak prebenitzeko hain ondo dagoen herrialdea izan arren, indargabe geratu da: "Neurriek ez dute hutsik egin. Ezinezkoa zen naturaren indarrari aurre egitea; guztiz ezinezkoa", azaltzen digu.

**Alarma nuklearra dago**

Azken egunotan alarmak piztu dira Fukushima zentral nuklearraren inguruan: "Leherketa bat izan zuten zapatu arratsaldean. Lau edo bost langile zauritu egin ziren eta ospitalean daude. Asko larritu dira, eta inguruko 20 kilometroak ebakuatu egin dituzte. Ez dakite zer gerta daitekeen, baina esaten dute ez dagoela arriskurik. Porlanezko kutxa batek inguratzen du erreaktore nuklearra, eta badirudi porlanezko kutxa lehertu dela; dirudienez, larregi berotu zen. Esaten dute ez dagoela leherketa nuklearren arriskurik, baina oso neurri zorrotzak hartu dituzte. Ez dakite zer gertatuko den".

**"Aurrera egingo dute"**

Elizgizon eskoriatzarrak onartzen digu "japoniarrei kosta egingo zaiela herrialdea bere onera eramatea hondamendiaren ondoren. Gaineratzen duenez, "herri osoa dagoeneko mugitzen hasi da, lanean"; eta denok bat egin dute: "Orain, edozeinek buruan duena laguntzea besterik ez da. Kristauok talde txikia gara, baina ahal dugun guztia egiten dugu", esaten du Justo Segurak. Aitortzen digunez, "gazteago" balitz, bera ere gustura joango litzateke kaltetutako probintzietara. "78 urte dauzkat dagoeneko, eta lagundu baino gehiago, traba egingo nuke han". Baina esan digu bere komunitate osoa buru-belarri dabilela. "Gure jendearekin kontaktuan gaude", esaten digu.

Japoniarren izaeraz honakoa esaten du: "Harrigarria da zelako serenitatea duten eta zelako orekarekin hartzen dabiltzan hau dena". Eta, horregatik, hauxe diosku: "Inongo zalantzarik ez daukat japoniarrek aurrera egitea lortuko dutela. Kosta egingo zaie, baina lortu egingo dute".

Galdetzen diotenean zer esango dien japoniarrei, hauxe esaten du: "Bat sufritzen dagoenean, japoniarrek bisitatu egiten dute, baina ez dute hitzik esaten, ez dagoelako hitzik horrelako sufrimendua adierazteko".



Justo Segura. | GOIENA



"Etxeak pospolo-kaxak bezala eraman ditu Tsunamiak" dio Justok.

**Goiena Komunikazio Zerbitzuak kooperatiba elkartea**

## BATZAR NAGUSI BEREZIA

**DEIALDIA**

**Data:** 2011ko martxoaren 31n.
**Ordua:** 17:30ean lehen deialdian eta 18:00etan bigarrenean.
**Tokia:** Arrasateko Kulturateko areto nagusian.

**GAI ZERRENDA**

1. Batzarreko akta onartzeko bi bazkide izendatzea.
2. Estatutuetako lehen artikulua –deitura– aldatzea.
3. Estatutuetako 30. artikulua aldatzea.
4. Estatutuetako 31. artikulua aldatzea.
5. Barne araudiko 46. eta 62. artikuluak aldatzea eta 63.a ezabatzea.
6. 2010eko kontuen auditoreak aukeratzea: LKS auditores SL proposatzen da.
7. Egoitza berria eraikitzeko proposamena onartzea.

**OHARRA:** Legeak agintzen duen bezala, estatutuen eta barne araudiaren aldaketen zioak eta zergatiak azaltzen dituen txostena eskuragarri dute bazkide guztiek baltzuaren egoitza sozialean.

Estepan Plazaola Otadui
Arrasaten, 2011ko martxoaren 11n

goiena KOMUNIKAZIO TALDEA



JULIO CALLEJA

## Monzon gogoan, ekitaldi hunkigarria

Atzo, domeka, Telesforo Monzon omentzeko ekitaldia egin zuten Bergarako pilotalekuan, Ezker Abertzaleak antolatuta. Monzon bera eta bere ibilbidea ezagutzeko bideoak eman zituzten; hura ezagutu zutenen ahotik entzun ahal izan ziren Monzonen inguruko kontuak eta anekdotak. Momentu hunkigarriak bizi izan zituzten bertaratutakoek. *Gora Monzon* eta *Gora ezker abertzalea* oihuak entzun ziren, besteak beste.

## Autopsia egingo diote hilda agertu zen gizonari

**L.K.** | BERGARA

Bergarako 46 urteko gizonezko baten gorpua atera zuten suhiltzaileek Deba ibaitik, Bergarako San Antonio auzoan, zapatuan, eta egunean bertan eraman zuten Donostiako Auzitegi-Anatomia Erakundera, autopsia egin ziezaioten. Ikerketa hasi du Ertzaintzak, gizonezkoa zein den eta zelan hil zen argitzeko. Udaltzainen esanetan, gorpuak zauriak zituen leku askotan. Ertzaintzak ez digu hildakoaren gaineko datu gehiago eman nahi izan.

Zapatuan 12:30 aldera ikusi zuten gorpua. Ertzaintzak horren berri jasotzerakoan, auzo guztia itxi zuen, eta zirkulazioa saihesbidetik desbideratu zuten udaltzainek. Bitartean, jendetza batu zen ibai inguruan.

# Bergarako Elikagaien Bankuak dagoeneko 60 boluntario inguru ditu

## Erakundea aurkeztu zuten joan den eguenean, Bergarako Migel Altunan egindako batzarrean

**MIRIAN BITERI**| BERGARA

Pozik daude Bergarako Elikagaien Bankukoak eguenean Bergarako Migel Altuna institutuan egindako batzarrarekin. Debagoien osotik iritsitako 46 lagun batu ziren han, hil amaieran Bergaran zabalduko duen biltegi berria eta Elikagaien Bankua bera hobeto ezagutzeko. Horretarako, besteak beste, Gipuzkoako erakundearen fundatzaile eta lehen presidente Jabier Agirregabiria izan zen.

Batzarrean, Elikagaien Bankuaren helburuak eta prozesua azaldu zituzten, pantaila baten bidez. Gehienak han entzundakoarekin gustura geratu ziren, eta hamarrek izena eman zuten bertan. Dagoeneko 60 boluntario inguru badituzte ere, erakundetik gogorarazi dute ateak zabalik izango dituztela beti.


Datorren astean helduko dira apalak; irudian, Oiartzungo biltegia. | GEB

**Apiril hasierarako**

Bergaran jarriko duen biltegi berria ere albiste da. Martxoaren 23an, 18:00etan, horren gaineko aurkezpena egingo dute Bergarako udaletxean; eta jarraian, biltegia ezagutzera joango dira han batzen direnak. Elikagaien Bankutik jakinarazi digute apiril hasierarako biltegi berria martxan jartzeko asmoa dutela.

## Enkantera irten dira Elosua eta Azkoitia arteko errepidea txukuntzeko lanak

**M.B.** | BERGARA

Gipuzkoako Foru Aldundiak 375.000 euroko inbertsioa egingo du Azkoitia eta Bergara arteko GI-3750 errepideko zorua berritzeko. Diputatuen Kontseiluak joan den astean onartu zuen lizitaziora ateratzea bederatzi kilometro luze den bidezoruaren egitura birgaitzeko lanak. Obrak egiteko epea hiru hilabete izango da. Jarduera horrek, esan bezala, bederatzi kilometroko tarteari eragingo dio; hain justu ere, GI-631 errepideko bidegurutzetik (0,000 kilometro-puntutik) Elosuko gaineraino (9,700 kilometro-punturaino).

Diputazioak obra horren gaineko hainbat xehetasun eskaini ditu. Errepidearen batez besteko zabalera 5,8 metro dela eta zoruaren gainazala berritu egingo duela jakinarazi du, betun letxera zabalduta. Horretaz gainera, zortzi zatitan berregin egingo dute hormigoizko areka, 1,1 kilometroko luzeran.

Sarbideetan sakanguneak ere egingo dituzte. Hiru kutxatila goratuko dituzte, eta sei berri egin. Horrez gainera, birgaitze jardueraren ondorioz eragindako seinale horizontalak berritu egingo dituzte.

Arrate Bengoa | Pediatra

# "Pediatria planaren zirriborroa adabaki bat baino ez da"

## Arrate Bengoak dio plana eraginkorra izan dadin planifikazioak pertsonalizatua izan behar duela

**M.B.** | BERGARA

Joan den astean, Jaurlaritzako Osasun sailburu Rafael Bengoak Pediatria Planaren zirriborroa aurkeztu zuen Gasteizko Legebiltzarrean. Sektorearen gaur egungo egoeraz eta plan horren gainean berba egin dugu datozen lerroetan Bergarako osasun etxean lan egiten duen Arrate Bengoa pediatrarekin.


Arrate Bengoa. | GAOIENA

**Nolakoa da egoera?**

Aldatzen joaten da. Enplegu Publikorako Eskaintza dagoen bakoitzean, mugimendua egoten da. Esaterako, Arrasaten pediatra bat erretiratu da eta beste bat Bizkaiko herri batera joan da lan egitera, eta haren ordez Legazpitik pediatra bat etorri da. Arrasaten hiru plaza daude eta pediatra bat dago. Bestalde, Eskoriatzan aspaldidik daude pediatra barik; Oñatin pediatra bat eta errefortzu bat daude; eta Bergaran bi pediatra gaude. Hiri handietan pediatra gehiago izateko joera dago, eta herri txikietan gutxiago.

**Zer dela-eta joera hori?**

Enplegu Publikorako Eskaintza antolatzen denean, plaza kopurua zehazten da eta hiriburukoak lehenago betetzen dira. Jendea hiriburuetan bizi da normalean, hemen mediku gutxiago daude. Hori dela-eta, pediatrak falta dira Debagoienean.

**Bengoak aurkeztutako planak aurreikusten du pediatra bakoitzak artatu beharreko haur kopurua 1.000ra handitzea. Debagoienean, dena dela, ume gehiago artatzen dituzue, ezta?**

Hala da. Bergaran, esaterako, 2.000 haur daude, eta, hortaz, pediatra bakoitzak 1.000 ume inguru ditugu. Askotan esan dugu gu ez garela gobernuz kanpoko erakunde bat, langileak baizik, eta, hortaz, zerbitzuaren kalitatea bermatzen saiatzen bagara ere, kopuru horrekin zaila dela.

Oraingoz, ez dakigu plan horrek zer-nolako aldaketak ekarriko dituen, baina, hasiera baten, aldaketa handirik ez luke egon behar, kopuru hori guk dagoeneko badaukagulako. Urteak daramatzagu pediatrian arazoekin, eta plan horrekin ez da sakondu. Adabaki bat baino ez da, benetako konponbiderik ez dute topatu; hain justu ere, etorkizunak nondik joan behar duen aztertu. Ez dugu uste plana eraginkorra denik.

**Zein izan daiteke irtenbidea?**

Kalitatezko zerbitzua ematea nahi badute, planifikazio eraginkorra egin behar dute. Ez da berdina herri txiki bat edo hiri bat. Toki bakoitzaren ezaugarriak hartu behar dira kontuan, eraginkorra izan dadin.

### Gaurtik eman ahal izango da Diputazioaren udalekuetarako izena

Gertu dituzte EAEko diputazioek 7 eta 13 urte bitarteko gaztetxoei zuzendutako udalekuak. Aurten, 5.000 plaza eskainiko dituzte, 13 gunetan: Araban, Barria eta Zuhatzan; Bizkaian, Gorliz, La Arbolera, Lauaxeta, Lurraska eta Urduñan; eta Gipuzkoan, Hondarribia, Orio, Zarautz, Segura eta Zestoan.

Gaur, astelehena, zabalduko dute izenematea, eta martxoaren 23an bukatuko da. Plaza guztiak apirilaren 5ean jendaurrean eta notarioaren aurrean egingo den zozketan banatuko dira. Udalekuen gaineko informazio gehiago gura dutenak *www.gipuzkoa.net/oporraldi* webgunera sar daitezke.



# Mobilizazioak egingo dituzte Osakidetzan martxoaren 22tik 24ra

- ELA, LAB eta ESK sindikatuek deitu dituzte, murrizketa politika dela-eta
- Sektoreak dituen beharrei erantzuteko dei egin diete langileei

**MIRIAN BITERI** | BERGARA

Martxoaren 22, 23 eta 24rako mobilizazioak iragarri dituzte Osakidetzan ELA, LAB eta ESK sindikatuek. Jaurlaritzako Osasun Sailak "murrizketa politika berari eusten" diola eta sindikatuek egindako eskakizun nagusiei "jaramonik" egiten ez diela ikusita antolatu dituzte hiru sindikatuek *Kalitatezko asistentzia; Condiciones de trabajo dignas; Murrizketarik ez! Negoziazioa orain!* lelopean egingo diren mobilizazioak. Horren harira, sektoreak dituen beharrei eta arazoei erantzuteko dei egingo diote.

EAEko ospitaletan eta lehen zaintzako zentroetan egingo dituzte horiek; dena dela, oraindik zehazteke dago zeintzuk hartuko dute parte.



EAEko ospitalean mobilizazioak deitu dituzte. | GOIENA

**"Kolapsora"**

Osakidetzan gehiengoa duten sindikatuen arabera, "Osasun Saila etengabe ezartzen ari den murrizketek osasun arreta publikoa kolapsoaren ertzera eraman dute". Salatu dute gastu sanitarioa murrizteko helburuan bultzatutako politikak itxaron zerrendek "gainezka" eginarazi dituela.

Horri lotuta, gaineratu dute Osasun Sailburu Rafael Bengoak emandako datuak ez direla"inondik ere" hurbiltzen arretaren errealitatera: "Erabiltzaileek egunero ikusten dute ospitaletan eta baita lehen zaintzako zentroetan dagoen pilaketa eta hauek gainezka egiten ari dira, hitzordu espontaneoetan ere atzerapenak sortuz". Hori dela-eta, sarean lan egiten duten langileek bere zeregina, "gutxieneko berme batzuekin", ezin dutela bete deitoratu dute.

**"Baliabide gutxiago"**

Sindikatuen esanetan, "Osakidetzan, zerbitzu antolamenduek antolatzeko eta kudeatzeko duten gaitasun falta, ezina gauzatzen saiatzen ari dira; hain justu, gero eta handiagoa den eskariari, baliabide gutxiagoz eta antolamendu txikiagoz egin nahi diote aurre".

Horrekin batera, salatu gura izan dute Osakidetzako hitzarmena 2009an amaitu zela, eta orain gainera, soldata urritu egin dutela eta lan-taldea murriztu.

## Lanuztea egingo dute hilaren 22an haurreskoletan

**M.B.** | BERGARA

EAEko Haurreskolak Partzuergoak sektorean ezarri dituen murrizketen eta aurrerantzean ezarri nahi dituen beste hainbaten aurka lanuztea deitu dute LAB, STEE -EILAS eta ELA sindikatuek martxoaren 22rako. Hiru orduko lanuztea egingo dute 0-3 urte bitarteko haurrekin lan egiten dutenek; hain justu, 11:00etatik 14:00etara bitartean.

LAB eta STEE-EILAS sindikatuen esanetan, 2009a ezkero Partzuergoa langileen kontura dirua aurrezten ari da. Iaz Hezkuntza Sailak soldatetan ezarritako %5eko murrizketari, 2009an izandako %1ekoa gehitu behar zaio. Horretaz gainera, salatu dute aurten Partzuergoak %1,4 txikitu nahi dituela. Sindikatuen arabera, horri ordezkapenetan dauden atzerapenak eta lan ordutegitik kanpo sartutako orduak gehitu behar zaizkio. Horrek guztiak haurren ongizate eta heziketa eskubidean eragina duela deitoratu dute.

**Jantokietan apirilerako**

Bestalde, eskoletako jantokietako langileek apirilean eta maiatzean grebak egiteko asmoa agertu dute ostera ere. Sindikatuek Hezkuntza Sailari eskatu diote gatazkan bitarteko lanak egin ditzala, eta ohartarazi dute negoziazioak indarberritzen ez badira, kalera irtengo direla.

## Berrikuntza irekiari buruzko proiektua jarri dute martxan

MIK ikerketa-guneak du horren lidergoa; asmoa da kontzeptu hori inguruko enpresetara egokitzea

**M.B.** | OÑATI

Mondragon Unibertsitateko MIK ikerketa-guneak proiektu berritzailea jarri du martxan. Berrikuntza ireki moduan ezagutzen den kontzeptua Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako enpresetara egokitzea da *Openbasque* egitasmo berriaren helburua.

MIKeko Estibaliz Hernandezen arabera, "orain arte enpresetan egin den berrikuntza itxia edo etxe barrukoa izan da, bakoitzak dituen baliabideekin. Martxan jarri dugun proiektu berri honekin enpresetako ateak ireki nahi ditugu, baliabideak partekatuz".

Horretarako, hainbat eszenatoki izango ditu kontuan: batetik, Intra edo enpresa barruko lana egongo litzateke; bestetik, Inter edo enpresen artekoa. Erabiltzaile aurreratu moduan ezagutzen dena ere badago; hain justu, bezeroen beharretara egokitutakoa. Azkenik, *Croud Sourcing* delakoa dago. Hernandezen esanetan: "Proiektua era oso irekian eroan nahi dugu aurrera. Horretarako, enpresek hasieratik parte hartzen dute, eta hiru hilean behin elkartu egingo gara, egindako aurrerapenez hitz egiteko".



Oñatin dagoen MIK ikerketa-guneak du proiektuaren lidergoa. | MU

**Esperientzia aitzindariak**

Hasierako fasea gauzatu ostean, esperientzia aitzindariak jarriko dituzte martxan puntako enpresekin, hala nola CAF, Eroski, Euskaltel, Fagor Ederlan, Fagor Etxetresnak, Gureak Taldea, Innobasque, Obe-Hettich, Orbea eta Oronarekin. Jaurlaritzako Industria Sailak sustatutako Etortek programaren barruan dago, eta Ikerlan-IK4, EHU eta Tecnalia bezalako enpresa eta erakundeen kolaborazioa du.

Proiektua 2012ko abenduan amaituko da. Ordura arte, berrikuntza ireki kontzeptuaren nazioarteko adituek parte hartuko dute; esaterako, Centre For Open Innovationeko Henry Chesbrough, Massachussets Institute of Technologyko Eric Von Hippel eta Coruñako unibertsitateko Juan Freire izango dira.

Hernandezek nabarmendu nahi izan du enpresen beharrekin lan egitea dela helburua: "Batzuetan, ikerkuntza proiektu asko ez dira teoriatik haratago joaten; intentzioetan geratzen dira. Gure asmoa da enpresen kezkak kontuan izatea hasieratik".

## Nueva Rumasaren egoerak eragina du gurean ere

**M.B.** | BERGARA

Europa Press agentziak jakinarazi du Eroskiko zerbitzu juridikoak Nueva Rumasarekin izandako kontratuaren haustura aztertzen dabiltzala, kalte-ordainak eskatzeko asmoz. Ruiz-Mateosen enpresek Eroskiren marka zurirako postre eta esnekien hornikuntza eten ostean gertatu da haustura.

Eroskik baieztatu digu "hornidura falta" egon dela, eta hori dela-eta fabrikatzaile berria bilatzen ari direla. Orain arte Clesa enpresak Eroskiren esne deskrematua egin du eta Dhulek, flanak. Nueva Rumasaren egoerak Dia, Carrefour eta El Corte Ingles enpresei ere eragiten die.

Ludger Mees | EHUko Historia Garaikideko katedraduna

# "Mitin politikoak euskaraz ematen zituen lehen politikari garrantzitsua izan zen Monzon"

- Bergarako Udalak antolatutako hitzaldi sortan parte hartu zuen egubakoitzean Meesek
- Hurrengoa gaur, astelehena, izango da: Iñaki Egaña idazleak egingo du, 19:00etan

ARANTZAZU EZKIBEL | BERGARA

Telesforo Monzon hil zela 30 urte bete direla gogoratzeko antolatutako hitzaldietan parte hartu du Ludger Mees historialariak. Egubakoitzean izan zen gurean; *Telesforo Monzon eta Jose Antonio Agirre: bi lagun, bi politika* hitzaldia egin zuen.

**30 urte bete dira Monzon hil zela. Uste duzu nahiko leku duela haren figurak?**

Nik uste dut ezetz. Pentsatzen dut Monzon izan zela euskal historia garaikidean oso pertsonaia garrantzitsua, eta baita berezia ere. Nahiz eta horrenbesteko garrantzia izan eta horrelako ibilbide politiko luzea izan, gaur egun euskal nazionalismoaren eremuan oso pertsonaia ezezaguna dugu.

Zergatik? Haren ibilbide politikoa ezagutu beharrean, gehiago ezagutzen dugu ikur bezala, sinbolo bezala. Politikan izan duen alde bat bakarrik ezagutzen dugu, baina ez haren izaera politikoa, bere konplexutasun eta kontraesan guztiekin. Horregatik iruditzen zait guk dugun irudia azaleko irudia dela; eta, gainera, gaur egun ez dago biografia onik gizon garrantzitsu horri buruz eta horrek ere zaildu egiten du ezagupen sakonagoa izatea.

Sarritan Monzonen irudia lotu izan da proiektu politiko jakin baten propaganda gisa eta ez euskal politikari soil gisa. Horrek zaildu egiten du Monzon ezagutzea, zeukan aberastasun, aniztasun eta konplexutasun guztiarekin.



Ludger Mees historialariak Olaso Dorrean egin zuen hitzaldia, egubakoitzean . | JULIO CALLEJA

**Euskal Herriko historia garaikidean eragin handia izan duen politikaria izan da. Gaur egun eredugarri dira haren ideiak?**

Lehen esan bezala, saiatzen baldin bagara Monzonen ibilbide politikoa osotasunean ezagutzen, ikusiko dugu Monzon ezberdinak agertzen direla, baita ideia politikoetan ere.

Lehenengo garaiko ibilbide politikoa eta ideiak oso ezezagunak dira guretako. Iruditzen zaigu Monzon beti ezker abertzalearen lider bat izan dela, baina beste fase batzuk ere izan zituen, eta eragin handia izan zuen. Adibidez, Monzonek urte askoan defendatu zuen monarkiaren berrezarpena Franco botatzeko. Garai baten, bat etorri zen ideia hori defendatu zuen Indalecio Prieto sozialistarekin. Galderari erantzuteko, finkatu egin beharko genituzke Monzonek izan zituen pentsaera politiko ezberdinak, betiere bere burua nazionalistatzat zuela kontuan hartuta.

**Monzonen eta Agirreren gainean berba egingo duzu. Nola ezagutu zuten elkar bi politikariok?**

Gazte garaitik izan ziren oso lagunak. Agirreren aita bergararra zen eta askotan Bergarara etortzen ziren uda pasatzera, edo jaietan. Gainera, Jose Antonio Agirre ia ahaztuta zeukan euskara ikastera etortzen zen Bergarara; eta hortik sortu zen halako adiskidetasun estua. Monzonek izugarrizko errespetua zion Agirreri; Agirre zen Euskal Herriaren gidari politikoa, aginduak eman behar zituena. Agirrek beste era batera pentsatzen zutenak bereganatzeko zuen erraztasuna miresten zuen eta esan daiteke benetako maitasuna sentitzen zuela Monzonek Agirrerekiko. Agirrek ere berdina sentitzen zuen Monzonekiko.

Monzonek bizi izan zuen krisi pertsonal sakonenean –37ko urtarrilean Bilboko espetxearen kontra egindako eraso baten ondoren 200 preso eskuindar hil zituzten–, Ajuriagerrak eskatu zion Agirreri Monzon kentzeko kargutik, baina kritika guztien gainetik karguan mantendu zuen. Horrek erakusten du zeukan konfiantza.

**Proiektuak gauzatzeko orduan ikuspegi ezberdinak izan zituztela diozu. Zertan izan zuten ikuspegi ezberdina, adibidez?**

Beharbada, proiektu politiko zehatzetan izaeraz oso ezberdinak ziren bi politikari ziren. Politika egiteko oso modu ezberdina zuten. Agirre zen politikari profesionala, politika egiten zuen grinaz, baina bazekien pasioa mugatzen pragmatismoaren bidez. Bazekien batzuetan amore eman behar zela. Monzonek, ostera, berak aitortu zuen moduan, politikaria baino gehiago bertsolari bezala ikusten zuen bere burua. Politikari buruzko kontzeptu erromantikoagoa zeukan, eta Monzonentzat arrotza zen Agirrek zuen amore emateko kontzeptu hori. Monzonek berak esan zuen politikari baino gurago zuela bertsolari izan, eta, zehazki, Txirrita izan gura zuela.

> **"Gazte garaitik izan ziren lagunak; Agirre Bergarara etortzen zen oporretan"**

> **"Monzonendako benetako euskalduna zen baserritarra"**

**Euskal Herriaren ikuspegi bera zuten?**

Urte askoan alderdi bereko kideak izan ziren, eta antzerako ideiak izan zituzten Euskal Herriaren izaerari buruz. Beharbada, lehen esan dudan politika ikusteko bi modu ezberdin horiek direla-eta, Agirrek ikusten zuen Euskal Herria eraiki behar zela baita ezberdin pentsatzen zuten horiekin. Monzonek ideia erromantikoagoa zeukan, Sabinoren pentsamendutik gertuago zegoen. Monzonendako benetako euskalduna zen baserritarra, eta miresten zuen baserrian egindako lana. Hortik zetorren ideia abertzale guztiek bat egitearena. Baina biak puntu batean ados zeuden: biak ziren euskaltzale sutsuak. Ez bakarrik galeriaren aurrean, baita euren bizitzan ere.

Monzoneri buruz esan daiteke gaztetatik apurtu zuela bere esparru sozialetik jaso zuen eredua. Garai hartan aristokrazia familietan euskara umeen hizkuntza zen eta behin nagusitzen zirenean gaztelerara pasatzen ziren. Monzonek apurtu egin zuen horrekin; eta, ziurrenez, hura izan zen euskal nazionalismoaren barruan mitin politikoak oso-osorik euskaraz ematen zituen lehendabiziko politikari garrantzitsua.

**"Agirre hil izan ez balitz, burutuko ote zuen Monzonek ETA eta ezker abertzalearenganako hurbilketa?"; galdera hori landu duzu hitzaldian.**

Asmoa ez da galderari erantzutea, hori ezinezkoa da-eta. Argudio batzuk jarri ditut mahai gainean bi gizon horien arteko lotura ulertzeko. Monzonendako Agirre zen imitatu beharreko eredua. Nire hipotesia da Agirrek jarraitu izan balu Monzonek askoz ere nekezago egingo zuela erabateko salto hori egitea. Baina hori hipotesi hutsa da.

**Zerk eraginda eman zuen salto hori?**

Alde batetik, publikoaren aurrean monarkiaren aldeko tesiari eusten zion arren, informazio zehatza zeukan eta bazekien bide horrek porrot egin zuela. Krisi garai hartan Agirreren heriotza etorri zen eta EAJ barruan erreferentzia barik geratu zen. Orduan, ikusi zuen gazte jendea mugitzen zebilela. Nazionalismoari buruz zeukan kontzeptu erromantikoa kontuan hartuta, iruditu zitzaion hori bide berria izan zitekeela.

## ZABALIK



RUFINA OLASAGASTI
'http://goiena.net/iritzia/'

# Espazioak hartzen

Aurreko astean Arrasateko mugimendu feministaz eginiko elkarrizketa zetorren GOIENA paperean. Bertan azaltzen da kapitalismoaren eragina bistaratzean eta patriarkatuaz ohartaraztean emakume talde haiek ausartak eta berritzaileak zirela, baita Euskal Herriaren eskubide politikoak aldarrikatzean ere; ez, ordea, hizkuntzan. Menperatzaileen hizkuntza zen ohiko hizkuntza eta, nahiz eta bertako eragileak euskaldunak izan, ez zuten euskara aintzakotzat hartzen aktibitateak antolatzerakoan. AEDko Emakume taldea zena, gaur egun EKIN Emakumeak elkartea dena, da salbuespen bakarra, emakume euskaldunei eta izan nahi zutenei zuzendua zegoen eta bere jarduera.

> **"Argi dago lantaldeen lana dela oinarrizko tresna"**

Euskaraz bizitzeko hautua egin duten eta emakumeentzat garapen aukerak zabaldu eta berdintasuna lortu nahi duten emakume eta gizonak batzen dira EKIN Emakumeak elkartean. Elkartea sortu zuten, helburuak lortzeko eraginkortasuna handiagoa izango zela jabetzean, honetarako ezinbestekoa baitzen elkartzea eta antolatzea.

Joan den hilean EKIN Emakumeak elkarteko boluntario lantalde batek prestatutako Debagoieneko emakumeen bizimodua azaltzeko argazki erakusketa ireki zen Kulturaten. Euren bidez parte hartu dute bailarako beste pertsona askok argazkiak ekartzen eta beste hainbat alorretan, eta bailarako hiru emakume alkateek euren bizipenak kontatu dituzte. Jakin dugunez, oso arrakastatsua izan da: 1.969 ikusle izan dira, 1.297 emakume eta 672 gizon, beste erakusketa arrakastatsuenetan joan ohi direnen gainetik, adituek diotenez. Bailarako jendearekin batera antolatutako erakusketak erantzun bikaina izan du eta emakumeen espazioaren aldarrikapenak indar handiagoa lortu du.

EKIN Emakumeak sortu zenean bezala orain ere, ikusten da lantaldeen lana dela oinarrizkoa elkartearen eraginari eutsi eta zabaltzeko eta honen bidez emakume euskaldunek beraien espazioak hartzen jarraitzeko.

## USTEAK USTE

**ARRITXU BARRUSO** | 'abarruso@goiena.com'

# Tolosari inbidia gutxi aurten

Tarte hau aprobetxatu nahi dut debagoiendarrak zoriontzeko. Pasa zen aste bukaeran, Aratusteak zirela-eta, hara eta hona ibili nintzen ibarreko herrietako giroa batzen: Arrasate, Aretxabaleta, Bergara, Aramaio, Eskoriatza... Aho zabalik geratu nintzen herriotan topatutako giroarekin eta mozorroen originaltasunarekin. Aurtengoan demostratu dugu Debagoienean ere kalitatezko Aratusteak egiten jakin badakigula. Zorionak, Aretxabaletako UDA taldekoei, *Orgullo Gay* taldeari, Bergarako Santanako armadari edota *Superfregona* super-heroiei, baita Arrasateko zonbiei ere. Aurtengo Aratusteak horren ikusgarriak izatea posible egin duzuen guztioi, eskerrak.

## KALE INKESTA

# Gustura zaude osasun publikoaren zerbitzuarekin?



**MARIA CARMEN PARAMO**
ARRASATE

"Gustura nago, baina txanda berandu ematen dizute. Eta ez dago pediatrarik, egungo asko ere ez dira pediatrak".



**ISABEL KIRTZE**
ARRASATE

"Normalean asko itxaron behar da. Erditzeari buruz, esan arren modu naturala errespetatuko dutela, ez dute egiten".



**IÑAKI BARRENA**
ARRASATE

"Orokorrean zerbitzu ona du baina euskarak kezkatzen nau, gabezia dago arlo horretan eta indarra hor jarriko nuke".



**IKER GARITAONAINDIA**
ARRASATE

"Ez zait ondo iruditzen lagunak edo *entxufeak* dituzulako zu baino lehenago atenditzea besteak larrialdietan".

## HANDIK ETA HEMENDIK

# Mendigoizaletasunaren epopeia

**Luis Aranberri Mendizabal**
http://eibar.org/blogak/amatino/

Everest gailurraren historia ofiziala, gutako gehienok ezagutzen duguna, 1953ko maiatzaren 29an hasi zen, Edmund Hillary eta Tenzing Norgay aurrenengo aldiz 8.848 metroetaraino heldu zirenean. Geroztik milaka espedizio iritsi dira gorenera, beste hainbat bidean geratu eta batzuok zein besteok eragindako literatura edozenbat liburu-arasa betetzeko adina da. Edozelan ere, inork irakurri al du inoiz puntaraino igo aurreko Everest-i buruzko libururik?

*La epopeya del Everest* (Sir Francis Younghusband, 1946), nolabait esateko, zientzia fikziozko liburu bitxi horietakoa da; eta ez, ezin bestean, tontorrera heldu aurreko gertaeren historia kontatzen digulako, historia bera gertatu aurreko nahiak eta ezinak azaltzen dizkigulako baizik.

Aurreko astean Muskizen eskainitako hitzaldian Alberto Iñurrategik esan zigun beretzat mendizaletasuna gaina hartzea baino askoz ere gehiago zela.

Bidea garrantzitsuago, gailurra bera baino.

Mendigoizaletasunari darizkion bizimodua eta filosofia ez direla inondik ere asebetetzen tontorrik ederrenean ere hainbat minutu egon ahal izanarekin.

Ezein gailurrek ez duela, besterik gabe, hainbat hilabetetako prestaketarik merezi.

Ez zen hau inondik ere 1953an Everest-a igo arte goi mailako mendizaleen artean nagusi zen ideia.

Izan ere, Francis Younghusband esploratzaileari jaramonik egingo badiogu *"al ver por vez primera una montaña, tarde o temprano sentiremos el afán de conquistar su cumbre; no es posible contemplarla indefinidamente sin escalarla. Ocurre así porque deseamos admirar el panorama que se divisa desde la cima, pero, sobre todo, porque la montaña parece lanzarnos un reto. Hemos de medir con ella nuestras fuerzas y demostrar que podemos alcanzar su cumbre; la hazaña debe realizarse para propia satisfacción y para que se enteren los vecinos… Pero la cosa es muy distinta al contemplar el Everest. Jamás soñaremos con alcanzar la cumbre de aquello…".*

Baina ezina, ekina, egina.

*La epopeya del Everest* liburuak 1921, 1922 eta 1924 urteetako lehen hiru espedizioen berri ematen du, 1893 igotzeko ideia sortu zenetik 1924an Mallory eta Irvine 8.200 metro inguruan galdu ziren arte.

Eta azken kapituluaren izenburua aldarri hutsa da: *La montaña será vencida.* Erabateko epopeia, beraz.

Kontu izan garai hartan inork ez zekiela, zehatz behintzat, nondik igo, zer aurkituko bidean, 7.000tik gora gizakiak lo egiterik izango ote zukeen edo 8.000tik gora oinez ibiltzerik ere ote legokeen.

Baina, horrez gainera, kristoren epopeia gure ama zenarena. Izan ere, zenbat euskal emakumek erosiko ote zuen ba horrelako libururik 1950eko hamarkadan?

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

**Argitaratzailea** Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkartea
E05 Basabe Poligonoa,
20550 ARETXABALETA
**Lehendakaria** Estepan Plazaola
**Zuzendari nagusia** Inazio Arregi

**Zuzendaria** Eneko Azkarate
**Erredaktore burua** Monika Belastegi
**Sailetako arduradunak** Xabi Urtzelai (Kirola), Iñaki Iturbe (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

**Asteburuko ediozio arduraduna** Leire Kortabarria
**Maketazioa** Kepa Martelo, Imanol Soriano.
**Publizitatea** Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Ziortza Martin, Itsaso Berezibar, Imanol Elortza.
**Testuen zuzenketa** Sergio Azkarate
**Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia
**Administrazioa** Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa.

**EGOITZA NAGUSIA - GOIENA PAPERA**
**BERGARA 20570**: Ibarra, 6
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 12
papera@goiena.com

**ORDEZKARITZAK**
**ARRASATE 20500**:
Otalora Lizentziaduna 31 | 132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00
arrasate@goiena.com
**ARETXABALETA 20550**: Durana 11
Tel.: 943 79 86 21 | Faxa: 943 77 18 54
aretxabaleta@goiena.com

**Publizitatea** Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 09 | publi@goiena.com
**Harpidetza** Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 08 10 50
harpidetza@goiena.com
**Lege Gordailua:** SS-0088/04
**ISSN:** 2173-707X
**Tirada:** 5.000 ale.
**Difusioa:** 4.383 ale.

OJD erakundeak ikuskatutako astekaria.

GOIENAk ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK orrialdeetan, edo bestelako orrialdeetako kolaboratzaileek, adierazitako iritzien erantzukizunik.

LAGUNTZAILEAK
Gipuzkoako Foru Aldundia | Arrasateko Udala | Bergarako Udala | Oñatiko Udala | Aretxabaletako Udala | Eskoriatzako Udala | Antzuolako Udala | Aramaioko Udala | Elgetako Udala | Leintz Gatzagako Udala

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza




*Eraman dotoretasuna zure etxera*

gelatza s.l.

Zubillaga auzoa 1
OÑATI
Tel.: 943 71 63 22
Faxa: 943 78 15 51

UDAL ORDEZKARI IZANDAKOAK

**Jose Antonio Urteaga** | EAJko zinegotzia (1995-2003)

- Bi agintaldi egin zituen Kirol zinegotzi moduan
- Angel Iturbe (EAJ) izan zen alkate zortzi urtean
- Besteak beste, Herriko Plaza adokinatu egin zuten

# "Zinegotzi izan nintzen zortzi urteetako baten, aurrekontuak aho batez onartu genituen"


Jose Antonio Urteaga, Senidetze monumentuaren ondoan. | MIREIA BIKUÑA

MIREIA BIKUÑA | OÑATI

Jose Antonio Urteaga EAJko zinegotzi izan zen 1995etik 2003-ra. Kirol zinegotzi izan zen. Oroitzapen "onak" ditu, batez ere bigarren agintaldikoak. "Harmonia onean egin genuen lan, oposiziokoekin", dio. Udala utzi zuenetik, ez da geldi egoten. Eguaztenetan eta eguenetan Argentinarako materiala antolatzen dihardu Bidebarrietan.

**Bi agintaldi egin zenuen zinegotzi. Oroitzapen onak dituzu?**

Oroitzapen onak ditut. Lan asko egin genuen, baina giro ona genuen zinegotzien artean. Azpimarratuko nuke, batez ere, bigarren agintaldian, abian jarritako proiektu guztiak alderdi guztien adostasunarekin egin genituela. Kontuan hartu behar da orduan HBk zazpi zinegotzi zituela. Horrek erakusten du hartu-eman ona genuela.

Akaso, bigarren agintaldian asko lagundu zigun ETAren su-etenak. Agintaldia bukatu aurretik bertan behera utzi zuten, baina, bitartean, harmonia onean egin genuen lan.

**Zinegotzi egon zinen urteren baten aurrekontuak aho batez onartu zenituzten.**

Bai, hala da. Guztiak ados jarri ginen, eta baiezkoa eman genion aurrekontuari. Orduko hartan ezustea izan zen, ez zelako normala udalbatza eta oposizioa ados ipintzea. Guk, urte baten behintzat, lortu egin genuen.

**Udal teknikarien lana azpimarratu gura duzu.**

Azken finean, politikariak iragaitzaz gaude. Gure lana bukatzen dugunean, beste batzuk datoz. Baina teknikariak Udalean geratzen dira. Haiek dira lan handien egiten dutenak. Nik teknikari oso onak izan nituen alboan: German Meabe, Patxi Hipolito, Gerardo Eskartza... Eskerrik beroenak haiei. Dena den, politikariak dira azken erabakia hartzen dutenak.


Senidetzeen plazatxoaren inaugurazio ekitaldia. | JOXE FERNANDEZ

**Gaztedia batzordea zuek sortu zenuten.**

Ordura arte Gaztedia eta Kirola batzorde berean zeuden. Ikusi genuen ez zela egokia, eta kultura taldeekin bilerak egin ondoren Gaztedia batzordea sortu genuen. Ordurako gaztelekua egina zegoen, eta guri egokitu zitzaigun barruko banaketa egitea.

**Herriko Plaza oinezkoendako jarri zenuten. Proiektu handia izan zen.**

Bai, hala da, eta egun Foru plazan dagoen giroa eta herritarrek ematen dioten erabilera ikusita, asmatu egin genuela esango nuke. Dena den, hasieran arazoak izan genituen: merkatariak ez zeuden oso ados, zirkulazioa aldatu egin behar genuen...

**Arantzaren bat?**

Ez. Akaso, gauza batzuk hobeto egin ahal genituen. Baina garbi daukat zinegotziak garela, eta ez ditugu mirariak egiten. Lan egiten dugu.

> "Guk hartzen ditugu erabakiak, baina teknikarien lana ezinbestekoa da"

> "Aurrekontuak egiterakoan zentzuz jokatu, eta zorpetze maila jaitsi genuen"

**Agintaldian egon zineten artean Udalaren zorpetze maila izugarria zen.**

24ko zorpetze maila zuen Udalak. Hori horrela, beti diruari begira egoten ginen. Kontu-hartzaileak markatzen zizkigun jarraitu beharreko pausoak. Asko ikasi genuen haiekin. Aurrekontuak egiterakoan zentzuz jokatzen ikasi genuen. Hori horrela, udalbatza utzi genuenean, zorpetze maila 14koa zen.

**Senidetzeekin buru-belarri ibili zineten.**

Ni txiripaz sartu nintzen, frantsesez nekielako. Sahararekin hasi ginen, ondoren hainbat egin genituen. Chateaubernard eta Jose C. Pazekin egindakoek eman digute emaitza oparoena. Azken horretarako materiala batzen dihardugu Bidebarrietan. Dagoeneko 30. edukiontzi bete material bidali ditugu.

ARATUSTEAK
GOENA TELEBISTA | ARATUSTEAK 2011
ASTELEHENEAN, 17:40 | AMAIA TXINTXURRETA ETA ARRITXU BARRUSOK AURKEZTUA

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA goiena

# HERRIAK



Osasun etxe berria eraikin horren beheko solairuan eta sotoan kokatu nahi dute. | IMANOL GALLEGO

ARETXABALETA

# Aretxabaletako osasun etxe berria gertu dago, oso gertu

## Obren proiektua urtea amaitu baino lehen onartzea espero da

**IMANOL GALLEGO** | ARETXABALETA

Izenburuan argi azaltzen den moduan, Aretxabaletak osasun etxe berria izango du laster, eta gertu. Proiektua egiten hasteko, Osakidetzak 200.000 euroko partida gorde du. Lehen diru partida horrekin proiektua aurten egina edukitzea espero da; horregatik *laster* hitza, baina egoitza berria egungotik gertu, oso gertu egingo dute, duela urte gutxi arte zaharren egoitza izandako lokalera salto egingo du-eta osasun etxeak.

Ia 30 urte eman ditu Aretxabaletako osasun etxeak Errekabarren kaleko 6. zenbakian, eta urte horietan, herria asko hazteaz gainera, osasun etxearen eta herritarren beharrak aldatu egin dira, eta, haiei erantzun egokia eman ahal izateko gaur egungo lokala txiki geratu da.

Agintaldiaren bigarren erdian, udalbatzako zenbait kidek Osakidetzarekin hainbat batzar egin zituzten, osasun etxeak duen espazio faltari irtenbidea emateko. Elkarlan horren lehen fruitua dagoeneko ikusi dugu, Osakidetzak 200.000 euroko partida gorde du-eta proiektua egiten hasteko. Gauzak horrela, urtetan geldi egon den proiektua paperetik errealitatera salto egin eta lanean dabiltza bai Osakidetza bai udalbatza ere, herritarren beharrak asetze aldera.

Udalak proposatutako kokaleku berriak Osakidetzaren onespena jaso du; bertan, osasun etxeak ematen dituen zerbitzuak era egokiagoan kudeatu ahal izango dira. Anbulatorioko arduradunak dionenez: "Eraikin berriarekin, oraingo lokalarekin ditugun espazio arazoak atzean utzi eta zerbitzu hobea eman ahal izango dugu".

### Obrak

Hori guztia gauzatu ahal izateko, baina, hilabete ugari falta dira. Oraindik guztia proiektu fasean dago-eta. Horrelako proiektu baten ezin da data zehatzik eman, baina prozesuak itxura ona dauka. Aretxabaletako alkatearen hitzetan: "200.000 euroko lehen partida hau ez da nahikoa izango, baina Osakidetzak esan digunez, bigarren partida bat ere bideratuko du eta bigarren hori askoz handiagoa izango da".

Gauzak horrela, betiere proiektua aurten onartzen bada, 2012. urtearen amaierarako edo 2013. urtearen hasierarako anbulatorioa egoitza berria erabiltzekotan egongo dela ziurtatu du alkateak.

Obrak ahalik eta epe motzenean egiteko asmoa azaldu dute bi aldeek, eta Garrok hau gaineratu du: "Etxaurrea ukitzen ez duten heinean, bai proiektua bai obra asko bizkortuko da", obrak sotoa eta etxabea egokitzera murriztuko dira-eta.

### Zaharren egoitza

Horrek guztiak aurrera egiten duen heinean, zaharren egoitza gaur egun dagoen tokitik atera beharko dute. Osakidetzak eta Udalak azpimarratu nahi izan dute herriko adindunek ez dutela lokala galduko; Udalak hiru aukera posible ditu esku artean.

Lehen proposamena permuta edo trukaketa egitea izango litzateke. Osasun etxeak egun Basotxo elkarteak duen egoitza hartuko luke, eta, ondorioz, Basotxo egungo egoitza utzi eta osasun etxea dagoen lokalera pasako litzateke.

Bigarren proposamena Basotxo elkartea erakin horren lehen solairura igotzea izango litzateke.

Hirugarrena, berriz, Zainduz dagoen lokalera pasatzea izango litzateke. Udal gimnasioa hutsik geldituko da kiroldegi berria martxan jartzen denean, eta aukera hori ere badago.

Dena den, hurrengo egunetan, Inaxio Garro alkatea Basotxo elkarteko presidentearekin elkartuko da, Basotxokoek hiru aukerak aztertu ostean gogokoen dutena ezagutzeko. Hauteskundeen gertutasuna ikusita, Garrok proiektu hori ahalik eta lotuen utzi nahi du.

### "Udalbatza honek osasun etxe berria gauzatzeko lagundu nahi du"

Aretxabaletar kopurua eta haien beharrak aldatu egin dira eta udalbatza, Osakidetzarekin lankidetzan, irtenbide baten bila ibili da azken hilabete hauetan. Udalak lokal ugari dituen arren, anbulatorioak 600 metro koadro baino gehiago behar ditu, eta, Inaxio Garro alkatearen hitzetan: "Neurri horretako lokal gutxi ditugu".

Gauzak horrela, herri agintariek egun Basotxo elkartea dagoen eraikinaren etxabea eta sotoa irtenbide bezala aurkeztu zuten. "Etxabeak 550 metro koadro ditu eta sotoak 300; bien artean, osasun zentroaren beharrak asetuko genituzke", dio Garro alkateak. Obrei hasiera emateko gutxienez urtebete falta den arren, udalbatzak hauteskundeen aurretik proiektu martxan jartzeko beharrezkoa diren akordioak prest utzi nahi ditu.



IMANOL GALLEGO

**CLEMENTE DOMINGO**
ARETXABALETAKO OSASUN ETXEKO ARDURADUNA

### "Ez dugu mediku faltarik; zentroan, kontsulta baino mediku gehiago ditugu"

Clemente Domingo (Albiztur, 1957) Aretxabaletako osasun etxeko burua da eta azken agintaldietan osasun etxearen beharrak aurkeztu dizkio Aretxabaletako zenbait alkateri. Datuek diotenez, anbulatorioak dituen beharrak aseko dituen kokaleku berria izango du pare bat urteren bueltan.

**Ze onura ekarriko dizkio herriari?**
Zerbitzuaren kalitateak asko egingo du gora. Zerbitzu guztiak eraikin berean edukiko ditugu eta tratu hobea eman ahal izango dugu.

**Metro koadroen gehitzeak mediku espezializaio berriak ekarriko ditu?**
Hasiera baten, ez, Aretxabaletan ez dago mediku faltarik. Osasun etxeak duen arazo nagusia espazio falta da. 500 metro koadrorekin ez da nahikoa; kontsulta baino mediku gehiago ditugu.

**Noizko espero duzu osasun etxea?**
Ezin dut datarik eman, hori erabaki politikoa da–eta. Baina 2013rako amaituta egotea nahiko nuke.

ARRASATE

# Joan den urtean baino 10 emakume gehiago aurten Takarraran

Ane Zabala, Nerea Arregi eta Mª Jesus Velasco III. Takarraran lasterketako podiumean



Ane Zabala, Takarraran lasterketako irabazlea, helmugan sartzen. | JULIO CALLEJA

OIHANA ELORTZA | ARRASATE

Emakumeek hartu zuten parte Martxoaren 8aren bueltan Emakume Txokoak antolatutako III Takarraran lasterketan. 65ek hartu zuten parte guztira.

**Aldarrikapena**

Korrikalari gehienek aitortu zuten emakumeendako lasterketa zelako hartu zutela parte, eta hori nabaritu zen lasterketan. Bakarren batek bakarrik jarri zuen martxan erlojua lasterketaren hasieran eta gehienek irribarrez eta lagun artean egin zituzten ibilbidearen ia bederatzi kilometroak, bakoitzak bere martxan, hori bai, ikusleak agurtuz eta txaloak eskertuz. Santamarina auzoko laukote bat, adibidez, emakumeen aldeko aldarria jasotzen zuen pankarta eskuetan zutela sartu ziren.

Speaker lanetan Iratxe Aranburu, kirol teknikaria, ibili zen. Eta berdintasun saileko eta Emakume Txokoko teknikariak, berriz, bizikletan: Maite Barreña lasterketa hasieran eta Esther Lizarralde bukaeran. Korrikalarien artean Arrasatekoak, Aretxabaletakoak, Eskoriatzakoak, Elorriokoak eta Elgetakoak ere bai. Txalaparta doinuekin hasi zen lasterketa. Epaileak txistua jo eta segidan abiatu ziren korrikalariak Portaloitik Maala aldera. Handik Otalorara, Olartera eta erdiko kaletik berriz Portaloira. Hiru itzuli guztira.

**Emakumea kirolean ere bai**

Yolanda Perez de Arenatza kirol zinegotziak ere hartu zuen parte eta lasterketaren balorazio ona egin zuen bukaeran: "Helburua da erakustea emakumeok kirola ere egiten dugula, esparru horretan ere bagaudela, eta uste dut hori garbi ikusi dela".



**IRANTZU SALABERRI**
PARTE-HARTZAILEA

"Niretako ez da hain ondo joan. Bareak heldu dit eta bigarren bueltan erretiratu egin naiz. Hona etorri aurretik partidua jokatu dut eta agian esfortzu larregi egin dut hona etorri aurretik, gosaldu, behintzat, ondo egin dut-eta".



**ALIZIA GARTZIA**
PARTE-HARTZAILEA

"Oso gustura ibili naiz aurtengo Takarraranen ere. Elgetatik etorri gara bigarren urtez, koadrilan; joan den urtean zortzi eta aurten hiru lagun. Batera hasi eta batera bukatu dugu. Emakumeak garelako etorri gara".



**MARGA GARMENDIA**
PARTE-HARTZAILEA

"Oso gustura, giro oso ona egon da. Bukatzea zen helburua eta lortu dugu, baina ez dakigu ze denbora egin dugun, erloju barik etorri gara. Taldean etorri gara baina bakoitzak bere martxa hartu du. Txaloek asko lagundu dute".



**GLORIA URIARTE**
PARTE-HARTZAILEA

"Iruditu zait emakume askok hartu dugula parte aurtengo Takarraran lasterketan eta asko gazteak izan direla eta hori ona da, gazteek ere ulertzen dutelako emakumeok ere egin dezakegula kirola. Datorren urtean berriz etorriko naiz".



**NEKANE IRALA**
PARTE-HARTZAILEA

"Emakumeen lasterketa da eta etorri egin behar ginen. Gustura ibili naiz. Badut ohitura bestela ere korrika egiteko eta Donostia-Behobia edo *tres playas* lasterketetan ere hartu dut parte, eta hemen ere bai".

ARRASATE

# Emakumeek egindako produktuen azoka

Euskal Herri osoko 50 saltzaile batu ziren


Lau emakume bitxiei begira. | JULIO CALLEJA

O.E. | ARRASATE

Ukenduak, bitxiak, letxugak, patatak, euskal pastelak, panpinak, odolkiak... eta gehiago. Denak emakume baserritar eta artisauak ekoiztutako produktuak. Seber Altube plazara eraman zituzten Euskal Herri osotik etorritako ia 50 emakumek zapatuan, herritarrei erakusteko eta saltzeko.

Arrasateko Uribarri auzoko Ikutixo baserriko Maria Aranak, esaterako, hiru klase babarrun, patatak eta arto-irina zituen produktuen artean, baina arbia saldu zuen: "Jende asko etorri da arbi eske, eta beste horrenbeste ekarri izan banu, dena salduko nukeen. Hala ere, igarri da jendeak ez duela lehen beste diru esku-artean", zehaztu du. Aizarnako Sara Letamendia ere pozik azokan ikusi duen giroarekin: "Joan den urtean berandu ibili nintzen izena emateko eta ez nintzen etorri, baina benetan azoka polita da, saldu ere egin dut, gainera". Emakumeen produktuak saltzen gizonezkoren bat edo beste ere egon zen, eta erosleen artean, berriz, gizon zein emakume.

OÑATI

# Partidua ikusi eta jokatu ere egin zuten Ulmako eta Aloña Mendiko lagunek

LEIRE KORTABARRIA | OÑATI

Ulma Taldeko kideek eta horien seme-alabek, eta Aloña Mendiko Saskibaloi saileko hainbat lagunek arratsalde-pasa ezin hobea egin zuten Donostian joan den eguenean, Donostia Arenan Lagun Aro eta Real Madrilen arteko saskibaloi partidua ikusten. 140 lagun joan ziren, bi autobusetan. Ulmaren 50. urteurrena ospatzeko beste ekitaldi bat izan zen.

Lehen eta bigarren laurdenen artean, umeek saskiratze batzuk egin zituzten, eta atsedenean, partidutxo bat jokatu zuten Aloña Mendiko kideek, bost lagun beste bosten kontra.

Gauerdia bazen etxera bueltatu zirenean; nekatuta, baina ederto pasatuta etorri ziren.



Ulma Taldeko bazkide, langile eta seme-alabak. | ULMA TALDEA

OÑATI

# Ikusleei botoi bana emanez gero, hamaika kaxa beharko lirateke!

'Una caja de botones' filma ikusteko bete egin zen Oñatiko zine aretoa

LEIRE KORTABARRIA | OÑATI

Kultur etxeko zine aretoa goraino bete zuten oñatiarrek egubakoitz arratsaldean, Aitor eta Sara Mantxola aita-alabek parte hartu duten *Una caja de botones* film labur saritua ikusteko.

Ume eta gaztetxoak ziren ikusle gehienak; baina helduak eta edadetu dezente ere joan ziren. Batzuek zutik jarraitu zuten emanaldia. Aitor Mantxola eta Sara eta Lide ahizpak ere han izan ziren. Ume askok ikastetxean ikusita zuten filma, baina hala ere gustura egon ziren berriz ikusten.

Txalo egin zuten denek Aitor eta Sara Mantxolaren izenak hasierako kredituetan agertu zirenean. Emanaldiak iraun zuen 20 bat minututean, ume eta gaztetxoak formal-formal egon ziren filma ikusten.

Bukaeran, haur eta nagusiek esan ziguten "asko gustatu" zitzaiela filma eta Sara Mantxola oñatiarra "ederto" ikusi zutela aktore lanetan. Sararen lagunek esan zuten "adiskidetasunaren gaineko mezua" gustatu zitzaiela gehien.



Kultur etxeko aretoa, jendez beteta. | AMAIA TXINTXURRETA



**LEIRE ETA DESIRE**
IKUSLEAK

"Oso polita iruditu zaigu, baina tristea ere bai. Sara ezagutzen dugu eta uste dugu oso ondo egin duela aktore lana. Gehien gustatu zaigun pasartea izan da lagunek oparia egiten diotenean; adiskidetasuna erakusten du".



**MARIA ETA GUADALUPE**
IKUSLEAK

"Asko gustatu zaigu filma, oso polita da. Pitin bat tristea ere bai, baina oso polita, hala ere. Guk ikusita geneukan, eskolan, eta berriz ikustera etorri gara. Sara gure eskolan dabil eta ezagutzen dugu. Oso ondo egin du lan".



**SARA ETA LIDE**
PROTAGONISTA ETA AHIZPA

Lidek hauxe esan digu: "Asko gustatzen zait filma, eta Sarak oso ondo egiten du bere papera, baina nik ez nuke aktore izan gurako. Motorrean dabiltzan momentua da gehien gustatzen zaidana".



**ANDER ETA JABI**
IKUSLEAK

"Lehenengo aldiz ikusi dugu gaur, eta asko gustatu zaigu. Ez dakigu esaten ze pasarte iruditu zaigun onena; dena gustatu zaigu. Beharbada gu ere animatuko ginateke aktore izatera!"

ARETXABALETA

# Aretxabaletarrak bakarrik ez, Debagoienetik ere joan zen jendea II. Ixadebaldera

MIREN ARREGI | ARETXABALETA

Aretxarte merkatarien elkarteak antolatuta hainbat komertziok kalera atera zituzten produktuak zapatuan. "Merezi izan du; azkenean eguzkia ere atera da eta nahiz eta pilotalekuan egon, herritar asko etorri da, batez ere goizean", adierazi zigun Sonia Moralesek, Aretxarteko kideak.

### 32 komertziotik 12 azokan

Aretxarten dauden 32 komertziotik 12 atera ziren kalera eta datorren urtera begira komertzio gehiago animatzeko dei egin dute antolatzaileek.

Bestetik, azokan egin zuten zozketaren irabazlea Nerea Izurrategi izan zen, 94.111 zenbaki sarituaren jabea.



Herritarrak eskaintzei begira. | JULIO CALLEJA

LEINTZ GATZAGA

# Sariarekin bueltatu ziren Lego League finaletik

Leintz Gatzagako Prototype taldeak entrenatzaile onenaren saria irabazi zuen Bilbon, First Lego League txapelketan. Hego Euskal Herriko eta Espainiako 32 talde lehiatu ziren eta zortzi sari banatu ziren. Arrasateko Arizmendi Ikerlan taldekoak ere han izan ziren lehian (argazkian, bitaldeak). Esperientzia polita bizi izanda, pozik etxeratu ziren.



EDORTA ARANA

**Maitane Roa** | Mondrako kapitaina

# "Borroka gehiago egiten dugu aintzat har gaitzaten"

Zaletasuna eta borroka nahastuta ditu halabeharrez Maitane Roak Mondra futbol taldean



Maitane Roa Mondrako kamisetarekin jantzita. | UBANE MADERA

**O. ELORTZA/U. MADERA** | ARRASATE
Lider daude Mondrako neskak euren mailan (3. maila) aurreko asteburuan Zarautzi irabazi ostean. Berez, neskak izanda futbolean dituzten aitorpen txikiak kontuan izanda, ez da meritu txikia lortutakoa. Maitane Roa (Arrasate, 1986) da taldeko kapitaina eta martxoaren 8ko ekitaldiekin gabiltzanez, neska-futbolari arrasatearra dugu berbalagun.

**Zer moduz lider moduan?**
Gustura, oso pozik.

**Entrenamendu gogorrak egingo dituzue ba, horraino iristeko...**
Hasieratik bagenekien zer geneukan. Eta esan genuen: gura badugu lehenak geratu, lanean jarri beharko gara; eta badirudi emaitza ondo irten dela. Oraindik amaitu barik dago liga, sei partidu falta dira, eta gainera, hirugarrenaren kontra jokatzea falta zaigu. Ez da erraza izango, baina lehenak izatea Zarautzi irabazi eta gero, asko da; eta guk borrokan segituko dugu.

**Emakume eta futbolari; askotan eman dituzu azalpenak?**
Bai. Badakigu emakumeak ez dituztela berdin tratatzen futbol kontuetan. Neskek futbolean jokatzea edo mutilek jokatzea oso desberdina da.

**Oztopo asko gainditu behar izan dituzu neska izanda futbolean jarduteko?**
Geroago eta gutxiago dago. Hasieran azken koitaduak ginen, baina bultzada handia eman diogu emakumeok. Egia da mutilak direla zerbait izatera heldu daitezkeenak, baina neskek gero eta borroka gehiago egiten dugu, esaterako, Mondrako zuzendaritzarekin, aintzat hartu gaitzaten. Adibidez, partidu orduei dagokienez, mutilen lehen mailako taldeak (preferentekoak) zapatuetan 16:00etan izaten ditu partiduak, eta gainontzeko talde guztiek bestelako orduetan moldatu behar izaten dugu.

Orain, behintzat, nesken taldea kadete, jubenil eta mutilen bestelako mailen aurretik dago halako kontuetan. Hala ere, badakigu profesionaletan neskek ez dugula etorkizunik.

**Hortaz, profesionala izateko ametsik ez?**
Ez. 11 urte daramatzat futbolean, eta goiko taldeetatik deituz gero ez dakit joango nintzatekeen. Orain lau-bost urte deituz gero, baietz esango nukeen, baina orain... Beti da amesten duzun zerbait, baina orain zalantzak dauzkat. Nire kasuan langilea naiz. Ikasleak ere badira taldean. Eta Athletic-etik edo Realetik deituz gero, ez litzateke erraza izango, adibidez, astean lau bider entrenatzera joatea.

> **"Azken koitaduak ginen, baina bultzada handia eman diogu neskok"**

**Hala ere, futbolean segitzeko asmorik bai?**
Aurten uzteko asmoa nuen, baina akaso datorren urtean maila berri bat sortuko da emakumeen ligan, eta hala bada, segitu egingo dut.

Izan ere, maila berri bat egoteak (4. maila) lehiakortasuna handitu egingo du. Gaur egun desberdintasun handiak daude nesken futboleko taldeen artean, eta aldiz, maila berri bat sortuz gero, euskal liga moduko bat sortuko litzateke, taldeen arteko lehia handitu, eta kalitatea parekatu.

**Zeuk zer nahiko zenuke etorkizunerako nesken futbolari dagokionez?**
Ba ea egunen batean nesken futbola mutilen futbolaren mailara heltzen den, naiz eta oso-oso zaila dirudien arren.

**Beste zerbait gaineratuko zenuke?**
Neskak animatuko nituzke futbolean jokatzen. Esango nieke ondo pasatzeko kirol moduan hartzeko.

## Baso berria sortu dute Garagartza auzoan, bertako zuhaitzekin



Herri Eskolako neska-mutikoak aitzurrak eta bestelako lan-tresnarekin. | U.M.

**UBANE MADERA** | ARRASATE
Garagartzako garbigunearen ondoko zelaian 99 haritz, haltz, astigar eta lizar kimu gazte daude egubakoitzaz geroztik. Herriko gaztetxoek fin-fin sartutakoak dira, aurtengo Zuhaitz Egunaren baitan. Beraz, 10-15 urte barru hor haziko den basotxoaren hazia erein dute oraingoan.

**Emaitza positiboa**
"Lehen aldia izan da eta gustura ibili naiz; ekimen polita iruditu zait, natura gustatzen zaidalako", kontatu du Malenek. "Ondo egiten saiatu gara eta hemendik urte batzuetara baso polita izango dela uste dut", adierazi du Amaiurrek. "Ni inguruan bizi naiz eta bisitan etorriko naiz, basoa zela doan ikustera", gehitu du Magalik. "Zuhaitz batzuk ezagutzen ditut, nire aitak ortua dauka Garagartzan eta ibiltzen naiz tarteka laguntzen", esan du lotsati Liherrek.

Gaztetxoak gustura, beraz, lurrarekin izan duten kontaktu horrekin.

Eta Zuhaitz Eguna antolatu duten udal ordezkariak ere bai, urteetako lanak emaitza positiboa ematen duela ikusi dutelako: "Egundoko baso politak daude sortuta. Adibidez, badira urte batzuk Garagartzako Leten ibili garela, eta badator haritz, gaztainondoz... osatutako basotxo polita".



DEBAGOIENEKO TXIRRINDULARI KLUBA

## Bizikleta hartu eta 2.200 kilometro egin

Debagoiena Txirrindularitza Klubak hasi du aurtengo denboraldia, edo "txango-taldea", eurek dioten moduan. Iragarri dute martxotik urrira bitartean 2200 km egingo dituztela, gutxi gorabehera. Domekero-domekero hitzordua egin, eta txangoak antolatuko dituzte inguruan, zikloturistentako. Eta txirrindulari finek moduan, bide horretan laguntzeko euren zaindariari, Dorletako amari lore eskaintza egin diote, guztia ondo joan dakiekeen.

### OHARRAK

**ARRASATE IRRATIA GOIENA.NET ATARIAN**
Aurrerantzean Arrasate Irratia entzuteko ez da zertan Arrasaten egon edo bizi behar, izan ere, saltoa emanda dago, eta Internet bidez ere entzun daiteke. Goiena.net atarian dago gure irratia. *Www.goiena.net* webgunera sartuz gero, eskumako aldean ikus daiteke irratia martxan jartzen duen playerra edo botoia, iritzi atalaren azpiko aldean.

*Igo autobusera (*10:30-11:30 eta 14:00, 17:00, 19:00 eta 22:00*)* irratsaioak eskaintzen dituen eduki fresko-freskoak zein Arrasateko irratiak batzen duen musika sorta euskalduna bertatik bertara, guztion eskura klik bat eginez.

**ABAROAKO KUOTAK**
Urteko kuotak ordaintzeko epea luzatu egin dute Abaroan, martxoaren 28ra arte. Zortzi euro ordaindu behar dira, eta derrigorrezkoa da Abaroako edozein ekintzatan parte hartzeko.

Bestalde, iragarri dute martxoaren 28an egingo dutela aurtengo batzar nagusia (17:00, lehen solairuko E eta D aretoetan). 2010eko emaitzak jakinaraziko dituzte, eta 2011-ko aurrekontua aurkeztuko dute, besteak beste.

**UARKAPEKO TABERNA**
Uarkape taberna eta frontoia kudeatzeko zerbitzua lehiaketa publikora atera dute. Frontoia zaindu eta garbitzea eta taberna ustiatzea da egin beharrekoa. Informazio gehiago, kiroldegian.

# Etorkinen integraziorako hitzaldi zikloaren bigarren saioa, bihar

▶ Gurean jarraitu ahal izateko paperak berritzea izango da gaia; Kulturaten, 17:30ean

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Orain dela sei urte abiarazitako baztertze egoeran daudenei eta etorkinei zuzendutako harrera eta formaziorako proiektuaren baitan, atzerritar legearen gaineko hitzaldiak antolatu du Ekin emakumeak elkarteak, SOS Arrazakeriarekin elkarlanean.

Hitzaldi ziklo informatiboa da, eta lau saio egingo dituzte. Lehena, sustraitzea gai zuena, otsailaren 22an egin zuten. 40 bat lagun elkartu ziren; etorkinak gehienak. Bigarren saioa bihar egingo dute, Kulturateko areto nagusian, 17:30etik 19:30era. Paperen berrizketa izango da gaia. Mikel Mazkiaran abokatua eta SOS Arrazakeriako kidea izango da hizlaria. Etorkinei paperak berritzeko hainbat aholku emango dizkie Mazkiaranek. Hitzaldia gazteleraz izango da, Ekinekoen arabera, hizkuntza bat baino gehiagotan egitea "oso astuna" izango litzatekeelako.

**Parte-hartzea oinarri**

Antolatzaileek aurreratu dute Mazkiaranek gaia "gainetik" jorratu ostean protagonistei emango diela hitza. Hau da, saioak hartzailearen parte-hartzea izango du oinarri.

Biharkoaren ostean bi hitzaldi geratuko dira: berriz elkartzea –hau da, euren familia hona ekartzea– eta nazionalitatea lortzea. Saio horien hitzordua ikusleek eurek erabakiko dute, biharko saioaren ostean.




Otsailaren 22an egin zen hitzaldi zikloaren lehen saioan etorkinen sustraitzea izan zuten hizpide. | EKIN EMAKUMEAK

## Udalekuetarako begirale bila hasi da Txatxilipurdi

Maiatzaren 6a da izena emateko azken eguna; beharrezkoa izango da formazio saiora joatea

J.B. | ARRASATE

Joan den astean aurkeztu zuen Txatxilipurdik, Bergarako Jardun eta Soraluzeko Pil-Pilean euskara elkarteekin batera, aurten haur eta gazteendako antolatu dituzten udalekuak; *Udako abentura* da aurtengo leloa.

Bada, ez da udalekurik begirale barik, eta Txatxilipurdi hasi da "begirale zerrenda luze" bat egiteko lanean. Maiatzaren 6a baino lehen eman behar da izena, eta honakoak dira bete beharreko baldintzak: 18 urte edo gehiago izatea, euskara jakitea eta Txatxilipurdik antolatzen dituen begirale formazio saioetara joatea.

Izan ere, azken urteetan moduan, begirale gisa aritu ahal izateko, formaziorako saio berezia antolatu du Txatxilipurdik. Derrigorrezkoa izango da saio horretara joatea; ekainaren 4an egingo da.

**Aukeraketarako irizpideak**

Begiraleak aukeratzeko erabiliko dituzten irizpideak honakoak dira, eskatzaileek jakinarazi dutenez: begirale titulua izatea, ikasketak, esperientzia, lanerako prestutasuna eta bizilekua.

Hala, haur eta gaztetxoekin euskaraz lan egin gura duenak hurrengo dokumentuak bidali behar ditu: currikuluma, argazki bat, nortasun agiriaren fotokopia eta begirale edo zuzendari tituluen kopiak. Horrez gain, izenemate orria bete beharko da eta gainerako dokumentuekin batera aurkeztu. Izenemate orri horretan, besteak beste, lan esperientziaren, zaletasunen eta norberaren ordutegiaren gainean galdetzen da.

Hiru bide daude dokumentuok entregatu edota edozein zalantza argitzeko: Txatxilipurdik Nafarroa etorbideko 23. zenbakiko lehen solairuan duen egoitzara hurbiltzea, 943 79 54 46 telefonora deitzea (Mirari edo Arantza) edo *haurrak@txatxilipurdi.com* helbidera e-posta bidaltzea.



JOKIN BEREZIARTUA

## Artea eta natura eskutik Monterronen, beste behin

Garaion naturartea proiektuari esker, Lanbide Heziketako elektrizitate, sukaldaritza eta iturgintzako ikasleek hiru artelan egin zituzten eguenean Monterronen. Irudimena oinarri eta naturako elementuak tresna hartuta esanahiz jositako artelanak egin zituzten, elkartasuna oinarri hartuta. Ikasle eta antolatzaileak, pozik: "Espazio zabalean lanean jarriz gero oso gustura aritu dira eta sormena, irudimena eta gogoa soberan dutela erakutsi dute", adierazi zuen Amaia Gabilondo Garaioneko kideak.

## Anari eta haren taldea ere Kooltur Ostegunera datoz

J.B. | ARRASATE

Joan den eguenean gurean Danbakak ezagutzera eman zuen Norman taldearen kontzertua izan zen.

Bada, Anari musikari azkoitiarraren eta haren taldearen kontzertua izango da asteon Kooltur Ostegunak ekimenak dakarrena. Eskarmentu handiko musikaria, agertokian biluzten den horietakoa eta goi mailako musikariez lagunduta datorrena, gainera. Izan ere, badira zenbait urte Anariren alboan direla Borja, Drake eta Mikel; ibilbide luzekoak horiek ere –besteak beste, Bap!, Inoren Ero Ni, Nacion Reixa, Purr eta Hotel taldeetan ibilitakoak dira–. Hitzordua eta sarreraren prezioa, betikoa: 22:00ean eta bost euro.

## AGAKOk 20 urte beteko ditu apirilean; kamisetak salgai dira

Gaztetxeko Asanbladak 20 urte beteko ditu apirilean. Egitarau berezia ari dira prestatzen eta dagoeneko urteurreneko kamisetak jarri dituzte salgai. Gaztetxean eta Irati eta Iluntz tabernetan daude salgai, zortzi eurotan. Hiru eredu atera dituzte, denetariko neurrietan.

## Sendabelarren ikastaroa Orhipean-en eskutik, hilaren 24an

Orhipean elkarteak sendabelarren ikastaroa antolatu du. Bi saio egingo dituzte: hilaren 24an eta 31n. Lehen saioan azalpen teorikoak emango dituzte, 18:00etatik 20:00etara. Bigarren saioan, berriz, ikasitako praktikara eramango dute. Izena emateko Irati tabernara jo behar da.



Goiko Estazioko sarreran bertan entseatzen duten talde batzuetako kideak. | IMANOL GALLEGO

# Goiko Estazioko elkarteko kuotak jaitsi egin dituzte

- Adingabekoen parte-hartzea handitzeko, erdira jaitsi dituzte kuotak
- Udalak eta Goiko Rock elkartekoek ekimen positibotzat daukate

**IMANOL GALLEGO** | BERGARA

Duela bi urte Bergarako Udalak Goiko Estazioa berritu eta herriko musika taldeek entsegu lokal egokiak izateko atondu zuen. Bi urte hauetan, zenbait talde desagertu eta beste zenbait gehitu ostean, ekimenak ondo funtzionatzen du, eta kideak zein Udala bera gustura daude.

Bergarako Udalak ekimena oso akordio positibotzat dauka, eta, arazo puntual batzuei garrantzia kenduaz, eraikinaren erabilpena primerakoa dela argitu nahi izan du. Goiko Rock elkartekoek ere akordioa oso lagungarria izan zaiela azpimarratu nahi izan dute.

Akordioa ez da eraikinaren erabilpenera mugatzen. Udalak herriko beste kultura elkarteekin egiten duen moduan, musika elkarte horren lankidetza ere eskatzen du. Udaletik antolatzen diren ekintzatan, behar izanez gero, parte hartzeko beharra dute. Gainera, zarata kontuak direla -eta, eraikinaren ordutegia errespetatzea ezinbestekoa gertatzen da. Aurreko akordioek izan duten arrakasta ikusita, abenduan, bi aldeek akordioa luzatu egin zuten.

**Kuota merkeagoak**

Azken bi urte hauetan, musika taldeko kide bakoitzak hilero 10 euro ordaintzen zituen eraikinaren mantenua, garbitasuna eta segurua ordaindu ahal izateko, baina Udalak Goiko Rock elkarteko kide diren zenbait adingabekoren kexuak jaso zituen. Nerabeen iritziz, kuota oso garestia zen, eta, lanik egiten ez duten heinean, kuotak ordaintzea zail egiten zitzaien. Sortutako arazo txiki hori konpontzeko asmoarekin, Udalak eraikina kudeatzen duen elkartekoekin izandako bileran gaia aztertzeko eskatu zien.

Elkartekoen erantzuna ezin da positiboagoa izan, kuotak erdira jaitsi dituzte-eta. Aurreko urteko kuotekin lortutako diru kopurua dela-eta kuotak erdia jaistearekin gastu guztiak ordaintzeko gai dira, eta euren konpromisoa musika sormenarekin dutela gaineratu dute: "Guk ez dugu diru asko pilatu nahi, nahiago dugu ahalik eta musika talde gehien eratzen laguntzea", zioen Eugenio Pelicanok, elkarteko presidenteak. Arazoa gainditu ostean, Udaleko osoko bilkuran berretsi egin zuten bi aldeek akordio hori.



IMANOL GALLEGO

**EUGENIO PELICANO**
GOIKO ROCK ELKARTEKO PRESIDENTEA

## "Aurten, kide gazteek eskatuta, hileroko kuota 10 eurotik 5 eurora jaitsi dugu"

Goiko Rock elkartea sortu zenetik Eugenio Pelicano (Badajoz, 1972) bertako presidente izan da. Ia 110 bazkide dituen elkarte horrek Goiko Estazioa entsegu lokal moduan erabiltzen du.

**Zergatik sortu zenuten elkarte hori?**

Zerbait beharrezkoa izan zen; Udalak lokal hau egokitzerakoan eskatutako premia bat izan zen, lokal hauek hobeto kudeatu ahal izateko.

**Zein akordiotara iritsi zineten?**

Ez da akordio berezi bat, edozein kultura elkartek duenaren antzerakoa da. Batetik, Udalak antolatzen dituen musika ekitaldietan parte hartzea; eta bestetik, lokalaren gastuak (ura, garbiketa, segurua) gure gain hartzea.

**Urtero berritzen duzue akordioa?**

Bai, urtero berritzen dugu. Urte amaieran batzarra izaten dugu udalbatzarekin, eta, guztiok gustura jarraitzen badugu, besterik gabe akordioa beste urte bat luzatzen dugu.

**Berriztapen horrek aldaketarik ekarri dizue?**

Funtsean akordioa bera da, baina aurten, ordaintzen ditugun kuotak aldatzeko eskatu zigun Udalak. Orain arte 10 euro ordaintzen genituen hilabete bakoitzean, eta, gazteek diru askorik ez dutela-eta, 5 eurora jaitsi dugu.

# Herriguneko TAO guneak aldaketak izango ditu

Orain arteko aparkaleku arautuaren guneari hiru kale gehiago batuko zaizkio

**I.GALLEGO** | BERGARA

TAO gunea Kruz Gallastegi, Bideberri eta Masterrekara zabalduko da Bergaran, laster, eta dagoeneko erabilgarri dauden guneetan gaueko bederatzietara luzatuko da ordutegia. Erabaki hori abenduan hartu bazen ere, laster sartuko da indarrean, eta, hala, Bergarako Udalak martxan jarritako mugikortasun plana herriguneko beste hiru kaletara zabalduko dute.

Zabaltze plan horrek ordutegi aldaketak ere ekarriko ditu: orain arteko arratsaldeko ordutegia ordubete luzatzea onartu zen; Hori dela eta, aparkaleku arautuaren ordutegia 21:00ak arte izango da. Baina aldaketa horiek guztiak ez dira berehala martxan jarriko, TAO gune berrietako aparkalekuak egokitu egin behar dira-eta.

**TAO sistemari alegazioak**

Egueneko ezohiko osoko batzarrak TAO gunea zabaltzeko planak jasotako bi erreklamazioak aztertu ostean, bakarra aurrera ateratzea onartu zuen aho batez. Gauzak horrela, Zubieta kaleko 2. eta 4. atarietako bizilagunei egoile txartelak emango zaizkie, bizilagunek azaltzen zuten moduan, TAO gunea indarrean jartzen denean non aparkatzeko tokirik gabe geldituko baitira.

Bigarren alegazioak ez zuen udalbatzaren onespenik jaso, eta, aldeko lau boto jaso arren, ez zen aurrera irten. Udalak dionenez, nahiz eta TAO gunea handitu, Katabia kaleko egoera Herri Lagunak kaleko bizilagunek dutenarekin pareka daiteke, eta, ondorioz, ez dute egoile txartela jasotzeko behar berezirik ikusten. Hortaz, Katabia kaleko bizilagun batek aurkeztutako alegazioa bertan behera geratzea onartu zuen Udaleko ezohiko bilkurak. Bada, Udalak hartutako erabakia 15 egunez publiko egin ondoren, eta inork alegaziorik jartzen ez badu, behin betiko onartua geldituko da.



TAOko zaintzailea isuna jartzen. | MONIKA BELASTEGI

# Angiozarrek eta Osintxuk lehenengo aldiz Korrika batzorde propioak antolatu dituzte

- Lehenengo aldiz Korrika Angiozartik pasako da eta batzordeak ongietorri beroa egin nahi dio
- Osintxun sortu berri den Euskara Batzordeak Korrikaren inguruko zenbait ekitaldi antolatuko ditu

**IMANOL GALLEGO** | BERGARA

17. edizioan lortu du Angiozarrek Korrika bere kaleetan zehar igarotzea. Aurreko edizioan eskaera berandu egin zuten eta aurtengo egitarauaren berri izatean sorpresa handia hartu dute. Apirilaren 14ean, eguenean, Korrikaren testigua Elgetako mugan jaso eta Bergararaino jaitsiko du Angiozarrek.

Auzo osoak poz handia hartu zuen, eta, berria jakiteaz bat, Korrika Kulturala planifikatuko duen Korrika Batzordea eratu zuten. Ordutik hona, zenbait bilera egin dituzte eta auzoko eskola, guraso elkartea eta zenbait auzotar ekimen horren alde lan egiteko prest azaldu dira. Korrika 17 hasten denean, eskolako haurrek egindako lekukoaren ibilbidea azaltzen duen plano bat jarriko dute auzoko plazan, eta Korrika Angiozarrera iristeko falta diren egunak zenbatzen dituen markagailu bat ere izango da auzoan. Auzoko Korrika Batzordea, angiozartar guztiak animatzeko, agenda kultura mardula antolatzen dabil.

**Osintxuk kultura ekintzak**

Angiozarrekin gertatu ez den moduan, Korrika ez da Osintxutik pasatuko. Hala ere, auzoan sortu berri duten Euskara Batzordeak korrikaren inguruko hainbat ekitaldi antolatu ditu.

Apirilaren 16rako, Euskara Batzordeak Korrika Txikia antolatu du auzoko kaleetan eta ondoren, frontoian, txokole-jan gozo eta jolas entretenigarriak izango dituzte. Hori, baina, ez da Korrikari eta euskarari auzoan egingo dioten ekintza bakarra izango, batzordekoek auzotar guztiek parte har dezaten nahi dute-eta.



Aurrean auzoko zaharrena (Isabel, 96 urte) eta gazteena (Oier, 6 hilabete). | GOIENA



Auzoko eskolako zenbait haur, guraso eta irakasle. | GOIENA

# Elbarrituentzako aparkalekuek araudi berri bat edudiko dute

Araudi zorrotzago bat onartzeaz gainera, elbarrituen txartela gaizki erabiltzen duenak zigortzeko araudi berri bat onartu dute

**I. GALLEGO** | BERGARA

Elbarrituen aparkalekuak erregulatzen zuen araudi bat indarrean egon arren, zenbait hutsune antzeman ostean, erregelamendu berri bat onartu zuten udaleko osoko bilkuran. Gizarte zerbitzutako teknikaria den Xabier Legorburuk dioenez "araudi berri hau indarrean zegoena hobetzera dator". Hobekuntzez gainera, erregimen zigortzaile bat ere izango du araudi berriak.

Neurri berri hauen bitartez, elbarritu txartela dituzten auto eta erabiltzaileak hobeto kudeatu nahi ditu Udalak. Orain arte Udalak banatutako hainbat txartelekin zenbait irregulartasun antzeman ostean hauek kontrolpean edukitzeko asmoa erakutsi du Udalak. Legorburu teknikariak esan duenez, "elbarritu txartela gaizki erabiltzen zuen bat zigortzeko araudi gabe geunden". Hori ekiditeko zigor erregelamendua zehaztu dute.

Zigorrak ezartzerakoan, arau-haustea ekarri duen ekintzaren larritasunaren araberakoa izan beharko da. Horrenbestez, aplikatu beharreko zigorraren maila zehazteko, kontuan hartuko da bereziki nahita edo behin baino gehiagotan egin duen, egindako kalteen izaera zein den eta berrerortzerik izan den, hau da, urte batean izaera bereko arau-hauste bat baino gehiago izan duen, betiere erabaki irmoaren bidez halaxe adierazi denean.

Hau guztia kontuan hartu ostean, zigorrak arinak, larriak edo oso larriak izan daitezke. Horren arabera, zigor ekonomikoaz gainera, txartela erretiratuko zaio erabiltzaileari, eta, muturreko kasuetan, txartela kentzea ere aurreikusten da.

**Parking erreserba**

Kasu batzuetan, elbarritu txartela izateaz gainera, zenbaitek aparkaleku erreserbatu bat izaten dute. Honi esker etxetik gertu daukaten plaza ziurtatua izaten dute. Orain arte, horrelako erreserba bat lortzeko, Gipuzkoako Foru Aldundiak elbarritasun txartela lortzeko exijentziak bete ostean, mugikortasun maila 7koa izan behar zen, hemendik aurrera baina, udalbatzak exijentzia maila igoko du eta gutxienez, 10 puntutako mugikortasuna beharrezkoa izango da.

Elbarritasun txartelak lortzeko %33ko elbarritasun maila bat edukitzea beharrezkoa bada ere, Udalak elbarritasun horrek mugikortasunarekin zerikusia duen aztertuko du, erreserbatutako aparkaleku horiek benetako beharra dutenei eman ahal izateko.

Gauzak honela, parking erreserba dutenek abenduaren 31 baino lehen eskaintza berritu beharko dute, eta horri esker kasu bakoitza hobeto aztertuko dute udal teknikariek.

Norbanakoen aparkalekuak hobetu kudeatzeaz gainera, elbarrituekin lan egiten dituzten erakunde eta enpresek ere onurak izango dituzte. Araudi berri honen bitartez, erakundeak horrela eskatuz gero, modu errazago batean lortu ahal izango du parking erreserba bat.

Erregelamendu berria jendearen aurrean egongo da 30 egunez eta inork alegaziorik jarri ezean, onartutzat emango da.

## OHARRAK

**IPINTZAKO IKASLEEN ZENBAKI SARITUAK**

Ikas-bidaiarako dirua ateratzeko Ipintzako DBHko 4. mailako ikasleek Aratuste-zapatuan egindako zozketan bost saski banatu gabe geratu direla aurreratu dute. Zenbaki hauei dagozkienak, hain justu ere: 482, 686, 592, 588 eta 515. Txartel horien jabeak institututik pasa daitezke martxoaren 25a aurretik saria jasotzera.

**ARATUSTEETAKO ARGAZKIAK**

Nahikari tabernak ateratako argazkiak jendeak eskuratzeko moduan daude. Erretratu guztiak tabernaren webgunean ikus daitezke: *www.nahikari.com*. Argazki horien kopiak eskatu nahi dituztenek Nahikari tabernara joan beharko dute, kopiak bertatik kudeatzen dituzte-eta.

**2011KO MENDEKOSTEAK ANTOLATZEKO DEIALDIA**

Bergarako Udaleko Jai batzordeak herriko taldeei eta herritarrei deialdia egiten die aurtengo Mendekoste jaiak antolatzen laguntzeko. Informazio bilera irekia izango da eta martitzenean, martxoaren 15ean, 20:00etan, egingo dute batzarra herriko kultura etxean.

# Idiazabal jatorriko gazta dastatzea osoko bilkura aretoan

**I.G.** | BERGARA

Martxoaren 11tik apirilaren 17ra Debagoiena zaporez betetako proposamenez beteko da. Egun horietan, Debagoieneko VII. jardunaldi gastronomikoak ospatuko dira, eta, horien barruan, Bergarako osoko bilkuren aretoan Idiazabal jatorriko gazta dastatzea antolatu dute.

Gazta mota horren sekretu eta zaporearen ñabardurak hobeto ezagutzeko, Idiazabal Jatorriko Gaztaren Dastaketa Ofizialeko Batzordeko Bittor Rodriguez aditua ere bertan egongo da. Dastatzea Bergarako osoko bilkuren aretoan izango da martxoaren 16ean, eguaztena, 19:00etan.



Argazkioinaxxxx. | ARGAZKILARIAXXX

# Eguzki plakak erosteko aukera izango dute herritarrek 800 eurotan

▸ Erosleek %6ko etekina atera ahal izatea aurreikusten dute

▸ Bihar, hilak 15, herritarrendako bilera egingo dute Aldundikoek

MIREIA BIKUÑA | OÑATI

Energia berriztagarrietan beste pauso bat eman gura du Udalak. Hori horrela, oñatiarrek aukera izango dute herriko eguzki plakak erosteko. Hain justu ere, kiroldegiko zati berriaren eta plazako azokaren teilatuetan jarritako eguzki plakak jarriko dituzte herritarren eskura. 800 eurotan salduko dituzte.

Energia berriztagarriak sortzeko aukeraren gainean azalpenak emateko, eta prozesua bera argitzeko, Aldundiko ordezkariek bilera egingo dute herritarrekin bihar kultura etxean, 19:00etan. Bilera irekia da, eta interesa duten herritar guztiei dei egin die Udalak. Galderak egiteko aukera izango dute.

**Lau herritan**

Orain dela bi urte azaldu zuen Foru Aldundiak Gipuzkoako lau herritan –Zarautz, Zegama, Elgoibar eta Oñati– esperientzia aitzindari bat abiarazteko asmoa: jabetza publikoko eraikinen teilatuetan eguzki plakak jartzea, horiek herritarrei saldu eta hortik ateratako etekina herritarrei ematea. Hala, herritarrak energia berriztagarriak sortzeko prozesuan sartuko lirateke.

Oraingo esperientziarako, eguzki plaka berriak ipini dituzte kiroldegiko eraikin berriaren eta azokako teilatuetan, eta Aldundiak ordaindu ditu gastuak.

Helburua da petroliotik datozen energiak energia berriztagarriengatik ordezkatzea.

**Biomasa**

Udalak beste proiektu bat ere badu esku artean: biomasaren bidez beroa sortzea posible den edo ez aztertzea; ez dute zehaztu zer egingo duten proiektu horrekin.

---

**Pablo Miguel** | Komite Internazionalistak taldeko kidea

# "Azken agintaldian 32.000 pertsona hil dituzte Mexikon"

Oñatiko Komite Internazionalistek Chiapasi laguntzeko diru bilketa kanpaina abiarazi dute



Pablo Miguel, Oñatiko Santa Marina plazan. | MIREIA BIKUÑA

M.B. | OÑATI

Oñatiko Komite Internazionalistek Chiapaserako dirua batzeko elkartasun kanpaina abiarazi dute. Euskadiko Kutxan kontu korrontea zabaldu dute. Pablo Miguelek eman dizkigu proiektuaren xehetasunak.

**Zertan datza Chiapas Elkartasuna proiektua?**

Hango komunitate batzuk –Carrizal, Guaximal, Santa Rita de la Frontera eta Villa Comaltitlan– oso zigortuak daude: narkoak, paramilitarrak eta ejerzito federalak daude euren kontra egiten. Baina behar batzuk dituzte. Gure asmoa da komun komunitarioa egitea, sendagaiak eta frijol haziak erostea eta bi granja eraikitzea. Horietan, *pelibuey* arrazako ardiak izango dituzte.

**Hori guztiori egiteko 8.200 euro behar dituzue. Nondik aterako duzue dirua?**

Gehienbat, erakunde eta enpresetatik. Udalak, Ulma Fundazioak, Euskadiko Kutxak eta La Caixak laguntza ematen digute. Debagoieneko beste udal batzuetan eskaera egin izan dugu, baina Arrasatekoak bakarrik eman digu laguntza.

**Kontu korrontea zabaldu duzue, herritarren ekarpenak jasotzeko.**

Bai, hala da. Baina esperientziak erakusten digu ekarpen txikia izaten dela. Herritarrek guri, behintzat, laguntza txikia eman izan digute. Akaso, ez dutelako proiektua ezagutzen... Gure kontua da: 30350170511701008768.

**Zergatik Chiapas?**

Oñatiko Komite Internazionalistak taldearen helburuetako bat da pertsonen garapen integrala sustatzea. Guztiok dugu bizitza duina izateko eskubidea. Chiapasen jendea hiltzen dute egunero. Azken agintaldian 32.000 pertsona hil dituzte Mexikon.

**Ez dute nazioarteko laguntzarik jasotzen?**

Mexiko oso aberatsa da: petrolioa, ura, meatzeak... ditu. Bi aldeko 36 itun ditu beste horrenbeste herrialderekin. Ematen du itun horiekin etekina atera beharko luketela mexikarrek, baina ez da horrela.

Mexikon 122 milioi pertsona bizi dira. Horietatik 80 milioi pobrezian bizi dira, eta horietatik 60 milioik ez daukate ezer bizi izateko eta jateko. Egoera oso latza da.

**"Erakunde eta enpresen laguntza izaten dugu, gehienbat"**

**"80 miloi mexikar pobrezian bizi dira, eta horietatik 60 milioik ez dute ezer"**

---

## Argazkilari onenen erretratuak ikusgai kultura etxean

Argizaiola 2010 erakusketa gaur zabalduko dute kultura etxean. Hilaren 27ra arte, egunero egongo da ikusgai, 18:00etatik 20:00etara, Ilunpetan taldeak antolatuta.

Argizaiola Euskal Herrian egiten diren argazki lehiaketetako irabazleen arteko lehiaketa da: txapeldunen arteko txapelketa. Iaz 24 argazkilari lehiatu ziren, eta 186 erretratu aurkeztu zituzten. Irabazlea Emilio Muñoz bilbotarra izan zen *Escalera III* erretratuarekin.

## Mendi-eski irteeran izena emateko epea zabalik bihar arte

Aloña Mendiko eski sailak mendi-eski irteera egingo du aste bukaeran: hilaren 18an, 19an eta 20an, Aran bailarara. Interesatuek bihar baino lehen eman behar dute izena Aloña Mendi tabernan, 19:00etatik 20:00etara. Parte-hartzaileek duten mailaren arabera hiru talde zehaztuko dituzte: maila baxua, ertaina eta gorena.

Bestalde, martxoaren 25etik 27ra Baqueirara eta apirilaren 22tik 30era Alpeetara egingo dituzten irteeretan parte hartu gura dutenek Aloña tabernan eman behar dute izena.

---

## OHARRAK

**DEIALDIA**

1988an jaiotakoek kintada egingo dute martxoaren 26an. Interesatuek 20 euro sartu beharko dituzte 3035 0170 54 1700025371 kontuan, hilaren 19a baino lehen.

**HITZALDIA**

*Emakumeak, Islama eta eremu publikoa* hitzaldia egingo dute hilaren 15ean kultura etxean, 19:00etan. Trinidad Vicentek egingo du berba etorkinek eraginda Euskal Herrian dagoen aniztasun erlijiosoari buruz.

**HITZALDIA**

Batxilergo ondorengo ikasketen gaineko hitzaldia egingo dute hilaren 16an ikastolako aretoan, 18:30ean.

**KONTZERTUA**

Udal Musika Bandak kontzertua egingo du martxoaren 20an Santa Ana antzokian, 12:45ean.

**OSPAKIZUNA**

Arrasateko Corazon de Encina elkarteak Extremadurako jaia egingo du hilaren 20an, 11:00etatik 14:30era arte. Besteak beste, Extremadurako produktuak jateko eta erosteko aukera egongo da.

**HITZALDIA**

*El sistema solar, los exoplanetas y la busqueda de vida* delako hitzaldia egingo du Ricardo Huesok, Ulma Taldearen 50. urteurreneko ekitaldien barruan. Hilaren 24an izango da, Ulmako auditoriumean, 18:00etan.

**DEIALDIA**

Arranoko kultura egitarauaren barruan emakumeen historia ezagutzeko txokolate-jana eta tribial jokoa egingo dute hilaren 24an, 18:00etan. Bestalde, hilaren 25ean, Reaccion 912 eta beste talde batek zuzenekoa egingo dute, 22:00etan. Azkenik, hilaren 27an *Antonia* pelikula emango dute tabernan, 17:00etan.

**TELP TAILERRA**

Txantxiku ikastolak antolatuta, hizkuntza mailako gatazkak konpontzen laguntzeko Valentzian sortutako TELP tailerraren oinarriak azalduko dituzte, hilaren 30ean. EMUN elkarteko ordezkariek jardungo dute ikastolako aretoan 18:30ean.

ARETXABALETA

# Basotxok ekintza mordoa egiten jarraitzea onartu du

## Zuzendaritza batzordean kide bi aldatu dituzte eta Ana Mari Iñurrategi eta Ciriaco Sandoval sartu dira

**MIRARI ALTUBE** | ARETXABALETA

Joan den eguenean, hilak 10, egin zuen Basotxo erretiratuen elkarteak urteko batzarra, eta, bazkide askorik ez elkartu arren, urteko egitarauaren eta aurrekontuaren berri eman zieten zuzendaritzako kideek. Egindako bidaia eta ekintzak gogoratu zituzten, eta aurrera begira ildo horretatik jarraitzeko asmoa agertu.


Basotxoko zuzendaritzako kideak azalpenak ematen batzar orokorrean. | M.A.

### 87.300 euroko aurrekontua

Xabier Urtzelai presidenteak urtean egindakoen berri eman zuen: sekula baino bidaia gehiago –Bilbo, Granada, Iratxe, Cadiz…–; urteroko ospakizunak; berbaldiak eta ikastaroak, tartean lehen sorospenen gainekoa; abesbatzak gero eta ekitaldi gehiago –Donostian, Gernikan…–; eztabaida mahaiak, tartean alkatearekin batzartu eta hark esandakoak hausnartzeko… Guztira, 1.460 lagunek hartu dute parte. Eta 2011n ekintza horiek guztiak egiten jarraitzeko asmoa agertu zuten.

Horretarako beharko duten diru kontuen berri eman zuten gero: 87.300 euroko aurrekontua: 5.550 euro, gastu orokorretarako; 68.450 euro, bidaietarako; 5.700 euro, kultura kontuetarako; 400 euro, mendi martxa eta jokoetarako; eta 7.200, ospakizunetarako. Gastu horren zatirik handienari elkarteak berak egingo dio aurre; geratutako 6.800 euroko defizita estaltzeko Udalak 6.000 euroko dirulaguntza emango du eta La Caixak 800 eurokoa.

Bestalde, zuzendaritza batzordeko bi kidek urte bi egin dituzte jardunean, eta agur esan dute: Jesus Martinezek (idazkaria) eta Miguel Caberok (diruzaina). Horien ordez sartu dira: Ana Mari Iñurrategi eta Ciriaco Sandoval. Xabier Urtzelaik presidente izaten segituko du.

## UDAko zuzendaritzarako hautagaiak aurkezteko epea zabaldu dute

**M.A.** | ARETXABALETA

Aretxabaleta Kirol Elkarteak hauteskundeetarako deia egin du eta hautagaiak aurkezteko epea zabaldu. Apirilaren 20a arte dute interesatutako bazkideek zerrendak osatu eta aurkezteko epea.

### Hautagai kopuru bakoitia

Eduardo Altube presidente duen egungo zuzendari batzordeak bi urte bete ditu agintean, eta elkartearen estatutuek esaten dutenari jarraituz hautagai berriak aurkezteko epea zabaldu dute. Estatutuek honakoa diote 41. atalean: "Zerrenda itxi eta aldaezina aurkeztuko da. Zerrenda bakoitzean agertuko den hautagai-kopurua bakoitia izango da; horiez gain, gutxienez beste bi izen aurkeztu beharko dira ordezko moduan".

Zerrendak aurkezteko epea apirilaren 20a arte daukate interesatuek, eta honako helbidera bideratu behar dira: *angelzubi@euskaltel.net*.

Hautagai-zerrenda bat baino gehiago aurkeztuz gero, 2011ko maiatzaren 6an, egubakoitza, elkarteak egingo duen ezohiko batzar nagusian botorik gehien jasotzen dituen zerrendako kideak izendatuko dituzte Aretxabaleta Kirol Elkarteko zuzendaritza batzordeko kide eta presidentea izango da zerrenda horretako burua.

## OHARRAK

**ERRETIRATUAK MILAGRORA**

Basotxok irteera antolatu du Milagroko El Montecillo etxaldera (Nafarroa), martxoaren 24rako. Izenematea gaur eta bihar (11:00-12:00), Basotxon.

**'SER MUJER. SER HOMBRE' BERBALDIA BIHAR**

Bihar, hilak 15, Berdintasun Sailak antolatuta *Ser mujer. Ser hombre. Estereotipos en crisis* berbaldia eskainiko dute Arkupen (19:00).

**AINTZANE EZENARROREN BERBALDIA EGUAZTENEAN**

Aralarko legebiltzarkide eta bozeramaile den Aintzane Ezenarrok *Abertzaletasunaren erronka* berbaldia egingo du eguaztenean, hilak 16, Arkupen (18:30).

ESKORIATZA

# PSEk plan berezien proposamenak argitu ditu

## Erañako parkearen eta iparraldeko hegalaren kontuak azaldu eta Hamaikabati erantzun dio

**M.A.** | ESKORIATZA

Hamaikabat alderdiak oraintsu esandakoak erantzun gura izan ditu Eskoriatzako Alderdi Sozialistak, hau esanda: "Ezinegona eragiten die PSEko ordezkariak iniziatiba izan eta proposamenak egitea Udalean".

### Iparraldeko hegalerako plana

Eraña inguruan kultura zeltaren gaineko parkea egitea proposatu zuen Iñaki Pierrugues zinegotziak, interpretazio gune bat eraikitzea: "Eskoriatzarrek eta bisitariek Axtrokiko ontzien bidez historiaurrera hurbiltzeko aukera izan dezaten". Horretarako, baina, plan berezi bat gertatu behar dela dio, "ontziok topatutako lekuak ere balio handia duelako".

Bestalde, Eskoriatzako iparraldeko hegalarendako plan berezia egitea proposatu zuen Pierruguesek, eta hauxe azaldu du: "Gune hori babestu eta egokitzea da helburua, hegalaren eta inguruko paisaiaren segurtasuna bermatuz; Udalak arautua eta kudeatua izan dadin: aisialdirako guneekin; Bidebarrietako paseoa berrituta; biodibertsitatea kontserbatuta; eta uren eta lurren mugimendua kontrolatuta". Hegal horrendako plan berezia dela egokiena jakin beharko lukeela Hamaikabatek gaineratu du: "Udalean egondako urteetan ez dute egin hegalaren egonkortasun ikerketarik, ezta Santa Marinako etxeen proiektua egitean ere; eta agintaldi honetan bai".

## Irabazi asmorik gabeko kultura elkarte eta taldeendako dirulaguntza deia egin dute

**M.A.** | ESKORIATZA

Udalbatzak irabazi asmorik gabeko Eskoriatzako kultura elkarte eta taldeei aurten egingo dituzten ekintzetarako dirulaguntzak emateko oinarriak onartu zituen otsailean. Behin -behineko onarpena izan zen eta oinarri horiek Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zituzten joan den astelehenean, hilak 7, erreklamazioak aurkeztu ahal izateko. Oinarri horiek ezagutzeko udaletxera jo behar da, eta Udalaren webgunean ere badaude: *www.eskoriatza.net*.

30 egunean erreklamaziorik egon ezean, behin betiko onartuko dituzte, eta oinarri horien arabera banatu gero dirulaguntzak.

## OHARRAK

**KZGUNEKO HITZORDUAK**

KZguneko dinamizatzailea honako egunetan izango da Eskoriatzako bulegoan (16:30-20:00): 16, 23 eta 30. Bada, 16 urtetik gorakoendako hainbat ikastaro ditu aukeran.

**KAFE-TERTULIA BIHAR, EMAKUMEEN GAINEAN**

Bihar, martitzena, *Mujer en positivo* kafe-tertulia egingo dute Ibarraundi museoan (18:00). Emakumeen Eguna dela-eta antolatu dute eta Lahar elkargoko psikologo Eva Gartziak bideratuko du.

**AFRIKAR PERKUSIO IKASTAROA**

Gaztelekuko kideek Afrikako doinuen perkusio ikastaroa izango dute datorren zapatuan, hilak 19, gaztelekuan.






Igor Aiastui eta Kepa Etxebarria Eki tabernan, Aramaioko kanporaketa jokatu zuten mahaian. | JOKIN BEREZIARTUA

ARAMAIO

**Igor Aiastui eta Kepa Etxebarria** | Arabako mus txapeldunak

# "Ez genuen inondik inora espero; esperientzia oso polita izan da"

- Zapatuko Euskal Herriko txapelketaren finalean ez zuten egun ona izan
- Lau erregetara jokatzen ohitzea izango da datorren urterako erronka

JOKIN BEREZIARTUA | ARAMAIO

Arabako txapeldun moduan heldu ziren Igor Aiastui (Aramaio, 1975) eta Kepa Etxebarria (Aramaio, 1979) zapatuan Urruñan jokatu zen Euskal Herriko mus txapelketako finalera. Aramaioko kanporaketan bigarren geratu ostean, Kanpezun Arabako bikote onena izatea lortu zuten. 128 bikotez osatutako finalean aramaioarrak ez ziren fin ibili.

**Nola joan da Euskal Herriko mus txapelketako finala?**

**Igor Aiastui:** Ez genuen goizeko ligaxkatik pasatzea lortu. Gure taldean Lapurdiko, Baztango eta Antzuolako bikoteak izan ziren eta ez genuen partida bat bera ere irabazi. Hala ere, presio barik joan ginen, ez genuen-eta ezer galtzeko. Esperientzia polita izan da; datorren urtean ere hartuko dugu parte.

**Nola heldu zineten Arabako txapeldun izatera?**

**Kepa Etxebarria:** Eki tabernan jokatu zen Aramaioko kanporaketan bigarren geratu ginen. Hasieran lehen bikotea bakarrik sailkatzen zen Arabako txapelketarako baina bikote faltan zeudenez, guri ere deitu ziguten.

**Errebotez heldu ostean, irabazi.**

**I.A.:** Hala da. Hasierako ligaxka erraz pasatu genuen. Baina kanporaketetan oso bestelakoa izan zen istorioa: final laurdenetan 3-1 irabazi genuen, final erdietan 3-2 –justu-justu– eta finalean, azkenik, 3-0. Kanpezura joatearekin bakarrik pozik geunden eta ez genuen inondik inora espero Arabako txapeldun izatea.

**K.E.:** Gainera, lau erregetara jokatu zen Arabako txapelketa eta gu ez gaude ohituta modu horretara jokatzera. Jokoa oso ezberdina da, karta gutxiagorekin jokatzen da. Hau da, karta txarrekin jokatzen jakin beharra dago. Egun batzuk lehenago hasi ginen modu horretara jokatzen eta eskerrak Kanpezuko txapelketan ere bikote gehienak zortzi erregetara jokatzera ohituta zeudela.

**I.A.:** Urruñan, berriz, bikote gehienak lau erregetara askotan jokatu dutela erakutsi ziguten...

**Legezkoak ez diren keinurik, hau da, joko zikinik ikusi al duzue?**

**I.A.:** Entzun izan dugu jendeak keinu propioak eramaten dituela baina guk ez dugu halakorik ikusi. Arabako txapelketan, esaterako, Kepak keinu bat harrapatu zion aurkariari, baina legezkoa zen.

**K.E.:** Euskal Herriko txapelketan bikoteren batek legezkoak ez diren keinuak egingo zituen. Are gehiago irabazleendako saria zein zen ikusita [Txapeldunendako, 3.000 euro eta nazioarteko bidaia lau lagunendako].

**Pokerrak gogor astindu du karta jokoa gurean. Musa estaltzeraino?**

**I.A.:** Ezin da ukatu pokerrak indar handia hartu duela. Guri ere asko gustatzen zaigu pokerrean jokatzea baina musa ez dugu alde batera utzi.

**K.E.:** Ez dut uste musa galduko denik, baina estaltzeko arriskua badago. Belaunaldi berriek ez dute horren erraz ikasiko; guk musean edo tutean jokatzen ikasi dugun moduan, etorkizunean pokerra izango da gazteek ikasiko duten lehenengo jokoa.

LEINTZ GATZAGA

# Interneten gaineko ikastaroa egiten dabiltza hainbat herritar KZgunean

Gaur eta hilaren 28an izango da Aitor Madrid dinamizatzailea Pilar kaleko bulegoan

MIRARI ALTUBE | LEINTZ GATZAGA

Hilabetean bi bider etortzen da Aitor Madrid dinamizatzailea Gatzagako KZgunera, eta gaur eta martxoaren 28an, astelehena, zabalduko ditu ateak (16:00-20:00). Erabiltzaile gehienek Interneten jarduteko aprobetxatzen dute, baina azken hilabetean ikastaroak egiten dabiltza bi lagun.

KZguneko erabiltzaileek 16 urte izan behar dituzte derrigorrez, eta Gatzagan batez ere erretiratuak eta etxekoandreak joaten dira. Interneten gaineko oinarrizko ikastaroak izan du orain artean arrakasta, sarean jardun eta administrazioarekin harremanetan jartzeko argibideak ematen dituena. Hala ere, ikastaro asko eskaintzen dituela gogorarazi du Madridek, bi ordutan egin daitezkeenak gehienak: sare sozialen gainekoak, wi-fi sistemaren argibideak, Google-ek dituen lan tresnak...

Zalantzak ere izaten dituztela herritarrek dio Madridek: "Ohikoenak segurtasunarekin zerikusia dutenak, eta sareko hainbat zerbitzuen gainekoak ere bai".

**Izenpe eta IT txartelak**

Gatzagan zerbitzu guztiak ez dituzte ematen. Hala, Izenpe txartela eskuratzeko Eskoriatza edo Aretxabaletara jo behar dute eta IT txartelaren azterketak egiteko Aretxabaleta edo Arrasatera.

ELGETA

# Udalak herritarren laguntza eskatu du Mundumira antolatzeko

Zirkulazioa bideratzeko eta garbiketa lanak egiteko beharko da herritarren laguntza

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Eguaztenean, hilak 9, elkartu zen lehenengo aldiz Mundumira batzordea. Hogei bat lagunen aurrean antolatzaileek egitarauaren zirriborroa eta guneak non kokatzea pentsatu duten azaldu zuten.

Maiatzaren 28rako eta 29rako antolatu dira ekitaldi nagusiak. Mundumirako agertoki nagusia Herriko Plazan egongo da eta Gudarien bidean zirkulazioa itxita egongo da. Salbador kalean gastronomia azokako postuak egongo dira; Gudarien bidean mendi eta senderismo azoka; San Roke kalean artisautza azoka egongo da eta gobernuz kanpoko erakundeen elkartasun azoka Maalan.

Umeen gunea frontoiko kantxan egongo da eta akanpatzeko lekua ipiniko dute gaztetxearen beheko aldean. Frontoian Euskal Herriko boulder txapelketa jokatuko da eta autokarabanendako gunea El Casco enpresaren inguruan kokatuko dute, Pagatza industrialdean. Aparkaleku nagusia ere Pagatzan egongo da; 750 aparkaleku zehaztu dituzte.

**Herritarren kolaborazioa**

Zabalik dago apirilaren 1era arte Mundumiran laguntzeko izenemate epea. Udalak aurreikusten du 80 herritar beharko direla txanda guztiak betetzeko. Hurrengo batzarra apirilaren 7an egingo dute, 19:00etan.



Kebab postua iaz Antzuolan egindako Mundumira jaialdian. | JULIO CALLEJA.

ANTZUOLA

# Espainiako dibulgazio sari bat, Antzuolara

Beñar Kortabarria antzuolarra saritu dute, Teknopolis programako monografiko bategatik

U. AGIRRE / E. AZKARATE | ANTZUOLA

Elhuyar Fundazioak ekoiztutako *Teknopolis* programako monografiko batek Espainia mailako Asebio/Genoma izeneko bioteknologiaren dibulgaziorako saria irabazi du. Saritu duten saio monografikoaren izenburua da *Bizia laborategian ernaltzen denean*. Nagore Rementeriak eta Alaitz Otxoa de Eribek egin dute, Beñar Kortabarriarekin batera. 3.000 euroko saria da jasoko dutena. Epaimahaiak aitortu du lanaren kalitatea, argi aurkeztu izana, dokumentazio lana, gaiaren gaurkotasuna eta dibulgaziorako erakutsitako dohaina.

**Lagundutako ugalketa**

Dokumentalean, lagundutako ugalketari buruz hitz egiten da, hasi *in vitro* ernalketatik eta gaur egungo tekniketaraino. Bi familiaren istorioen bidez kontatu dute hori guztia.

Beñar Kortabarriak oso pozik hartu du sariaren berria: "Programa txikia izanik, ia promoziorik ez duena, programazioan galduta dagoena... horrelako sariek aurrera egiteko indarra ematen digute". Bestetik, esan du euren "helburuetako bat dokumentalak egitea" dela eta "monografikoa dokumental klabean egindа egonik saria jasotzea poztekoa" dela. Elkarlanean egindako lana izan dela azpimarratu du eta bertan parte hartutako familiei eskerrak eman nahi izan dizkie: "Dokumentaleko familiei eskertu eta eskaini nahi diegu bereziki sari hau, baita *Teknopolis*-ko lantalde osoari eta Elhuyar Fundazioko kideei ere".

# ERREMEIXUAK DVD-aren PROMOZIOA

## Goiena klubeko kide zarelako

~~10 €~~

**8€** eta zure etxeko buzoian jasoko duzu

Deitu: 943 25 05 05
Idatzi: *kluba@goiena.com*

# MARTXOKO SARIAK

**SKUN-FUNKEKO KAMISETA ETA POLTSA**
Bidali KLUBA KAMISETA [Bazkidearen zenbakia] 215800 zenbakira.



**LIBURU SORTA UMEENTZAT**
Bidali KLUBA LIBURUAK [Bazkidearen zenbakia] 215800 zenbakira.



**EUSKAL RIP-EN DVD-A**
Bidali KLUBA DVD [Bazkidearen zenbakia] 215800 zenbakira.




**ARGAZKI KAMARA**
Bidali KLUBA KAMARA [Bazkidearen zenbakia] 215800 zenbakira.



## Parte hartzeko

Telefonoz: 943 25 05 05
e-postaz: *kluba@goiena.com*
SMS bidez.

**Parte-hartzaile guztien artean zozketatuko da.**

SMSaren kostua: 0,15 euro + BEZa mezu bakoitzeko.
Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datubilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestionatzea. Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezeztatzeko, helbide honetara idatzita: kluba@goiena.com

# 2011n atera etekina txartelari

**AQUARIUM**
Donostia, 943 44 00 99
- Bi erosi eta bat ordaindu
(sarrera garestiena ordainduko da)

**AVIA MECA GASOLINDEGIA**
Arrasate, 943 79 13 39
- %2 gasolindegian erregaia erosita.
- %2 dendako produktuetan

**AZKOAGA ENEA HOTELA-JATETXEA**
Eskoriatza, 943 71 45 66
- %8 deskontua asteburuko egonaldietan.
  Ohe bikoitz eta egongeladuna hartuz gero, botila bat txakolin opari (Mendraka).
- %10 deskontua jatetxeko kartan.

**BARCELÓ BIDAIAK**
Arrasate, 943 79 70 11/ Bergara, 943 76 08 43
- 1.000 eurotik gorako erosketekin "B Plana" OPARI
(kontratatukoaren arabera: asteburuko egonaldiak, irteera gastronomikoak, ongizate txartelak...)

**BEGIONDO OPTIKA**
Aretxabaleta, 943 79 98 21
- -%15 produktu guztietan. Kontsulta doan.

**GAHIR FISIOTERAPIA-OSTEOPATIA**
Eskoriatza, 943 71 43 41
- %50 deskontua lehenengo kontsultan.

**ESKO SPORT KIROL DENDA**
Eskoriatza, 943 71 52 96
- -%10 produktu eta zerbitzu guztietan

**GAES ENTZUMEN ZENTROA**
Arrasate, 943 71 27 93 / Bergara, 943 76 94 55
- %10 deskontua(ez metagarria beste eskaintza batzuekin)

**CLÍNICA DENTAL BERGARA**
Bergara, 943 76 05 77
- -%10 zerbitzu guztietan
- -%15 inplanteetan
- Aho-garbiketa doan,
- 120 eurotik gorako tratamenduetan
Bazkidearentzat eta familiako batentzat

**IKER SUKALDEAK**
Arrasate, 943 79 00 43 / Oñati, 943 53 35 48
- Sukalde osoa erosita,mikrouhin-labea opari.

**LILURA EDERTZE INSTITUTUA**
Bergara, 943 76 31 71
- -%15 laser depilazioan: hanka osoa + izterrondoa (besapekoak opari).
- -%20 elikagai-intolerantzia proban.
- -%10 mikropigmentazioan: begiak, ezpainak edo bekainak.
- -%10 fototerapia bidezko aknearentzako tratamenduan.
Bazkidearentzat eta lagunarentzat

**MULTIOPTICAS**
Arrasate, 943 79 29 95 / Bergara, 943 76 15 75
- %15 deskontua (ez metagarria beste eskaintza batzuekin)

**NAREN FISIOTERAPIA ZENTROA**
Aretxabaleta, 943 08 21 89
- -%15 zerbitzu guztietan.

**RENAULT AUTOBERRI**
Arrasate, 943 71 24 72
- -%5 konponketetan, ez bada prezio itxia edo promozioa.
- -%25 saltzen ditugun pneumatikoetan, urte osoan.
- Ordezkapeneko autoa, 20 euro.
Erosketaren momentuan goian aipatutako deskontua baino handiagoa badugu,
bazkideari deskontu handiena eskainiko diogu.

**TXIKI ZOO** Aretxabaleta, 943 79 51 15
- Sei ile apaindegi zerbitzuengatik, zazpigarrena doan.
- %50erainoko deskontuak txakur-txamarratan (izakinak agortu arte)

**TXURI URDIN IZOTZ JAUREGIA**
Donostia, 943 46 44 00
- Bi erosi eta bat ordaindu ostiraletan
  (ez bada jaiegun, jaiegun bezpera, zubia edo oporraldia)
- -%20 zapatu eta domeketan
  (ez bada zubia edo oporraldia)
- -%10 zubi eta oporraldietan.

**ZIENTZIEN KUTXAGUNEA**
Donostia, 943 01 24 78
- %10 deskontua.

goienakluba" 2011

Tel.: **943 25 05 05** | e-posta: *kluba@goiena.com* | *www.goienakluba.com* | Urteko kuota: **48 €**.

goienakluba"
Abantailaz betetako kluba!

# KIROLA

OHOREZKO ERREGIONALA

## Partidu kaxkarra jokatu zuten Bergaran, baina puntuak etxerako

Etxekoak baloia ezin kontrolatu, eta Ordiziakoak jokorako gogo barik

**EMAITZA**

BERGARA

**4-0**

ORDIZIA



Bergarako Martin Ibañez jokalaria baloia hartzeko lehian. | JULIO CALLEJA

**FITXA TEKNIKOA**

**Bergara:** Lopez, Elorriaga (Cabanillas 62. m), Arruti, Arazkonaga, Iñurrieta, Oregi, Crespo (Katalan 71. m), Agirre, Ibañez (Longares 62. m), Iltzarbe (Macho 78. m), Azpiazu (Iriarte 45. m)

**Ordizia:** Mujika, Molina, Lakuntza, Arantzegi (Jauregi 45. m), Alvarez, Urreta, Galparsoro (Otegi 55. m), Avila, Etxeberria (Sevilla 55. m), Mendia, Garmendia.

**Epailea:** Joseba Mitxelena. 6 txartel hori atera zituen: horietako bat Ordiziako 2. entrenatzaileari, bere erabaki bati oihuka erantzuteagatik.

**OIHANA ELORTZA** | BERGARA

Ez Bergarak ezta Ordiziak ere ez zuten partidu ona egin, baina jokoan zeuden hiru puntuak etxean gelditu ziren, eta Oskar Maiztegik zuzentzen duen taldeko kideak, pozik. Baita bera ere. "Azken bi partiduak galdu egin ditugu eta hiru puntu hauek ondo etorri zaizkigu, animoa bultzatzeko", adierazi zuen Bergarako entrenatzaileak partidua bukatu ostean.

**Zelaiaren egoera txarra**

Talde biek egindako joko kaskarrari buruz, Agorrosin futbol zelaiaren egoerak zer ikusi handia izan zuela uste du Maiztegik. "Euria egin du, horrek zuloak sortu ditu zelaian eta zulo horiek ez dira behar bezala bete, eta zelaia ez zegoen berdinduta. Horrek zaildu egin du baloia kontrolatzea. Lehen zatian, bestalde, bero egin du, eta igarri egin dugu hori. Ordiziari buruz, azken postuan daude eta nahiko etsita etorri dira. Lehen gola erabakiorra izan da euren animoak jaisteko. 3 eta 0 egin dugunean bukatu da partidua eurendako", zehaztu du Bergarako entrenatzaile Oskar Maiztegik.

**Bi gol euren atean**

Bergara taldeko ohiko 11ko bi jokalari zigortuta zeuden eta bat gaixorik. Horregatik, hiru jokalari berri sartu zituen Maiztegik hasierako hamaikakoan, bi defentsa eta erdilari bat, "baina horrek ez du jokoa baldintzatu", argitu du Maiztegik. Lehen 45 minututan aukera asko izan zituen Bergarak, baina lehenengo gola lehen zatia bukatzeko minutu bat falta zela sartu zuen Martin Alvarezek. Ordiziako atezainak baloia atera zuen, defentsaren eta bere erdian gelditu zen eta Alvarezek aurkera aprobetxatu zuen gola egiteko. Hurrengo bi golak bigarren zatiko bigarren eta hirugarren minutuetan egin zituzten. Bigarrena Ordiziako defentsak sartu zuen bere atean, Bergarak erdiratzea egin ostean eskumatik. Hirugarrena Markel Iltzarbek egin zuen, areaz kanpoko jaurtiketa zuzen batekin. Azkena, 89. minutuan, Ordiziako atezainak sartu zuen bere atean, Imanol Cabanillasen korner zuzena gorputzarekin gelditutа.



AMAIA TXINTXURRETA

**UNAI AGIRRE**
BERGARAKO JOKALARIA

### "Laugarren edo bosgarren gelditzea da gure helburua, lorik ez hartzea, behintzat"

**Nolako partidua jokatu duzue?**
Arraroa izan da. Lehen zatian eguzkiak ez digu ondo jokatzen utzi eta baloia ezin kontrolatu ibili gara baina golak lasaitasuna ekarri digu. Bigarren eta hirugarren gola, berriz, bata bestearen segidan etorri dira eta horrek konfiantza eman digu.

**Kanpoko taldea, Ordizia, makal ibili da, ala?**
Sailkapeneko azkenak dira eta moralabehean dutela etorri dira. Hirugarren golarekin amaitu da partidua eurendako.

**Falta asko adierazi ditu epaileak.**
Dominististiku egiteagatik ere falta adierazten du batzuetan, eta gaur ere antzera gertatu da, bai.

**Laugarren, bosgarren postuan bukatzea da helburua?**
Bai. Helburu horixe jarri dugu, laugarren edo bosgarren gelditzea, ahalik eta goien, behintzat. Kontua da lorik ez hartzea.

**Hurrengo asteburuan Ondarroaren aurka jokatuko duzue.**
Gaurko puntuek indarra eman digute, eta ea handik zer ekartzen dugun, gure antzera dabiltza haiek-eta.

OHOREZKO ERREGIONALA

## Pasajesi irabazita, UDAk Hernani du buruan

Matematikoki oraindik posible da 'play-off'-etan sartzea, eta horretan ahaleginduko da UDA



UDAko jokalariak bigarren gola ospatzen. | JULIO CALLEJA

**O.E.** | ARETXABALETA

Pozik dago UDA taldea, oso pozik, partidua galtzen hasi duelako eta irabazi egin duelako azkenean. "Pasajesen aurka partidu gogorra izango zela bagenekien, baina jokalariak oso jarrera onarekin atera dira, baloia kontrolatu dute, pase asko egin dituzte, eta partidua irabaztea lortu dugu", dio Juanan Cruz entrenatzaileak.

Hamargarren minutuan sartu zuen gola Pasajesek, "partidu osoan egin duen jokaldi bakarrean". Etxeko taldearen golak, berriz, Kermanek, penaltiz, eta Aritzek egin dituzte. "Bigarren zatia oso bestelakoa izan da, gure atezainak ez du apenas lanik izan", laburtu du entrenatzaileak. Datorren asteburuan Hernaniren aurka jokatuko du UDAk, eta gaur bertan hasiko da partidu hori prestatzen.

OHOREZKO ERREGIONALA

## Mondrak 2-3 irabazi zuen eta Aloñak, berriz, 1-1 berdindu

**AMAIA TXINTXURRETA** | ARRASATE

Mondrak partidu emozionantea izan zuen zapatuan: ez ziren oso ondo aritu eta behar baino gehiago sufritu zuten. Lehenengo zatian arrasatearrak hobeto ibili arren, lehenengo gola Trintxerpekoek sartu zuten. Zati horretako hamar minuturen faltan, baina, Mondrako Jon Muruak gola sartu zuen. Mondraren bigarren eta hirugarren golak ere Muruarenak izan ziren. Bigarrena Ekainek egindako pase bikain baten ostean sartu zuen, eta azkena, penaltiz.

Partidu horrekin, Mondrak jarraian irabazten duen bigarren partidua izan zen zapatukoa.

**Aloña Mendi**

Indartsu irten ziren oñatiarrak Hondarribikoen zelaira. Hamargarren minutuan gola sartzeko aukera izan zuten, baina postera bota zuten. Hortik aurrera Aloñak dominatu zuen partidua; hogeita bosgarren minutuan Aritz Garmendiak gola sartu zuen. 80. minutuan, baina, euren kontrako penalti batean gola sartu zieten aurkariek. Eta 87. minutuan, berriz, Iñigo Arregi oñatiarrak gola sartzeko aukera polita izan arren, postera bota zuen.

Orain 27 puntu dituzte eta helburua da ahalik eta azkarren 30era iristea.



Ford Mugarri taldea, kontraerasoan. | JULIO CALLEJA

ESKUBALOIA

# Bigarren postuari eusten dio Ford Mugarrik zapatuan etxean irabazita

Uneoro gailendu zen etxeko taldea Musakolan jokatu zuten partiduan

**EMAITZA**

FORD MUGARRI
**32-28**
ESTUDIOS GIS EL PILAR

MIREN ARREGI | ARRASATE

Denboraldi hasieran sailkapeneko lehen postua eskuratzea bazuten helburu, orain nahi edo gura hori bigarren postuari eustea da. Azken jardunaldiek ez diote mesede handirik egin Ford Mugarri eskubaloi taldeari, nahiz eta bigarren postuari eusteak lan duin baten emaitza adierazten duen. Azken jardunaldian Portugaleteren aurka berdinduta, garrantzitsua zen zapatuan Musakolan irabaztea eta hala egin zuten.

**Defentsan lan ona**

Azkenengo astetako emaitza ez hain onak tarteko, taldea urduri zegoen eta horrek hutsune batzuk egitea ekarri bazuen ere, orokorrean Ford Mugarriko mutilak ondo aritu zirela esan zigun entrenatzaile Edu Orgazek: "Defentsan lan oso ona egin dugu eta atzealdea kontrolatuta izateak asko lagundu digu". Izan ere, nerbioek ere izan zuten eragina jokaldiak gauzatzerako momentuan. "Kontraerasoan ez gara, aldiz, guztiz fin ibili. Urduri zeuden mutilak eta aurrealdean igarri egin da" zioen Orgazek. Estudios Gis El Pilar taldekoek, jakin izan zuten arrasatearren urduritasun uneak aprobetxatzen eta une batzuetan, markagailuan ere igarri zuten hori. Hala ere, taldea ondo aritu zen orokorrean, eta baita jokoari dagokionean ere, izan ere, uneoro gailendu ziren etxeko mutilak. Helburua, orain, Edu Orgazen esanetan, bigarren postu horri eustea eta igoera fasean bukatzea da. Datorren astean partidu zaila dute arrasatearrek Hondarribian; hain justu, nahiz eta sailkapenean zazpigarren postuan egon, aurreko partidua galdu egin zuten.

**ESANAK**

"Azken partiduetako emaitzek urduri ipini dituzte jokalariak; hala ere, lan ona egin dugu"

EDU ORGAZ | ENTRENATZAILEA

ARETO FUTBOLA

# Eskoriatzako mutilek 1 eta 9 galdu zuten Mallabiaren kontra, etxean

A.T. | ESKORIATZA

Eskoriatzarrek ezin izan zuten sailkapenean lehenengo doan Mallabia taldea garaitu. 1 eta 9ko emaitzarekin bukatu zuten etxean jokatutako partidua.

Hogeita bigarren jardunaldia jokatu zuten zapatuan Intxaurtxuetan eta orain Eskoriatzakoak zortzigarren postuan daude, 23 punturekin.

**Hurrengo jardunaldia**

Hurrengo asteko jardunaldian Kukuiga Etxebarri taldearen kontra neurtu beharko dituzte indarrak Eskoriatzako mutilek, eta horiek sailkapenean euren atzetik daude kokatuta; hamaikagarren postuan, hogeita bat punturekin, hain justu. Horregatik, Eskoriatzakoak faborito dira.



Eskoriatzako jokalaria bi aurkarirekin. | JULIO CALLEJA



JULIO CALLEJA

SASKIBALOIA

# Eskoriatzako neskak, garaile

Eskoriatzako Senior mailako emakumezkoen saskibaloi taldeak 13 puntuko aldea atera zion Cafes Aitona talde donostiarrari. Partidua nahiko berdinduta joan zen jokoari dagokionean, nahiz eta markagailuak uneoro egin zuen etxekoen alde. Datorren jardunaldia Bera-Beraren kontra jokatuko dute Eskoriatzarrek.

SASKIBALOIA

## Sustrai Aloña Mendi garaipenarekin itzuli zen etxera

Partiduko lehenengo hogei minutuetan Sustrai Aloña Mendi taldea ezin izan zen La Peña taldearen aurretik ipini. Oñatiarrek lehenengo zatia bukatu arte eusten saiatu ziren; 34 eta 29ko emaitzarekin bukatu zuten, ohi baino puntuazio baxuagoarekin. Hirugarren laurdenean, baina, pixka bat hobetu eta 48 eta 45eko emaitzarekin jarri ziren, galtzen. Azkenean, Sustrai Aloña Mendik aurrea hartu zuen eta sei puntuko aldearekin irabazi zion aurkariari 58 eta 64 emaitzarekin. Azken minutu horietan gainera, arazo gabe ibili ziren; defentsa ona eginez eta atakean txukun ibiliz. Hurrengo astean partidu inportantea izango dute Azpeitiren aurka.

SASKIBALOIA

## Mondragon Unibertsitateak irabazi egin zuen, Bilbon

Bi puntuko aldearekin irabazi zuen MUk Zorrotzako kiroldegian 66 eta 68, hain justu. Lehenengo laurdena oso txarra izan zen arrasatearren aldetik, baina bigarrenean zer egiteko gai ziren erakutsi zieten aurkariei. Hala ere, Josu Larreategi entrenatzailearen esanetan epaileak "egurra eman" zien. Hamar puntuko aldearekin irabazten joan ziren momentu batzuetan eta aurtengo denboraldiko "talde txarrena" iruditu zitzaion Larreategiri, beraz, uste zuen markagailuko diferentzia handiagoarekin irabazteko gai ere bazirela. Kontuak kontu, garaipenarekin itzuli ziren, baina "oso haserre" daude epaileak eurekiko hartu zuen portaerarekin eta "indargabe" sentitu ziren egoera horren aurrean.

ESKUBALOIA

## Puntu bakarragatik, Soraluce BKE izan zen garaile, Usurbilen

Partidu oso bizkorra, atake askokoa eta defentsa gutxikoa izan zen zapatuan Usurbilen jokatu zutena: burugabekoa. Partiduko abiadura igotzen denean, arriskuak ere gehiago izaten dira, baina Josetxo Muniategi entrenatzailearen hitzetan "ez ziren ia golperik ezta agresibitate handiegiko zantzurik egon". Hori bai, epaileak hamasei kanporatze egin zituen, zortzi talde bakoitzari. Lehenengo zatia 16ko berdinketarekin amaitu zuten. Partidua amaitzeko bi minutu falta zirenean, baina, bi puntugatik galtzen zihoazen bergararrak eta bi minutu horietan hiru gol sartu zituzten; azkena, Mikel Plazaolak sartu zuen penaltiz hamabost segundo falta zirela; pozik itzuli ziren emaitzarekin.

MENDIKO BIZIKLETA

# Zirkuitu berria, teknikoki gogorra eta gozagarria izan da aurtengoa

- Guztira 130 txirrindularik hartu zuten parte
- Eroriko asko izan ziren, baina ezer larririk ez
- Ikusle eta parte-hartzaile, guztiak oso gustura


Barajuen auzoan, irteeratik metro gutxira, parte-hartzaileak pelotoian. | JULIO CALLEJA

**MIREN ARREGI** | ARAMAIO

Brasildar bat izan zen garaile atzo Aramaion jokatu zen Euskadiko BTT sariko lehen proban. Elite mailako Ekleylson Marques da Silvak ordu eta berrogeita lau minutu behar izan zituen 5.050 metroko zirkuituari bost buelta emateko. Ez zuen, gainera, zailtasun handirik eduki. Bigarren bueltan ihes egin eta arazorik gabe iritsi zen helmugara, bigarren iritsi zen Jose Antonio Diezi bi minutu eta berrogeita zazpi segundoko tartea aterata. Hirugarren postuan gelditu zen Alexander Ordeñana, lehenengoarengandik hiru minutu eta bi segundora.

Podioan, baina, debagoiendar bat ikusteko zortea ere izan genuen; emakumeen kategorian, Ainhoa Eraña arrasatearrak hirugarren iristea lortu baitzuen. Erorikoa izanagatik ere, lan ona egin zuen Erañak: "Jaitsieratan oso ondo ibili naiz eta horrek lagundu dit hirugarren sailkatzen" adierazi zigun pozez lasterketa bukatzean. Emakumeen kategorian beste behin lehenengo gelditu zena Olatz Odriozola urnietarra izan zen. Odriozola ohikoa da Aramaioko lasterketan; hain zuzen, azken urteotako garailea da: "Parte hartu duten gainontzeko neskek denbora gutxi daramate honetan, hori da bigarrenari horrenbeste denbora atera izanaren arrazoia". Izan ere, hamazazpi minutu eta berrogeita hamaika segundo atera zizkion bigarrenari.

23 urtez azpiko eta master 30 kategorietan, Alvaro Olasolo eta Jose Luis Iñarbe izan ziren hurrenez hurren irabazleak; beteranoetan, Jesus Angel Espada, eta kadete eta junior mailetan, Juan Cayon eta Jonathan Lastra, hurrenez hurren.

### Zirkuitu berria eta gogorra

Barajuen auzoan egin zen orain artean Arriola inguruan egin izan duten proba. Auzoz aldatzearen arrazoi nagusia ikusleei zerbitzu gehiago eskaintzea izan da; Azkoaga auzoan dagoen taberna, esaterako. Baina, zaleak ez ezik, txirrindulariak ere gustura-go agertu ziren aurreko urteetan baino. Ia guztiek adierazi zuten, probaren bukaeran, benetan zirkuitu dibertigarria eta ederra prestatu dutela aurtengoan. Teknikoki ere interesgarria izan zen; hori zioten, behintzat, parte-hartzaile guztiek. Elite, master 30 eta 23 urtez azpikoek sei buelta eman behar izan zizkioten zirkuituari; emakumezkoek, beteranoek eta gazteek, lau, eta kadeteek, hiru. Hasierako bueltan eroriko asko izan ziren, baina azkar hartu zuten guztiek ere erritmoa eta bikain aritu ziren horren ondoren.

### Herritarren ikusmina

Ikusmina piztu zuen atzo Aramaion jokatu zen mendiko bizikleta proba. Euskadiko BTT Open sariko lehen proba Espainiako Txapelketarako puntuagarria izan zen. Eguraldia lagun izan zuten bertaratuek; goiz tristea zirudienak ederra izaten amaitu zuen. Dagoeneko datorren urtekoan pentsatzen ipini dira antolatzaileak.

**DATUA**

**130**

PARTE-HARTZAILE

Aurreikusi bezala, parte-hartzaile kopurua handia izan zen atzoko Aramaioko mendi bizikleta proban.


Ekleylson Marques Da Silva, lasterketako irabazlea . | J.C.



**EKLEYLSON MARQUES**
ELITE MAILAKO TXAPELDUNA

"Zorionak zirkuitua diseinatu dutenei; oso polita eta gozagarria gertatu zait eta, egia esan, nire ezaugarrietarako egokia zen; gogorra ere bazen, aldapatsua une askotan. Bigarren bueltan egin dut ihes eta lehenengo iritsi naiz".



**IÑIGO ROLDAN**
DEBAGOIENDARRA

"Oso gustura ibili naiz. Esperantza nuen lehenengo hamarren artean sartzeko eta ia-ia lortu dut. Zirkuitua oso gogorra izan da, espero baino gogorragoa. Ni lehian aritu naiz beste bi txirrindularirekin eta horrek asko motibatu nau".



**OLATZ ODRIOZOLA**
LEHEN EMAKUMEZKOA

"Zirkuitua aurreko urteetakoa baino lasaiagoa iruditu zait. Indar handia eskatzen duen zirkuitua da, teknika handikoa. Bigarrenari tarte handia atera diot, baina normala ere bada, izan ere, denbora gutxiago daramate arlo honetan".



**JULEN AXPE**
LEHEN ARAMAIOARRA

"Hasieran uste dut denok hasi garela abiadura azkarrean, nahiz eta berehala hartu duen bakoitzak bere erritmoa. Nire kasuan, esan behar dut asko entrenatu naizela eta oso gustura sentitu naiz; etxean izanik, askoz hobeto".



**AINHOA ERAÑA**
DEBAGOIENDARRA

"Bigarrenarekin batera nindoala erorikoa izan dut; sorbaldan min hartu dut eta horrek asko eragin dit. Hala ere, hirugarren sailkatzea lortu dut. Bizikleta eskuan hartu behar zen igoeretan denbora asko galdu dut; behera, ondo aritu naiz".





Eroriko asko izan ziren; ezer larririk ez. | J.C.



Bidea luzea da eta ura ezinbestekoa. | J.C.

TENISA

# Hirugarren mailan jokatzen jarraituko du AKEk

## Sebas Sierrak Espainiako bostehungarrenaren kontra jokatu zuen

**AMAIA TXINTXURRETA** | ARRASATE

Zapatuan Arrasateko AKEk eta Peña Vitorianak bigarren mailara igotzeko partiduak jokatu zituzten VascoNavarroRiojanoCantabro (VNRC) deritzon txapelketan. Arrasateko Musakolako Kiroldegian jokatutako zazpi partiduetan indarrak neurtzen ibili ostean, 2 eta 5eko emaitzarekin galdu egin zuten arrasatearrek.

Arrasateko jokalariak hauek izan ziren: Joseba Azkargorta, Eneko Fernandez, Aitor Baltzategi, Sebas Sierra, Kepa Aranbarri eta Julen Etxabe.



Partiduko une batean jokalaria dena ematen. | JULIO CALEEJA

### Partiduak

Banaka jokatu zituzten partiduetan 3 eta 2 galdu zuten; AKEkoak 2 eta 0 irabazten hasi ziren, gero, 2 eta 2 berdindu zuten Peña Vitorianakoek eta azkenean 2 eta 3ko emaitzarekin galdu zuten arrasatearrek, azken momentura arte oso berdinduta ibili ostean.

Binakakoetan, bestalde, oso erraz irabazi zuten Peña Vitoriana taldekoek; ATTn jokatzen ibilitako munduko profesional onenetarikoa zuten-eta euren taldean, besteak beste.

Aipatzekoa da Arrasatekoek Espainiako bederatziehungarrenaren kontra jokatu behar izan zutela, eta gainera, herrikoek oso maila ona erakutsi zutela euren aurrean.

Nabarmentzekoa da, baita ere, Sebas Sierra arrasatearrak Aitor Etxeberriaren aurka ia-ia irabazi egin zuela. Etxeberria bere adinean Euskadiko onena da, eta, hori gutxi balitz, Espainiako bostehungarrena ere bada, beraz, tenisaren munduan promesa handi bat dela esan daiteke. Etxeberriak hamabost urte besterik ez izan arren, bere indar guztiak atera zituen Sierraren aurka jokatzerako orduan eta horrelaxe joan zen partidua; Sierrak set bat irabazi egin zion, baina gero beste biak Etxeberriarentzako joan ziren eta hirugarren setean 10 eta 8ko emaitzarekin amaitu zuten. Hortxe-hortxe ibili zen, beraz, Arrasateko Sierra.

SQUASH

# Bailarako hamairu lagun squash topaketan

Aritz Gordo arrasatearrak irabazi zuen Lagunarteko Squash Topaketaren finala. Igor Arantzategiren aurka jokatu zuen azken partidua eta 3–2ko emaitzarekin amaitu zuten. Squasha ezagutzera emateko helburuarekin hamar nagusi eta hiru mutiko elkartu ziren zapatu goizean Arrasaten.



JULIO CALLEJA

Garbittu
Santa Kurtz 24, behea ARETXABALETA
Tel.: 943 79 01 28 - 629 45 02 21
garbittu@euskalnet.net
Garbiketa orokorrak eta mantentze-lanak
•
Obra bukaerako garbiketak
•
Auzotarren komunitateen eta garajeen garbiketak
•
Kristalen garbiketak
•
Arropa garbiketak



Mendizaleak kiroldegian bazkaltzen, ibilaldia egin ostean. | JULIO CALLEJA

MENDIA

# Mendi-ibilaldia eta bazkaria egin zituzten, aurtengo Finalista Eguna ospatzeko

Euskal Herri osotik etorritako 130 bat mendizale bildu ziren domekan Elgetan eta 2010eko finalistei diplomak banatu zizkieten

USOA AGIRRE | ARRASATE

Euskal Mendizale Federazioak antolatuta, Finalista Eguna egin zuten atzo, domeka, Elgetan. Euskal Herri osotik etorritako 130 bat mendizale bildu ziren: goizean goiz mendi-ibilaldia egin zuten eta, ondoren, bapo bazkaldu zuten kiroldegian. Bazkalostean diplomak banatu zizkieten finalistei.

**Mendi-ibilaldia**

Goizean, kiroldegitik abiatuta, 19 km-ko ibilaldia egin zuten. Intxortara joan ziren lehenengo, handik Iguriara, Besaide eta Udalatx igo zituzten hurrena eta Kanpanzartik bueltan itzuli ziren Elgetara bazkaltzera. Ederto pasa zuten eguna, herri ezberdinetako mendizaleak bat eginda.

DUATLOIA

## Distantzia motzeko Euskadiko Txapelketa jokatuko da zapatuko Oñatiko Duatloian

Oraingo zapatuan jokatuko da Oñatiko Duatloia. Berritasun gisa, aurten 15:30ean hasiko da; bestalde, Euskadiko Txapelketa jokatuko da distantzia motzean, eta izango da kategoria absolutuan eta junior, sub 23, v1, v2 eta v3 kategorietan. Proba horrek 20. edizioa izango du aurten, eta Oñati Triatloi Taldeak antolatzen du. Honako probak jokatuko dituzte: oinezko lasterketa Oñatiko kaleetan barrena (10 kilometro); bizikleta lasterketa, Oñati-Bergara-Antzuola-Deskarga-Legazpi -Oñati ibilbidearekin (40 kilometro); eta oinezko lasterketa (5 kilometro).

MENDIA

## Panticosa-Respomuso-Portalet mendi eski irteera eta autobabes ikastaroa, Besaideren egitarauan

Panticosa-Respomuso-Portalet mendi eski irteera antolatu du Besaide mendizale taldeak martxoaren 26 eta 27ko aste bukaerarako, eta izena emateko aukera egongo da hilaren 21ean eta 22an, 19:30etik 20:30era. Horrez gain, martxorako beste ekintza bat ere antolatu dute: *Autobabesa mendian* delako ikastaroa. Martxoaren 29an eta 30an izango da, Kulturateko Jokin Zaitegi gelan, 18:30etik 20:00etara, eta horretan parte hartzeko nahikoa da bertan agertzea. Ikastaroa doan da. Argibide gehiagorako, deitu 943 77 30 66 telefonora.

MOTORRA

## Motor klasikoen zaleek Debagoiena bisitatu zuten, eta Elosuan bazkaldu zuten

Gipuzkoako Real Moto Club elkarteak antolatuta, 208. Bildumako Motorren Irteera egin zuten hainbat motorzalek zapatuan, eta aurten Debagoienera ere etorri ziren. 09:00etan irten ziren Donostiatik, eta Orio, Zarautz, Getaria, Zumaia, Deba, Mendaro, Altzola, Elgoibar eta Eibar zeharkatu eta gero, Elgetatik ere pasatu ziren eta Bergaran geldialdia egitea erabaki zuten. Hain zuzen, Uberatik, erdigunetik eta Gorlatik pasatu ondoren, Elosuan bazkaldu zuten. Gero, bidaiari ekin zioten berriz. Motor guztiak 1970. urtetik aurreragokoak ziren, eta zaharrena 1936ko modelo bat izan zen.

## FUTBOLA

**ERREGIONAL OHOREZKO MAILA**

**EMAITZAK**

| | |
|---|---|
| Hondarribia-Aloña Mendi | 1-1 |
| Trintxerpe-Mondra | 2-3 |
| Roteta-Real Union | 0-4 |
| Zumaiako-Anaitasuna | 0-0 |
| Oiartzun-Aurrera | 0-0 |
| Bergara-Ordizia | 4-0 |
| Tolosa-Hernani | 0-0 |
| Aretxabaleta-Pasajes | 2-1 |
| Berio-Idiazabal | 2-0 |

**SAILKAPENA**

| | TALDEA | P | J |
|---|---|---|---|
| 1 | Real Union | 55 | 25 |
| 2 | Hernani | 55 | 25 |
| 3 | Pasajes | 53 | 25 |
| 4 | Anaitasuna | 46 | 25 |
| 5 | Aretxabaleta | 44 | 25 |
| 6 | Bergara | 39 | 25 |
| 7 | Oiartzun | 38 | 25 |
| 8 | Tolosa | 36 | 25 |
| 9 | Aurrera | 35 | 25 |
| 10 | Trintxerpe | 31 | 25 |
| 11 | Mondra | 31 | 25 |
| 12 | Berio | 30 | 25 |
| 13 | Hondarribia | 27 | 25 |
| 14 | Aloña Mendi | 27 | 25 |
| 15 | Roteta | 21 | 25 |
| 16 | Idiazabal | 20 | 25 |
| 17 | Zumaia | 19 | 25 |
| 18 | Ordizia | 18 | 25 |

**HURRENGO JARDUNALDIA**

Hondarribia F.E.-Berio F.T.
Aloña Mendi Ke-Trintxerpe C.D.
Mondragon C.F.-Roteta C.D.
Real Union Club-Zumaiako F.T.
Anaitasuna F.T. -Oiartzun K.E.
Aurrera-Bergara K.E.
Ordizia K.E.-Tolosa C.F.
Hernani C.D.-Aretxabaleta K.E.
Pasajes C.D.-Idiazabal K.E

**GAZTEAK, LIGA NAZIONALA**

| | |
|---|---|
| Hernani-Aretxabaleta | 1-2 |

**ERREGIONAL PREFERENTEA**

| | |
|---|---|
| Tolosa-Aretxabaleta B | 2-1 |
| Mondra B-Getariako | 0-2 |
| Amaikak Bat-Antzuola | 0-4 |

**OHOREZKO GAZTEAK - IGOERA**

| | |
|---|---|
| Amaikak Bat-Mondra | 1-2 |
| Ostadar-Aloña Mendi | 2-1 |

**LEHEN MAILAKO GAZTEAK - IGOERA**

| | |
|---|---|
| Arizmendi-Kostkas | 0-2 |

**KADETEAK OHOREZKO MAILA - KOPA**

| | |
|---|---|
| Bergara-Astigarraga | 2-2 |
| Ordizia-Aretxabaleta Arizmendi | 0-1 |

**INFANTILAK OHOREZ. TXAPEL. FASEA**

| | |
|---|---|
| Antiguoko-Bergara | 5-1 |
| Eibar-Aretxabaleta Arizmendi | 4-0 |

**EMAKUMEZKOAK IGOERA FASEA**

| | |
|---|---|
| Touring-Arizmendi | 1-1 |
| Amara Berri-Mondra | 0-3 |

## ESKUBALOIA

**EUSKADIKO TXAPELKETA**

| | |
|---|---|
| Ford Mugarri-Estudios Gis El Pilar | 32-28 |

**BIGARREN TERRITORIALA**

| | |
|---|---|
| Izar.Aloña Mendi-Leizaran | 29-23 |

**GIP. TROFEOA - JUB.MUT. - G1**

| | |
|---|---|
| Aloña Mendi-Ereintza | 37-26 |

**GIPUZKOAKO 1. MAILA**

| | |
|---|---|
| Arrasate-Irungo Gaztiak | 35-40 |

## ARETO FUTBOLA

**EUSKAL LIGA**

| | |
|---|---|
| Eskoriatza-Mallabia | 1-9 |

**GAZTEAK**

| | |
|---|---|
| Aloña Mendi-C.D.Internacional | 1-4 |

## XAKEA

**L.G. PREFERENTEA**

| | |
|---|---|
| Hernani-Arrasate Arlutz | 2-2 |

## SASKIBALOIA

**LEHEN MAILA NAZIONALA**

| | |
|---|---|
| Mikeldi-MU | 66-68 |
| Bilboetxe-Sustrai-Aloña Mendi | 58-64 |

**SENIOR 2.MAILA**

| | |
|---|---|
| Ruibal-Sustrai Aloña Mendi | 55-65 |
| Alde Zaharra B-Soraluce BKE | 44-92 |

**GAZTE GIZONEZKOAK, PARTA.**

| | |
|---|---|
| Aloña Mendi-Easo Haizea | 71-53 |
| Soraluce BKE-Oiartzungo | 57-61 |
| MU B-Ganbara | 53-48 |

**GAZTE EMAKUMEZKOAK, PAR.**

| | |
|---|---|
| Aloña Mendi-MCM Txirrita | 33-61 |

**KADETE GIZONEZ., ERREND.**

| | |
|---|---|
| Easo Loyola-MU A | 34-85 |
| Soraluce BKE-Triki Take | 38-55 |

**KADETE EMAKUM., PARTAID.**

| | |
|---|---|
| Easo-Arizmendi Eskor. | 37-24 |
| La Salle-Soraluce BKE | 37-39 |

GU
RE
KI
RO
LA

GOIENA TELEBISTA HARMAILATIK
ASTELEHENERO,
20:45, 22:30



goiena

PILOTA

**Ander Axpe** | Arabako gazte mailako trinkete txapelduna

# "Esku pilotan baino gusturago ibiltzen naiz trinketean; trebeagoa naiz horretan"

- Ander Axpek bigarrengoz irabazi du Arabako Trinkete Txapelketa, oraingoan gazte mailan
- Eguenean Arabako trinkete selekzioa aurkeztu zuten; bertan lehiatuko da Axpe



Ander Axpe, aste barruan, Aramaioko Eki tabernan; han izan du txapela zintzilik. | XABIER URTZELAI

XABIER URTZELAI | ARAMAIO

Ander Axpek (Aramaio, 1993) senitartekoen tabernan izan du joan den astean irabazitako txapela, erakusgai. Ez da trinketean irabazi duen lehena, kadete mailan ere txapelketa bera irabazi zuen-eta, "orduan lan gehiago eginda". Iaz, berriz, sorbaldan min hartu eta ez zuen txapelketa jokatzerik izan. Datorren urtean nagusien kategoriara egingo du salto, eta hor zailagoa izango da nabarmentzea.

**Arabako txapeldun trinketean, eta partidu guztiak irabazita.**

Bai, Legutioko Ibai Fernandez de Larrinoarekin osatu dut bikotea, eta egia esan nahiko ondo ibili gara, txapelketan jokatu ditugun zortzi partiduak irabazi egin ditugu-eta. Ezker horman ere Ibairekin jokatzen dut, baina han aurrelari moduan ibiltzen naiz, eta Ibai atzelari. Eta, trinketean posizioz aldatzen dugu, atzean jokatzen dut.

**Legutioko klubarekin jokatzen duzu; pena, Aramaion entrenatzeko edo jokatzeko lagunik ez izatea.**

Gazteago nintzenean herrian hainbat gazte ibiltzen ginen pilotan, baina ondoren jendea futbolean, eta beste kirol batzuetan hasi zen. Hala, orain dela lau urte erabaki nuen Legutiorekin jokatzea, eta entrenatu ere han entrenatzen naiz.

**Gazte mailako txapelketa irabazita, Arabako selekzioaren deia jaso duzu.**

Bai, eguenean bertan egin genuen aurkezpena, eta orain GRAVNI txapelketa jokatuko dut Araba ordezkatzen. Euskal Herriko lurraldeek eta Errioxak hartzen dute esku txapelketa horretan, eta ea zer moduzko lana egiten dugun.

**Ez da Arabako txapelketa irabazten duzun lehen aldia.**

Ez, orain dela bi urte kadete mailan ere lortu nuen trinketeko txapeldun izatea, baina iaz min hartu nuen sorbaldan, eta ezin izan nuen txapelketa jokatu. Datorren urtean, berriz, zailagoa izango da txapela janztea, nagusiekin jokatuko dugu-eta.

**Trinketea, aitak animatuta?**

Gaztetan hark ere jokatu zuen trinketean, eta bai, kirol hori probatzeko esan zidan, eta gustua hartu diot. Dena dela, Araban ohitura dugu ezker hormako txapelketak amaitzen direnean trinketean hasteko. Egia esan, hobeto moldatzen naiz trinketean.

**Esku pilotako ze modalitatetan moldatzen zara hobeto?**

Trinketean.

**Zer du modalitate horrek?**

Indarra ez da horren garrantzitsua, pilota astintzera joanez gero errebotetik bueltan etorriko delako. Garrantzia handia du azkartasunak, ondo kokatzen jakiteak, pilotalekua ezagutzeak...

**Pilotaleku batetik bestera alde handia egongo da.**

Bai, ezker hormako pilotalekuetan egoten dena baino alde handiagoa egoten da. Gasteizen ireki duten trinkete berrian, esaterako, eskuin horma kristalezkoa da. Ezker horman egoten den teilape edo koska, berriz, batzuetan harrizkoa izaten da, egurrezkoak ere badaude...

**Iparraldetik datorren modalitatea da trinketea. Zer dela-eta horren beste koska pilotaleku berean?**

[Barre] Bada, ez daukat idearik ere ez. Baina, badut gogoa Iparraldeko jokalarien kontra jokatzeko. Han urte osoa ematen dute trinketean jokatzen, eta imajinatzen dut hori igarri egingo dela. Ea Arabako selekzioan egonda horretarako aukera ematen diguten.

**Orain dela lau urte erabaki nuen Legutiora joatea jokatzera**

**Selekzioan egonda ea Iparraldera joaten garen trinketean jokatzera**

**Ezker hormako torneoak amaitu ostean hasten gara trinketean**

**Indarra baino, azkartasuna eta ondo kokatzea dira garrantzitsuak**

## Gazte mailako txapela jantzita

Gasteizen estreinatu berria den Los Astronomos trinketean (Araban bi daude) jantzi zuen txapela Ander Axpe aramaioarrak. Eta oraingoan gazte mailako kategorian egin du, orain dela bi urte kadete mailako txapela jantzi zuen-eta. Txapelketako partidu guztiak irabazi ostean, finalean Axpek eta Fernandez de Larrinoak 30-23 hartu zituzten mendean Gasteizko Zaramaga taldeko pilotariak, Ibarrondo eta Isasi.


Ander Axpe, ezkerretik bigarrena, sari banaketan. | A.A

# Unitate didaktikoak elikadura subiranotasuna eskoletan lantzeko

## Mugarik Gabeko Albaitariak elkartean proiektu ezberdinak dituzte martxan

LARRAITZ ZEBERIO | ARRASATE

Elikadura subiranotasuna, elikagaien jatorria eta produkzioa, lankidetza, ingurumena, biodibertsitatea... kontzeptu horien guztien inguruko sentsibilizazioa txiki-txikitatik egin beharra dagoela uste dute Mugarik Gabeko Albaitariak elkartean. Umeei zein gurasoei zuzendutako programak lantzen dituzte eta egitasmo bat baino gehiago dituzte eskoletan eskaintzen dituztenak, tartean *Baserritik mundura* programa.

**'Baserritik mundura'**

8-12 urte bitarteko eskola-umeei zuzenduta dago. Lehenengo eta behin, 50 minutuko ipuin kontalari ikuskizuna egiten dute eskolan. "Mundu osoko hainbat kulturatako bospasei ipuin tradizionalekin osatu dugu ikuskizuna", azaldu du elkarteko kide Eneko Viñuelak. "Protagonista nekazaria da eta bidaia bat hasten du, non beste herrialdeetako nekazariak ezagutzen dituen, tartean Silvano nekazari boliviarra. Umeek beste herrialde batzuetan bizi duten errealitatea ezagutzen dute".

Ipuin saioa ikusi ostean, ikastetxeek elkarteak prestatutako unitate didaktikoa izaten dute eskura ikuskizunean aipatu diren hainbat gai jorratzeko. Hala, lankidetza, ingurumena, biodibertsitatea, lurra, ura... lantzen dituzte, beste kontzeptu askoren artean. Fitxa horiek pedagogo talde batek egindakoak dira.

Hurrengo proposamena da eskolan ortua edo baratzea martxan jartzea. "Zenbait matematika kontzeptu ortuan lan daitezke", adierazi du Viñuelak. "Distantziak neurtu, azalerak kalkulatu... Gainera, umeek elikagaiak nondik datozen, nola produzitzen diren, produkzio horrek Hirugarren Munduko herrialdeetan duen eragina zein den, garaian garaiko elikagaiak zeintzuk diren... gauza asko lantzeko aukera dago". Hori guztia lantzeko unitate didaktikoak prest daude. Proiektuan EHNE sindikatuak eta Ekologistak Martxan taldeak ere parte hartzen dute.



Umeak ortuan. | US EMBASSY MADRID

# Besteen iritziaren menpe ez egoteko, gaitasun kritikoa

## Adituen aholku nagusia da umeei euren adinari egokitutako erabakiak hartzen uztea

L.Z. | ARRASATE

*Consumer* aldizkaritik jaso ditugu gomendiook. Beti besteen iritziaren menpe ez egoteko modurik onena gaitasun kritikoa lantzea da. "Pentsamendu autonomia hori lortzeko, haurrek ziur jakin behar dute helduek arreta jarriko dietela eta entzun egingo dituztela. Ez da komeni helduen irizpidea inposatzea beti, nahiz eta gaitasun gehiago eduki erabakitzeko. Garrantzitsua da etxeko gazteen argudioak entzutea, besterik ez bada ere, ideiak adierazteko gaitasuna lan dezaten eta gustura senti daitezen, haien iritziak ere aintzat hartzen dituztela ikusiz".

**Hizketarako giroa sortu**

*Consumer* aldizkariko adituen esanetan, umeen ideiak etengabe zuzentzen aritu ordez, hobe da hizketarako giroa sortzea eta, hala, euren iritziak beldurrik gabe ematera bultzatzea. Euren adinari dagozkion erabakiak hartzeko aukera eman behar diegu eta ondoren emaitzei buruzko ebaluazio txiki bat egin daiteke, modu horretan ere jarrera kritikoa sustatzen baita.

### Gurasoendako formazio saioak Elgetan eta Antzuolan

Bideberri mankomunitateak antolatuta, 12-18 urte bitarteko seme-alabak dituzten gurasoek formazio saioak egingo dituzte martxoan. Nerabezaroa izango dute hizpide; aldaketak, komunikazioaren garrantzia, arauak eta mugak, drogak... AGIPAD elkarteko prebentzio saileko arduradunek gidatuko dituzte saiook.

### Arabako guraso eskolen topaketa Zigoitian hilaren 26an

Arabako landa eremuko guraso eskolen IV. topaketa deitu du Arabako Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak. *Familian autoritatea kudeatuz* izenburupean Enrique Martinez Reguera psikologoak egingo du hitzaldi nagusia. Izenematea doan da, baina plaza kopurua mugatua da. Hilaren 16a baino lehen deitu behar da: 650 47 17 18.

### Bertso-udalekuetan izena emateko epea zabalik dago

Uztailerako bost txanda antolatu ditu Bertsozale Elkarteak, eta foru aldundiek ere badute euren eskaintza. "Ez dira bertsolaritza klaseak emango eta bertso-udalekuotara joateko ez da bertsotan jakin behar". Informazioa gehiago *Guraso.com*, *Bertsozale.com* eta *Alava.net/ifj* atari digitaletan.

**Boni Ofogo** | Ipuin kontalaria eta kulturartekotasun teknikaria

# "Prebentzioan egiten dut lan; mentalitate irekiak eraiki behar ditugu"

## Kulturartekotasunaren inguruan kontzientziazio maila txikia dela dio Ofogok

L.Z. | ARRASATE

Kamerundarra da Boni Ofogo. Ipuinak kontatzen ditu; ipuin afrikarrak beti. Neska-mutikoen artean kulturartekotasuna lantzea da haren helburua, "hazia ereitea". Ipuinak indar handiko tresna direla dio.



Boni Ofogo. | MAMBITA CHAMUSCADA

**Beharrezkoa da kulturartekotasuna txikitatik lantzea?**

Nire ustez, kulturen arteko bizikidetza XXI. mendeko gai klabeetako bat da. Gure gizaldiko desafio handiena kulturen arteko elkarbizikidetza da. Euskal Herriko kaleetan afrikarrak ikustea gauza nahiko normala da gaur egun; duela 30 urte, ez. Jendea gero eta gehiago mugitzen da. Kultura balio ezberdinak dituen jendeak topo egiten du eta horrek, hasiera baten, elkarbizitza arazoak sor ditzake. Kulturartekotasuna landu behar dugu.

**Umeekin nola lan daiteke?**

Ez da erraza. Arrazionaltasunetik kulturartekotasuna oso printzipio ederra da, baina umeek beste lengoaia bat erabiltzen dute. Nik ipuinak erabiltzen ditut. Tresna unibertsala dira –kultura guztiek dituzte ipuinak– eta umeei asko gustatzen zaizkie. Problematikari horri ikuspuntu ludikotik heltzen diot.

**Ze ipuin kontatzen dituzu?**

Afrikako ipuinak kontatzen ditut; ipuin afrikarrak bakarrik. Afrika oso eremu handia da eta ipuin asko daude. Horregatik, aukeraketa egiten dut. Kontrasteren bat proposatzen duten ipuinak aukeratzen ditut; harritu eta atentzioa ematen duten ipuinak izan ohi dira, hausnarketarako bidea ematen dutenak.

**Ze harrera dute afrikar ipuinek gure umeen artean?**

Asko gozatzen dute, lehenik eta behin oso gutxi direlako hemen ipuin afrikar bat entzun duten umeak. Arabiar ipuinak, jatorri txinatarra dutenak, ipar europarrak... ipuin horiek ezagunagoak dira hemen Afrikako ipuinen aldean. Azken finean, bidaia exotiko bat da umeei proposatzen diedana. Pertsonaiak, egoerak, amaierak... oso ezberdinak dira eta horrek umeen jakin-mina pizten du. Ipuin afrikarrek transmititzen dituzten mezuak ere oso ezberdinak dira. Beste kultura bat, beste mundu bat zabaltzen zaie.

**Beldurrezko ipuinak kontatu egin behar direla defendatzen duzu.**

Bai. Pentsatu ohi dugu beldurrezko ipuinak kaltegarriak direla eta saihestu egin ohi ditugu umeak ez traumatizatzeko. Ez nator bat. Beldurrezko ipuinak kontatu egin behar dizkiegu euren beldurrei aurre egiten ikas dezaten.

**Helduekin ere lan egiten duzu zure ipuin saioetan.**

Bai, umeendako ipuin saioa egin ostean asko gustatzen zait gurasoekin eta irakasleekin elkartzea. Umeak azkar konbentzitzen ditut, eurek argi dute ipuinak gustatu egiten zaizkiela. Helduekin, aldiz, lan gehiago egin beharko genuke. Ulertu behar dute ipuinek haurtzaroan zenbaterainoko garrantzia duten. Ez badiegu umeei gure denbora eskaintzen, telebista aurrean edo makinatxoekin emango dute denbora eta ez dute ipuinik entzungo.

Ipuinak afektibitate eskola dira. Seme-alabekin afektibotasunean oinarritutako harremana eraiki nahi badugu, ipuinak kontatzea bide oso aproposa da.

> **"Gure gizaldiko desafioa kulturen arteko elkarbizitza da"**

> **"Ipuinak afektibitate eskola dira; ezinbestekoak haurtzaroan"**

Testu hauek osorik irakurtzeko eta erantzuteko, **zatoz gure webgunera**
guraso.com

KULTURA

# Balea baten ezker barailezurra eramaan dute Bergaratik Donostiara

- Bi metro eta erdiko luzera du piezak eta XIX. mendea ezkero dago Errege Seminarioan
- Donostiako Ontzi Museoan egongo da ikusgai hurrengo hilabetetik aurrera

AMAIA TXINTXURRETA | BERGARA

Bergarako Udalak Errege Seminarioko ale baliotsu bat maileguan utzi dio Donostiako Ontzi Museoari, bertan antolatuko duten *Baleazaleak* izeneko erakusketan ikusgai jartzeko.

Pieza hori euskal balea izeneko espezie bereziaren eskeletoaren ezker barailezurra, bi metro eta erdiko luzera du eta XIX. mendetik dago Errege Seminarioan.

Bergarako balea eskeletoa, gainera, ez da ale arrunta, benetan berezia da. Europan espezie horretako eskeleto oso gutxi kontserbatzen dira gaur egun; izan ere, zientzia naturaletako museoak sortu orduko, espeziea oso arraroa zen neurrigabeko ehizaren ondorioz. Europako zientzietako museo handietan ikusten ditugun zetazeoen eskeletoak, gainera, kasu gehienetan beste zetazeo batzuen eskeletoak izaten dira, baina ez Bergarako Seminarioaren bilduman gordetzen den euskal balea bezalakoa. Ondorioz, duen balioa oso garrantzitsua da.

Espezie horretako eskeleto gutxi horietako bi, baina, Gipuzkoan daude: bata, Donostiako Aquariumean; eta bestea Bergaran. Edozelan ere, Donostiakoa ezin zuten erakusketarako erabili, eskeletoa muntatuta dago -eta; horrenbestez, aukera bakarra zen Bergarako Seminarioko bildumari eskaera egitea eta bertakoa eramatea.



Hezur baliotsu hori Errege Seminarioan zegoen egubakoitzean. | AMAIA TXINTXURRETA

**Seminarioko ganbaran**

Balea hezurrak seminarioko eraikinaren ganbaran zeuden abandonatuta eta 1994. urtean museoko lantalde teknikoak hezur horiek errekuperatu egin zituen: ganbaratik jaitsi, garbitu, alea determinatu, inbentariatu, klasifikatu eta katalogatu; gero, eskeletoa behar bezala gordetzeko egitura berezi bat egin zioten. Balea horren eskeleto guztia ez duten arren, bere 50-60 pieza baliotsu inguru dituzte gordeta eta espezialistek diote maileguan utzi duten pieza hori kontserbazioaren aldetik sendo dagoela eta horregatik posible dela kanpoko erakusketa baten jartzeko baimena eskuratzea.

Seminarioko langileak eta udal museologoa oso pozik daude espezie horretako hezurdurak herrian dituztelako. Seminarioko proiektuko Iñaki Irizar langilearentzat ohorea da horrelako espezie berezi baten hezurdura herrian izatea; izan ere, "mende askotako jarduera baten testigu da eta balio zientifiko handia du". Xabier Aranburu Bergarako udal museologoari, bestalde, alde batetik, pena ematen dio hezurdura hori Bergaratik ateratzea, baina, beste alde batetik, oso pozik dago "horrelako erakusketa inportante baten Bergararen izenean eramandako pieza baliotsu bat egongo delako".

**Trukean, garbiketa teknikoa**

Barailezurra Donostiako Ontzi Museoko erakusketan jarriko dute ikusgai eta urtebetez izango da bertan. Hala ere, trukean pieza baliotsu horri garbiketa teknikoa egingo diote; horixe izan da Udalak ale hori maileguan uzteko ipini dituen baldintzetako bat. Horretarako, egubakoitzean pieza hori Bergaratik hartu eta Artelekura eraman zuten garbiketa egitera.

## Zarauzko balea: gurean modu tradizionalean ehizatutako azken balea

Datuen arabera, 1878ko otsailaren 11n harrapatu zuten euskaldunek Kantauriko uretan modu tradizionalean arrantzatu den azken balea. Zarauzko balea izan zen horrela harrapatutako azken balea, eta, gainera, traineruetan eta arpoi hutsez egin zuten; arpoi hilgarria Roke Etxabe zarauztarrak sartu ei zion.

Bi talde aritu ziren uretan balea hura nork lehenago ehizatuko: batetik, zarauztarrak, oriotarren laguntzarekin; eta bestetik, getariarrak. Arpoia, datuen arabera, zarauztarrek sartu zioten, baina Getariako portutik gertuago egon eta bertara eraman zuten lehorrera. Portuan hasi ziren liskarrak; talde bakoitzak beretzat jotzen zuen hildako balea. Azkenean, zarauztarrei eman zioten arrazoia, baina orduirako balea usteldu egin zen.

Euskal kostan harrapatu zen azken balea, ostera, Oriokoa da eta 1901ean ehizatu zuten. Ordurako, ordea, ez zegoen lehengo erara harrapatzeko gai zen inor, eta kanoien laguntzarekin arrantzatu zuten Orioko bale hura.



Zarauzko balea. | ZUZEU

## Urtebetez Donostian

Bergarako pieza Gipuzkoako Foru Aldundiaren Donostiako Ontzi Museoan izango da. Museo hori Kaiko pasealekuko 24. zenbakian dago eta zabalik egongo da hurrengo hilabetetik 2012ko martxora arte. Eraikinaren lehenengo bi solairuetan egongo da erakusketa ikusgai eta zetazeoen mundua gertuagotik ezagutzeko modua emango du.



Malenkoniatsu hasi zuen kontzertua Bebek. | JULIO CALLEJA



Abesteko eta transmititzeko egundoko indarra duela erakutsi zuen. | JULIO CALLEJA

KRONIKA

# Poesia gordinaren indarra

**IKER BARANDIARAN** | ARRASATE

Amaia Antzokia goraino beteta zegoela, ia ilunpean, bera bakarrik igo zen agertokira gitarra eskuan zuela. Horren ostean, txalo artean, musikariak batu zitzaizkion: baxua, bateria, perkusioa, eta gitarra eta teklatuak menderatzen dituen Pablo Novoa. *Busco-me* piezak extremadurarraren malenkonia pausatua dauka barrenean, baina aurrera egin ahala, intentsitatea gehitu eta ia erritmo tribal eta elektroniko jostariak hartzen ditu bere baitan. *Me fui* flamenkoagoa da eta kanta horrekin hasi zen behingoz Bebe mugitzen eta dantzan, erabat askatuta, rock kabaretari-jazzeroak lagunduta, indarrez abesten; eta Raimundo Amadorri (*Ay que gustito*) keinua eginez *Con mis manos* iheskorrean.

Aldaketa itzelak izan zituen emanaldiak, eta ohikoak izan ziren bat-bateko erregistro giroak: *Siempre me quedará*-n gitarra berreskuratu eta talde irmoak babestuta, rock ilun eta gitarreroa landu zuten, melodia xuxurlatzen bukatu arte. Negarrari ezin eutsi ibili zen kaxa flamenkoa lagun zuela (*No más llorá*), baina penak aldentzeko, dantza rockero-psikodeliko zoroan murgildu zen *Pa una isla* pieza gitarreroan, eta bere alderdi sentsualena erakutsi zigun lurretik arrastaka. Lurretik hasi zuen pop ia elektro-jostaria den *Se fue* eta jarraian, kulunkaulkia estreinatu zirkoko perkusioa duen *La bicha* rapeatua oparitzeko. *Que minporta*-n estilo entsalada osatu (rock, rap, raggamufi, jazz...) eta garaile bilakatzeko gaitasuna duela erakutsi zuen, abesti borobila baita.

**FITXA**

MUSIKA

**BEBE, 'Y' DISKO BERRIAREKIN**

**Estiloa:** Pop minimalista, rock, jazz eta latindar ukituekin.

**Non:** Amaia antzokia, Arrasate.

**Eguna:** Zapatua, martxoak 12, 20:00etan.

**Iraupena:** Bi ordu.

### Doinu latinoak

Bebek hegoaldekoa dela oso argi dauka eta agian horregatik darama kultura latinoa bihotzean: *Ska de la tierra*-k Kolonbian idatzia dirudi eta bere ahotsa puntu gorenera heltzen da; baita gizon guztioi eskaini zigun *Como los olivos* latino dantzagarrian ere. Ildo beretik jarraituta, *7 horas* kantu ezagunak jendea pozarren jarri ostean, agur esan zigun.

Jendeak bisak eskatu eta berehala genuen bueltan, "muchisimo ekerrikako" behin eta berriro esanaz. Gaueko sorpresa Alaskaren *A quien le importa*, teklatuarekin, chanson française gisa interpretatzea izan zen. Berriro kulunkaulkia hartu eta *No estaré* pieza biluzia belarrira abestu zigun, berau jantzen joan ahala. *Revolvió* positiboak txalo ugari jaso zituen, eta *Escuece* piezan zirko rockeroan barneratu zen, Calamaro gogoraraziz, indartsu. Bateria-bonboan luze etzan, taldekideak aurkeztu eta perkusio latino-gitarra jazzero pieza instrumental luze bezain landu bat oparitu ziguten. Halako baten, abesteari ekin eta Extremadurorren *Tu corazón* parafraseatu zuen, emanaldia borobiltzeko.

Bebe asfaltoko poeta da eta barru-barrutik arantzak eta guzti ateratzen ditu kanpora, gertu -gertukoa bilakatuz. Gainera, xuxurlarien erregina bada ere, abesteko eta transmititzeko egundoko indarra dauka. Eta atzean, talde handia.

# Belaunaldi ezberdinetako punk zaleak ase zituen zapatuko gaztetxeko kontzertuak

Sham 69ko beteranoek garai bateko *hit*-ekin bereganatu zituzten entzuleak



NPJ donostiarrak, gaztetxeko kontzertuan. | JULIO CALLEJA

**USOA AGIRRE** | ARRASATE

Bertako eta inguruko punk eta oi! zaleen topagune izan zen zapatuan Arrasateko gaztetxea. 300 bat ikusle bildu ziren, denetariko belaunaldietakoak, kontzertua eskaini zuten taldeak bezalaxe: The Convicts, NPJ, Pillhead eta Sham 69 ingeles beteranoak. Azken horiek erakarri zuten jende gehien, baina musikari gazteek ere jarrera ona erakutsi zuten.

The Convicts arrasatearren kontzertua nabarmendu digu Iago Cascon antolatzaileak: "Oso kontzertu ona eman zuten; zentratuta eta serio aritu ziren".

### Sham 69

70eko eta 80ko hamarkadetan punk eta oi! estiloetako puntako taldea izan zen Sham 69 eta garai hartako partaide bakarra dago gaur egungo taldean: Dave Parsons. Abesti zaharretan Jimmy Pursey lehengo abeslariaren hutsunea igarri zen eta hasieran entzuleekin konektatzerik lortu ez bazuten ere, bukaeran, garai bateko *hit*-ekin hurbildu ziren azkenean jendearengana.

Taldeko baxujolea nabarmendu digu Casconek, bereziki indartsu aritu baitzen.

## Laburbira film laburren zirkuitua Bergaran izango da martitzenean

Topagunea euskara elkarteen federazioak antolatzen du urtero Laburbira, euskarazko film laburrak herriz herri eskaintzeko zirkuitua. Bihar, martitzena, Bergaran izango da film laburren proiekzioa: Asier Altuna bergararraren *Artalde* eta Kepa Errasti aretxabaletarraren *Maritxu* lanak emango dira, besteak beste. Zabalotegin, 19:30ean.

## Gaur zabalduko dute Argizaiola argazki erakusketa Oñatin

Argizaiola lehiaketan parte hartzen dute Euskal Herrian egindako argazki lehiaketetako irabazleek: txapeldunen arteko txapelketa dela esan daiteke. 2010eko lehiaketan 24 argazkilari lehiatu ziren eta 186 argazki aurkeztu zituzten. Horien erakusketa egingo da Oñatiko kultura etxean, astelehenetik domekara, 18:00etatik 20:00etara.

# Saridunak eta Loramendikoak gustura aurtengo literatura lehiaketarekin

## Lehen Hezkuntzako ikasleek inoiz baino lan gehiago aurkeztu dituzte

**OIHANA ELORTZA** | ARETXABALETA

Aretxabaletako Loramendi elkarteak antolatu duen literatura lehiaketarekin gustura daude saridunak zein elkartekoak, sari guztiak eman ez dituzten arren. Egubakoitz iluntzean egin zuten sari banaketa Arkupen. Saridunekin batera izan ziren han Iñaxio Garro alkatea eta Loramendiko presidente Iker Urkia.

### Ipuin politak

Lehen Hezkuntzako ikasleek aurkeztutako lanekin oso pozik daude Loramendi elkarteko kideak; inoiz baino gehiago aurkeztu dituztelako eta orokorrean maila oneko lanak izan direlako. Ipuinak, esaterako, oso politak aurkeztu dituzte eta bertsoak ere bai, "asko DBHko ikasleenak baino hobeak".

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleek ostera, lan gutxi aurkeztu dituzte aurten eta maila "apalekoak" horietako batzuk. Lan batzuk, batez ere bertsoak, maila polita zuten, baina oinarrietan eskatutakoa ez zutela betetzen adierazi dute Loramendi elkarteko kideek. Horregatik, atal batzuetan ez dituzte saririk eman edo sari bakarrak bakarrik banatu dituzte, komikien kasuan esaterako.

### Atal batzuk hutsik

Loramendi elkarteak antolatutako aurtengo literatura lehiaketan 23 sari eman behar zituzten, Lehen Hezkuntzako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleek egindako lanen artean banatu beharrekoak ipuinen, bertsoen, gorrotozko gutunen, komikien edo film laburren kategoriatan banatzeko. Egubakoitzeko sari banaketan, baina, 14 eman zituzten, tartean DBH 3-4 taldeko Maria Jakak komiki arloan irabazitako sari berezia. DBHko bertsoen kategorian ez zuten saririk eman eta film laburrenetan, berriz, sari bakarra eman zuten, DBH 3-4 taldeko Ayla Manzanalek irabazitakoa.

### Liburua

Joan den urteko irabazleen lanekin liburuxka bat egin dute eta egubakoitzeko sari banaketan eman zituzten. Ikastetxeetara ere bidaliko dituzte ale batzuk. Aurtengo irabazleen lanekin beste horrenbeste egiteko asmoa du Loramendi elkarteak.



Lehiaketako saridunak, Iñaxio Garro eta Iker Urkiarekin. | MIRARI ALTUBE

# Hiru belaunalditako senideak erakarri zituzten Pantxoa eta Peiok, Monzon gogoan zutela

**O.E.** | BERGARA

Kantuan eta txaloka ibili ziren Pantxoa eta Peioren kontzertura joan zirenak, Iparraldeko bikotearen zaleengandik espero den bezala.

### 'Lepoan hartu'

*Eñaut bidegorri* kantuarekin hasi zuten emanaldia, eta abestia bukatu ostean agurtu zituzten Ospitalek eta Carrerek Bergarako udal pilotalekuan zeuden entzule eta zale guztiak. Bikotearekin batera, Michel Ducau gitarra jotzen, eta beste bi lagun esku soinua eta baxua jotzen. Bost lagun guztira oholtza gainean, eta behean, entzuten, zale ugari. Hiru belaunalditakoak ere bazeuden tartean. Frontoiko behe aldea, beteta.

Ordu eta erdi pasatxo iraun zuen kontzertuak. *Lepoan hartu* abestiarekin agurtu ziren, baina jendeak gehiago gura zuen, eta bisetan, *Kanta aberria* kantatu zuten. Telesforo Monzonen heriotzaren urteurrenaren harira antolatutako kontzertua izanik, gogoan izan zuten Monzon. Kontzertuaren bigarren erdian haren hitzekin egindako kantuak abestu zituzten. 1968an ezagutu ei zuten eurek bergararra, 20 bat urte zutela.



Peio Ospital eta Pantxoa Carrere. | JULIO CALLEJA




## Gremioen gida




## Jatetxeen gida




# NEGOZIOA BADAUKAZU, BAINA INORK EZ BADAKI?

Eman ezagutzera zure negozioa Debagoieneko gidetan.

## Osasun zerbitzuen gida




## Profesional liberalen gida




Iragarkia jartzeko, deitu **943 25 05 05** zenbakira.

GURE MUSIKA TALDEAK

KRISIS




Krisis talde aretxabaletarra duela bi urte jaio zen. Argazkian, hiru taldekideak lokalean, entsegu baten. | KRISIS

# "Sentitzen duguna eta barru-barrutik irteten zaigun musika egiten dugu"

▶ Bigarren maketa kaleratu dute Krisis aretxabaletarrek

▶ kontzertua eskainiko dute Langraitzeko kartzelan

MAIDER ARREGI | ARETXABALETA

Mezu sakon eta indartsuekin dator Krisis hirukoa. Izenak esaten duen moduan, krisiarekiko eta egungo gizartearekiko desadostasuna azaleratzen dute. Potras (ahotsa eta gitarra), Borgas (Ahotsa eta baxua) eta Ibaito (bateria) dira taldekideak.

**Amorrua eta doinu indartsuak ezagun dira zuen musikan.**

Barrutik irteten zaiguna egiten dugu. Eguneroko gauzen inguruan eta bizi dugunaren inguruan abesten dugu.

**Erritmo ezberdineko sei abestik osatzen dute maketa.**

Bai; gehienak abesti azkarrak dira. Hala ere, *Sistema* abestia entzutean erritmo apurketa dagoela ohartuko zara. Zerbait ezberdina egin nahi genuen, kantu ezberdin bat, eta harmonika erabili dugu, besteak beste.

**90eko hamarkadako punka egiten duzuela esan daiteke?**

Punk-rock gordina egiten dugu. Ez da melodikoa. Zuzenekoak intentsitate handikoak dira eta dena ematen dugu. Gure kontzertuak ez dira oso jendetsuak, baina etortzen direnek primeran pasatzen dutela diote. [Barre] Guri musika egitea gustatzen zaigu, barrutik irteten zaiguna.

**Zer esan dizuete maketa entzun duten jarraitzaileek?**

Gure bigarren maketa hobea dela esan digute. Batez ere soinu aldetik igarri dute hobekuntza. Ez da estudioko grabazioa, baina gustatu zaie. Lokalean grabatu dugu, Karlosekin; oraingoan, landuagoa izan da grabazioa.

***Ez, ez, ez, ez, gara ixilduko...* diozue zuen letretan.**

Gure mezua zabaldu nahi izan dugu jendearen aurrean. Eurek badakite, eta mezua ulertzen du jasotzen duenak. Denok ez garela berdinak eta inguruan begiratzeko diogu...

**Nola ikusten du Krisisek gaur egungo errealitatea?**

Gure letretan diogun moduan, errealitatea gorria da, odoltsua da. Geroz eta okerragoa. Gizarte honetako zenbait ikuspegi salatu nahi ditugu! Ikusi nola doazen gauzak! Ironia erabiltzen dugu gure letretan sistema ondo doala esaten dugunean.

**Langraitzeko kartzelan joko duzue presoen aurrean.**

Bai, maiatzean izango gara Langraitzeko kartzelan. Sekulako ilusioa daukagu, egunero ez dira -eta horrelako aukerak sortzen. Bertako presoen aurrean jotzea esperientzia guztiz positiboa izango da guretzako, aberasgarria.

**Nola ikusten duzu bailarako musikaren egoera?**

Gure ustez, hemengo musika estiloa oso markatua dago. Hori apurtu egin behar da, jendea saturatuta dago-eta. Beste zerbait eskatzen du jendeak.

**Noizko lehen lana?**

Abestiak eginda dauzkagu. Gure asmoa da lehenbailehen gure lehen diskoa grabatzea. Entseatzen ere bagabiltza. Zerbait ezberdina egin nahi dugu. Baina gure asmoa da zuzenekoak ematea! Kontzertu gehiago lotzeko gogoz gaude. Azken finean, hori da gustatzen eta betetzen gaituena. Informazio gehiago euren webgunean duzue: *www.myspace.com/krisisaskerosasratas*.

## ZERTZELADA




**2. MAKETA**

**Estiloa:** Punk-rocka.

**Egilea:** Krisis.

**Argitaletxea:** Autoekoizpena.

**Iraupena:** 17,3 minutu.

### Punk-rockari ñabardurak ateratzea

Orain dela hainbat urte Krisis ikusteko aukera izan nuen Arrasateko taberna batean eta onartu beharra dut hango anabasan zerbait ulertzea zaila zela. Orain, berriz, lokalean grabatutako disko hau nire eskuetara heldu da, eta, lehenik eta behin, zoriondu egin nahi nituzke lokalean grabatu arren lortu duten emaitzagatik. Balizkoa da!

Bestalde, esango nuke iraganeko Eskorbutoren itzala txikitu egin dela -hitzetan bada arrastorik-, eta, gure inguruan hainbeste landutako punk-rockean murgiltzen badira ere, zelanbaiteko izaera propioa dute, abesteko eran eta hainbat girotan; besteak beste, *rock callejero* deritzonaren arrastoa ere baduena. Ea, ba, zelako garapena duten!

IKER BARANDIARAN

## 1. ETXEBIZITZAK

### 101. SALDU

**Antzuola.** Bi logelako etxebizitza salgai. Igogailua eta berokuntzarekin. Berritua. 163.000 euro, negoziagarri. 645 00 89 97 / 645 70 80 26

**Arbizu.** Jantzitako etxebizitza bat alokatzen da arbizun. 686 82 68 03

**Arrasate.** Alde zaharrean 65 m2ko etxebizitza salgai. Hiru logela, sukaldea, bainugela, egongela eta ganbara. 162.000 euroan. Errentan emateko aproposa. 662 18 25 73

**Arrasate.** San Josepen. 47 m2. Bi logela, komuna, sukaldea, egongela, trastelekua. Igogailua Ekialdera ematen du. Etxabea da eta erreformak behar ditu. Kontaktua: etxerakomodukoa@gmail.com.

**Bergara.** Martoko kalean etxebizitza salgai. 65 metro, berrituta eta eguzkitsua. Bi logela, egongela, komuna, bi balkoi eta sukaldea. Igogailua eta sotanoa. Interesatuak deitu zenbaki honetara: 625 70 84 55

**Azkoitia.** Etxebizitza salgai azkoitian. Berritzeko. Aizkibel 6 4. 91m2. 618 10 31 62

**Durango.** Alde zaharra. 71 m2. Kanpoaldera begira. Altzariz hornituta. 2 logela. Egongela. Sukaldea. Komun bat. Guztiz berriztuta. Kanpotik (2006): fatxada, atalondoa, eskailera eta teilatua. Barrutik (2007): parketa (elondoa), sukaldea (fagor elektrotresnak eta junkers galdara ), gresa, berokuntza (gas naturala), kristal bikoitzeko leihoak, ate blindatua. Berehala bizitzera joateko aukera. 199.000 euro. Harremanetan jartzeko deitu telefono zenbaki honetara: 607 71 53 53

**Etxarri-aranatz.** Etxe familiabakarra salgai. Praktikan berria eta jantzitakoa. Hiru logela, bi komun, sukaldea eta egongela. Garajea, lorategia eta bista ederrak. Prezioa adosteko. Harremanetan jartzeko deitu: 637 53 86 15

**Lana.** Etxeak ditu: 3 logela, egongela (beheko sua du),sukaldea (sutegi ekonomikoa berria), komuna,ganbara eta ukuiluak. Teilatua oso ongi dago. Baratzak 150m ditu eta era ekologikoan landu da. Inguruak mendi eta naturazaleentzat ezin aproposagoak. Gasteiztik 45 min eta lizarratik oso gertu. Egokia asteburu eta oporraldietarako. Ikustea merezi du. Deitu 699 24 86 99 zenbakira. Tolosaldean etxerik baduzu, prest geundeke trukerako.

**Oñati.** 60 m2ko etxebizitza salgai san lorentzon. Bilogela, komun bat eta sukalde-egongela. Jantzia eta berritua. 192.000 euro. Deitu 20:00ak eta 22:00ak artean, mesedez. 699 78 47 49

**Oñati.** Kalebarria 54an, Etxaluzen, etxebizitza salgai. Sukaldea, trastelekua, bi balkoi, lau logela, bi komun, egongela edo jangela, ganbara, igogailua. Garajea aukeran. Prezio negoziagarria. 647 24 80 02

**Oñati.** Kalebarrian 71 m2ko etxebizitza salgai. Bi logela, sukaldea, egongela eta komuna, guztiz hornituak. Patio erabilgarria, ganbara eta garaje itxia. Prezio ona. 665 71 77 98

**Oñati.** 84 m2ko etxebizitza ederra salgai. 3 gela, 2 komun, sukaldea eta egongela handia. Gainera 32metroko lorategia dauka, garaje itxia eta ganbara. Leku aproposean dago, denda eta ikastetxea ondoan baitauzka. Ingurune lasaia eta erdigunea 5 minutura dago. 678 71 36 97

**Zaldibar.** Aukera paregabea .67 m2, 3 gela, bainu-gela bat, sukaldea, egongela, balkoia eta igogailua dituen etxebizitza salgai. . HarremanetaRAko deitu telefono zenbaki honetara: 946 55 03 58

### 103. ERRENTAN EMAN

**Aramaio.** 80 m2ko etxea errentan. Hiru logela, egongela, sukaldea, komuna eta balkoi eder bat. Oso argitsua. . Harremanetarako deitu telefono zenbaki honetara: 692 70 42 71

**Aretxabaleta.** Etxebizitza txikia ematenn da errentan. Pertsona batentzako. Eraberritua eta erdi-erdian. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 616 75 41 30

**Arrasate.** Erguin auzoko Udalpe kalean etxebizitza ematen da errentan. Guztiz berritua. Jantzia. Berokuntzarekin. Egoera oso onean. Bikote batentzat egokia. 620 15 15 08

**Arrasate.** Hiru logela, egongela, bi komun, igogailua eta berokuntzarekin. Deitu 680 48 94 04 telefonora.

**Arrasate.** Gela bateko apartamentua ematen da erreantan. Balkoiduna. Guztiz berritua. 500 euro hilean, komunitateko gastuak barne. Motorra gordetzeko trastelekua aukeran. Debagaraia agentzia. 943 77 13 02

**Elorrio.** 45 m2-ko pisua alokagai elorrion. Logela, komuna eta sukalde-egongela. Egoera onean. (garajearekin batera alokatzen da) prest dago bizitzera sartzeko. 687 740 449

**Getaria.** Hiru logela. Berritua. Bista ederrak. Martxoan sartzeko. Urte osorako.647 354 203

**Llanes (Asturias).** Bi pertsonarentzako apartamentua alokagai. Aste santuan, aste bukaeretan. Deitu 637 91 68 92 telefono zenbakira 14:00etatik aurrera deitu, mesedez.

**Oñati.** Etxebizitza errentan ematen da erdigunean. Hiru logela, egongela, sukaldea eta igogailua ditu. 652 77 87 15

**Villabona.** Larrea auzoan etxebizitza berria alokatzen da. Sukaldea, jangela, egongela, gela bat, bainugela eta trastelekua. 600 euro hilean. Garaje itxiarekin nahi izan ezkero, 650 euro hilean.

**Zaldibar.** Etxea alokagai zaldibarren. Alde zaharrean. Bi logela, egongela, sukaldea eta komuna. Guztiz berriztatua. Estreinatzeko. 660 45 87 56

### 104. ERRENTAN HARTU

**Bergara.** Etxebizitza hartuko nuke errentan, hiru logelakoa. 600 29 05 24

**Bilbo.** Neska langilea naiz ta bilbon edo inguruan pixu bila nabil, apartamentua, atikoa, estudioa.. Oso oso ondo zaindu ko dut!! ;peraitz@gmail.com 626 86 67 36

**Zarautz.** Bikote euskaldunak etxea alokatuko luke Zarautzen. 655 44 54 98

### 105. ETXEAK OSATU

**Debagoiena.** Logela hartuko nuke errentan Arrasaten edo inguruan.685 73 48 59 .

**Arrasate.** Logela bat ematen da errentan erdigunean. 648 86 05 49

**Donostia.** Antiguan gela argitsu bat eta garaje itxi bat alokatzen da epe luzerako(12 hilabete gutxienez) kontratuarekin. Hilean 375 euroko errenta (aitorpenean -%25 diru laguntzarekin, 280 euro!) gehi 60 euro gastuengatik (gasa, ura, argindarra, internet etb. Barne), 95 m2ko etxe batean. Beste 2 pertsona langilerekin partekatzeko litzateke (27 eta 29 urtekoak gara; ez gara bikotea). Bi bainu, egongela handi bat, sukalde berri-berria, terraza (14m2) eta igerilekua. Paregabeko aukera. Garrantzitsua: urte osorako banku abala eskatzen du etxearen jabeak. 626 22 92 58.

**Donostia.** Donostian gela bat alokatzen da pisu konpartitu batean neska batentzako, berdin ikasle edo langile.943 65 16 92

# ZURE IRAGARKIAK

**IRAGARKIA JARTZEKO BIDEAK:**

943 25 05 05 | sailkatuak@goiena.com | www.goiena.net/sailkatuak

Egueneko 16:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere.
GOIENAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

**ORDAINTZEKO ATALAK DIRA:** **PREZIO BEREZIA** GOIENA KLUBEKO BAZKIDEENDAKO

**- Etxebizitza Saldu/Errentan. Lokala Saldu/Errentan. Garajea Saldu/Errentan. Motorra Saldu/Errentan.**
Egubakoitzean + Astelehenean: 21 € (BEZ barne).
Astebete baino gehiagoz argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira.
**- Profesionalen moduluak.**
Modulu bakarra egubakoitzean EDO astelehenean: 22 € (+BEZ).
Egubakoitzean + Astelehenean: 29 € (+BEZ).

**1. ETXEBIZITZAK**
101. Saldu
102. Erosi
103. Errentan eman
104. Errentan hartu
105. Etxeak osatu
106. Bestelakoak

**2. GARAJEAK**
201. Saldu
202. Erosi
203. Errentan eman
204. Errentan hartu
205. Bestelakoak

**3. LOKALAK**
301. Saldu
302. Erosi
303. Errentan eman
304. Errentan hartu
305. Bestelakoak

**4. LANA**
401. Eskaintzak
402. Eskaerak
403. Bestelakoak

**5. IRAKASKUNTZA**
501. Jaso
502. Eman
503. Bestelakoak

**6. MOTORRA**
601. Saldu
602. Erosi
603. Alokatu
603. Konpondu
604.Bestelakoak

**7. ANIMALIAK**
701. Saldu
702. Erosi
703. Eman
704. Bestelakoak

**8. DENETARIK**
801. Saldu
802. Erosi
803. Eman
804. Hartu
805.Trukatu
806.Galdu
807.Aurkitu
808. Bestelakoak

**9. HARREMANAK**
901. Agurrak
902. Harremanak
903. Deiak
904. Bestelakoak

**10. RELAX**

Debagoienetik kanpoko iragarkiak, web gune honi esker eman dizkizugu: iragarkilaburrak.com

## 2. GARAJEAK

### 201. SALDU

**Aretxabaleta.** Garaje irekia salgai Loramendi kalean. Neurriak: 4,15x2,25. Interesatuok deitu zenbaki hauetara: 943 79 93 77 edo 629 75 42 58.

### 203. ERRENTAN EMAN

**Durango.** Plateruen plazan garajea alokagai. 65 € hileko. 635 73 57 59 (Josu)

**Elorrio.** Nizeto Urkizu kalean garaje itxia alokagai. Autoa eta trasteak sartzeko. 660 45 87 56.

### 204. ERRENTAN HARTU

**Eskoriatza.** Erdialdean, hala bada, garajea hartuko genuke errentan. 943 79 01 07 (Arantxa), 669 90 73 77 (Fran)

## 3. LOKALAK

### 302. EROSI

**Bergara.** Lokal komertziala erosiko genuke. Bestela, lehenengo edo beheko solairuan dagoen etxebizitza. Ahal bada, San Lorentzo edo Matxiategi aldean. Deitu 656 74 74 78 edo 605 76 32 72 zenbakietara.

## 4. LANA

### 401. ESKAINTZAK

**Durango.** Pertsona euskalduna behar da goizeko 07:15etik 10:30era umeak prestatu eta etxeko lanak egiteko. Deitu 619 86 40 00 telefono zenbakira.

**Durango.** Andra euskalduna behar da umeak ikastolara eraman eta jasotzeko. Aste baten goizeko 07:30etik 09:00etara eta hurrengo astean arratsaldeko 16:30etik 19:30era. Deitu 646 22 05 62 zenbakira.

**Hernani.** Adineko emakumea zaintzeko pertsona bat behar da, arratsaldetarako. Deitu 943 55 55 96 telefonora.

### 402. ESKAERAK

**Arrasate.** Hemengo neska etxeko lanak, umeak zaintzeko edo edozein lanerako prest. Orduka ere bai. 659 55 27 16

**Arrasate** edo inguruetan ingeneritza ikasten ari den neska euskalduna LH, DBH edota Batxilergoko eskola partikularrak emateko prest.606 88 94 20

**Arrasate** eta inguruko herrietan lan egingo nuke arratsaldeetan. Umeak edo nagusiak zaindu edo garbiketa lanak egiten.Deitu 674 93 20 47 telefonora.

**Arrasate edo Bergara.** Emakume euskalduna gertu orduka plantxa edo bestelako etxeko lanak egiteko.699 54 17 27

**Arrasate.** Emakumea gertu lanerako. Garbiketak egiten edota etxean bertan bizi izaten. Ana Luisa de los Santos.Deitu 673 78 08 99 telefonora.

**Arrasate.** Hemengo neska etxeko lanak egin, umeak zaintzeko edo edozein lanerako prest, orduka ere bai.659 55 27 16

**Arrasate.** Bergara edo arrasate. Mutila gertu sukalde laguntzaile, zerbitzari, garbiketan edo nagusiak zaintzen jarduteko. Esperientziaduna eta legezko paperekin. 634 84 41 94

**Arrasate.** Emakumea gertu lanerako. Garbiketak egiten edota etxean bertan bizi izaten. Ana luisa de los santos. 673 78 08 99

**Arrasate.** Bergara edo Arrasaten. Neska gertu etxeko lanak egin, nagusi zein umeak zaindu edota garbiketa lanak egiteko. Orduka, etxean bertan bizi izaten, gauetan edo asteburuetan ere lan egingo nuke. 616 60 23 78

**Azpeitia.** Bi emakume, helduak zaintzeko prest. Geriatriako titulua daukagu. Deitu 695 74 88 35 eta 647 72 23 36 telefono zenbakietara edo idatzi mezu bat *loreaig83@hotmail.com* helbidera.

**Beasain.** Neska euskaldun bat orduka lan egiteko prest dago (garbiketak, tabernan lan egiteko, umeak zaintzeko..). Esperientziaduna. 943 08 59 39

**Beasain.** Umeak edo adineko pertsonak zaintzen lan bila dabil neska arduratsua, eta erreferentziekin. (interna edo externa moduan lan egiteko aukera). Harremanetan jartzeko deitu telefono zenbaki honetara: 673 52 83 95

**Bergara.** Mutil gazte eta arduratsua gertu nagusiak zaindu edo taberna zein jatetxeetan lan egiteko. Auto dut. Harremanetan jartzeko deitu telefono zenbaki honetara: 654 24 13 27

**Bergara edo Arrasate.** Neska gertu etxeko lanak egin, nagusi zein umeak zaindu edota garbiketa lanak egiteko. Orduka, etxean bertan bizi izaten, gauetan edo asteburuetan ere lan egingo nuke.616 60 23 78

**Bergara.** Mutil gazte eta arduratsua gertu nagusiak zaindu edo taberna zein jatetxeetan lan egiteko. Auto dut.Deitu 654 24 13 27 zenbakira.

**Debagoiena.** Emakumea gertu ile-apaindegian lan egiteko edo garbiketa zein nagusien zainketarako. 619 23 37 30

**Debagoiena.** 27 urteko mutil gaztea naiz eta lan bila nabil, edozein motatakoa, sukaldean eta obretan zein margotzen esperientzia handia daukat, baita hortuetan ere. Pare bat ordu badira ere beharrean nago. Deitu 689 68 56 81/606 74 42 37 telefonora.

**Debagoiena.** Etxeak, lokalak eta lantokiak margotzen dituen 3 urteko esperientziadun mutila naiz. Lan ona, azkarra eta merkea egiten dut, deitu galdetzeko lasai asko. Paretak garbitu, masa heman eta margotzen ditut. Deitu 648 68 24 30 edo 648 68 24 30 telefono zenbakietara.

**Debagoiena.** Gizon arduratsua, heziketa onekoa eta ikasketak dituena edonolako lanak egiteko eskaintzen da. Pertsona nagusien zaintzan esperientziaduna. Ordutegi moldagarria. Victor. Deitu 660 59 77 20 zenbakira.

**Debagoiena .** 45 urteko emakumea, eskarmentuduna, nagusi zein umeak zaintzeko edo atari eta enpresak garbitzeko gertu. Deitu 685 21 24 89 edo 662 57 53 46 zenbakira.

**Debagoiena.** Esperientzia duen emakumea gertu etxeko lanak egiteko eta pertsona nagusiak zaintzeko. Deitu 650 17 74 87 telefonora.

**Debagoiena.** Gizon arduratsua gertu edozein lan egiteko. Deitu 669 64 7628 zenbakira.

**Debagoiena.** Arrasate edo bergara. Emakume euskalduna gertu orduka plantxa edo bestelako etxeko lanak egiteko. Deitu 699 54 17 27 zenbakira.

**Debagoiena.** 24 urteko mutila gertu elektrikari lanetan jarduteko. Deitu telefono zenbaki honetara: 943 79 60 89

**Debagoiena.** Mutila gertu asteburuetan lan egiteko. Deitu 654 98 69 14 zenbakira.

**Debagoiena.** Mutil eskarmentuduna gertu garbiketa lanetan jarduteko. 689 88 80 23

**Debagoiena.** Mutil arduratsua gertu ostalaritzan jarduteko, ahal bada, edo bestelako lanetarako. Eskarmentuduna. Arkaitz. 689 76 31 13

**Debagoiena.** Mutila gertu eraikuntza zein garbiketa lanetan jarduteko. Gidabaimena eta autoa dauzkat.Deitu 639 41 68 38 edo 943 79 70 82 telefono zenbakietara.

**Debagoiena.** Mutila gertu garbiketa, nagusiak zaintzen edo bestelako lanetarako. Soldatzailea naiz. Deitu zenbaki honetara:616 32 90 12

**Debagoiena.** Mutila gertu nagusiak zaintzeko, eta zerbitzari edota sukaldari laguntzaile lanetan aritzeko. Deitu 697 54 28 76 edo 682 35 90 60 telefono zenbakietara.

**Debagoiena.** Neska gertu orduka lan egiteko: garbiketak, tabernak, sukalde laguntzaile, pintxoak egiten eta abar. Iris. Harremanetarako deitu telefono zenbaki honetara: 943 53 36 72 / 677 03 79 59

**Debagoiena.** Zerbitzari lanetan, pizzak egiten, lorazaintzan eta eraikuntzan jardundako mutila lan bila. 680 92 59 14

**Durango.** Garbiketarako, ume edo nagusien zainketarako lan bila nabil. Lanaldi erdi edo osorako. Esperientziarekin. Harremanetan jartzeko deitu telefono zenbaki honetara: 638 43 79 01

**Durango.** Neska euskalduna, arratsaldez edo aste bukaeratan umeak edo nagusiak zaintzeko prest. Deitu 635 20 45 32 telefono zenbakiera eta mezua utzi.

**Durango.** Neska gazte euskalduna arratsaldeetan umeak zaindu zein klase partikularrak emateko prest. Harremanetan jartzeko deitu telefono zenbaki honetara: 695 70 62 27

**Deba Garaia Inmobiliaria**
Telesforo Aranzadi 2
T: 943 76 21 80 F: 943 76 06 37

**ETXEBIZITZAK SALGAI**

**BERGARA**
- Arrizuri, 97 m2, garajearekin.
- Aranerreka, 80 m2, oso ondo. Prezio ona.
- Matxiategi, 72 m2, eguzkitsua. Prezio ona.
- Zabalotegi, 54 m2, eguzkitsua, oso ondo.
- Bolu, 103 m2, oso eguzkitsua.
- Burdiñate, 104 m2, oso ondo.
- Ibargarai, apartamentua, 40 m2, berria, garajea aukeran.
- Justo Garate, 80 m2, oso ondo.
- Herrilagunak, 60 m2.
- Martoko, 87 m2, ondo, garajearekin.
- San Pedro, 88 m2, ondo.
- Ibargarai, 80 m2 oso ondo eta eguzkitsua.
- Koldo Eleizalde, 87 m2 oso ondo.
- Zabalotegi 80 m2, eguzkitsua, berritua.
- Elorregi 70 m2, terrazarekin, eguzkitsua, oso ondo.
- Urteaga 109 m2, berritua, oso ondo.
- Simon Arrieta, 57 m2, terrazarekin.
- Zurradero, 81 m2, oso ondo.
- Zubieta, 125 m2, terraza eta ortuarekin.
- Zabalotegi, 50 m2, berritua. Oso eguzkitsua.
- Iparragirre, 190 m2.
- San Antonio, 65 m2, eguzkitsua.
- Masterreka, 46 m2, eraikuntza berria.
- Etxebizitza berrien erainkuntza Maduran, San Pedron, Masterrekan, Zubiaurren, Bidekurutzetan, Zubietan, Martokon eta San Lorentzon.
- San Lorentzon aukera ona.
- Basarte. 69 m2. Oso ondo.
- Toki Eder plaza. 54 m2. Apartamentua. Oso ondo.
- Artekale, 48 m2. Apartamentua. Oso ondo.
- Arrizuri, 90 m2. Terrazarekin. Oso ondo.

**SORALUZE**
- Baltegieta, 83 m2, berria.
- Sagarerreka, 58 m2, aukera ona.

**ANTZUOLA**
- Eguzki auzoa, Antigua auzoa eta Sagasti auzoa.

KOROSTI INMOBILIARIA
Ibargarai 3 • BERGARA
Tel. / Faxa: 943 76 97 97
www.inmokorosti.com

**ETXEBIZITZAK SALGAI**

**Bergara:**
- Martoko. 70 m2. Igogailuarekin. 192.233 €.
- Basarte. 68m2. Terrenoarekin.
- Artekale 40 m2. Berritua.
- Irizar pasealekua 70 m2. Igogailuarekin.
- Koldo Eleizalde. 74 m2. Eguzkitsua. Prezio ona.
- Ozaeta. 96 m2. Eraikuntza berria.
- Osintxu. 84 m2. Igogailuarekin. 153.258 €.
- Ibargarai 54 m2. Garajearekin.
- Lorentxoko 73 m2. Eraikitzeko.
- Burdiñate 53 m2. 162.273 €.
- Matxiategi 65 m2. Igogailuarekin. 190.000 €.
- Ibarra 47 m2. 146.888 €.
- Mizpildi. 70 m2. Eguzkitsua.
- Simon Arrieta 70 m2. Prezio ona.
- Zabalotegi 54 m2. 154.761€.
- Aranerreka 80 m2. 189.319€.
- San Lorentzo 68 m2. Berritua.
- Herri Lagunak 52 m2. Prezio ona.
- **Etxebizitza berrien eraikuntza Martokon, Maduran, San Pedron, Zubiaurren eta Bidekurutzetan.**
- Artzamendi. 75 m2. Prezio ona.
- GARAJEAK SALGAI Ozaetan. Aukera ona.

**Antzuola:**
- Buztinzuri, Sagasti, Antigua, Zurrategi, Beheko auzoa, Ibarre auzoa, San Josepe, Aierra eta Errekalde. Etxe onak.
- Herriko plaza 95 m2. Oso etxe ona.

**Elgeta:**
- **AUKERA**. Etxebizitza adosatuak salgai Elgetan. Lehen mailako materialekin. Eraikuntza bukatua. **PREZIO EZIN HOBEAK**: 249.210 €tik hasita.
- **Eraikuntza berriak Torrealdean. 186.805 €tik aurrera.**

**Soraluze:**
- Sagar Erreka, Rabal, Atxuri eta Rekalde. Etxe onak.

**Durango.** Lorezaintzan, eraikuntzan, txofer modura, banaketan eta abar lan bila nabil. Lorezaintzan esperientzia daukat. Paperekin. Gidatzeko baimena. 669 59 43 76

**Elorrio.** Fisioterapian diplomatua. Durangaldean etxez etxe fisioterapia zerbitzuak emateko prest (terapia manuala, bendaje funtzionala, masai terapeutikoa..).644 28 27 83.

**Zarautz.** Neska euskalduna eskaintzen da haurrak eta adinekoak zaintzeko, edo sukaldean nahiz zerbitzari lanak egiteko. Zarautz inguruan. Harremanetan jartzeko deitu telefono zenbaki honetara: 649 27 73 53.

**Zarautz.** Gizon euskalduna naiz,lan egiteko prest nago, edozein lanetarako. Harremanetan jartzeko deitu telefono zenbakira: 658 73 08 08

## 5. IRAKASKUNTZA

### 501. JASO

**2. batxilergo .** mailarako laguntza behar dut. Filosofian, erderan eta euskaran laguntza behar dut. Nahi baduzu telefono honetara deitu. Aretxabaletakoa naiz baina Arrasatera ere joango nintzateke. 609 98 02 52 .

**Debagoiena.** Ingeleseko ahozkotasuna lantzeko esperientziadun irakasle baten bila nabil. Astean bizpahiru ordu, arratsaldez. Lehenbailehen hasteko. 665 72 79 38

**Elorrio.** Elorrion ingeles irakasle esperientziaduna behar da. 615 78 66 07

### 502. EMAN

**Alemaniera.** Alemaniar Filologian lizentziatutako neskak, maila guztietako eskola partikularrak ematen ditu. 3 urte Berlinen bizitzen. 679 67 16 42, 943 79 74 93

**Arabiera** eskolak emateko gertu nago. 654 98 69 14

**Aretxabaleta.** Aretxabaletan eskola partikularrak ematen dira, 2. Batxilergoko mailara arte. 653 01 76 67

**Arrasate.** Neska euskalduna, ekonomian lizentziaduna, eskola partikularrak emateko gertu. 679 97 76 46

**Arrasate.** Neska gazte euskalduna lehen hezkuntzako ikasleei ikasketetan laguntza emateko prest. 616 32 73 08

**Arrasate.** 5. mailako ingenieritza ikaslea Arrasaten eskola partikularrak emateko prest. Harremanetarako deitu 625 74 91 50 telefono zenbakira.

**Arrasate.** Arrasate edo inguruetan ingeneritza ikasten ari den neska euskalduna lh, dbh edota batxilergoko eskola partikularrak emateko prest. Harremanetan jartzeko deitu telefono zenbaki honetara: 606 88 94 20

**Bergara.** Ingeleseko eskola partikularrak ematen ditut. Maila guztiak. Azterketak gertatzeko ere bai. 618 91 32 89

**Bergara.** Eskola partikularrak emango nituzke. Haur hezkuntza, lehen hezkuntza eta ingelesa. Harremanetan jartzeko deitu telefono zenbaki honetara: 645 72 01 50

**Bergara.** Bergaran frantseseko eskola partikularrak ematen ditut. Harremanetan jartzeko deitu telefono zenbaki honetara: 679 74 00 61

**Donostia.** Panderoa, kainabera eta txaramelak. Asteazken goizetan, Arrano beltza euskal tokian (Ikatz , 10) Idatzi mezu bat arranokoikastaroak@gmail.com posta elektronikora.

**Donostia.** Klase partikularrak lehen hezkuntza eta DBHko ikasleentzat. Esperientzia handiko irakaslea, heziketa berezian diplomaduna eta gizarte eta kultur antropologian lizentziaduna. Harremanetan jartzeko deitu telefono zenbaki honetara: 628 04 15 26.

**Durango.** 4. mailako Telekomunikazio Ingenieritzako ikasle euskalduna Batxilergoko eta DBHko klaseak Durangon emateko prest. Espezialitatea matematika klaseetan. Harremanetan jartzeko deitu telefono zenbaki honetara: 635 74 61 76

**Durango.** Mutil euskalduna eskola partikularrak emateko prest Durangon. Interesatuek deitu mesedez telefono zenbaki honetara: 667 24 51 49.

**Durango.** Haur hezkuntza ikasten dabilen mutil euskalduna klase partikularrak edo umeak zaintzeko prest. Harremanetan jartzeko deitu telefono zenbaki honetara: 685 70 21 77

**Erasmus ikasleentzat.** Euskara edo gaztelania ikasi nahi? Kualifikaturiko irakaslea naiz eta lagunduko dizut. Deitu konpromezurik gabe. 635 12 87 82 edo 943 25 05 79 telefono zenbakietara.

**Gasteiz.** Ingeleseko aparteko eskolak ematen dira gasteizko alde zaharrean edo norberaren etxean. Dbh-ko, batxilergoko, lanbide heziketako eta eredu hirueleduneko mailak ematen ditut. Zientzietan eta itzulpengintzan lizentziaduna naiz. Deitu 650 80 76 72 telefono zenbakira edo idatzi mezu bat sla13@euskalerria.org helbidera.

**Ingelesa edo alemaniera** ikasi nahi? Eskola partikularrak ematen ditut. Ordutegi malgua. Esperientzia handia. Taldeka nahiz banaka. 15 €; orduko (banaka). Eskoriatza, Arrasate edo inguruetan. Deitu konpromiso gabe. 635 12 87 82 edo 943 25 05 79

**Ondarroa.** Trikitixa jotzen irakasten dut. Deitu telefono zenbaki honetara:661 12 56 47

**Villabona.** Ingeleseko klaseak ematen dira Gipuzkoa mailan. Taldeka edo bakarka. Maila ezberdinak. Irakasle tituluduna. Harremanetan jartzeko deitu telefono zenbaki honetara: 664 16 02 68 edo idatzi mezu bat continental56@hotmail.com posta elektronikora.

**Klase partikularrak ematen ditut.** Matematikako, ingeleseko, fisikako eta kimikako klase partikularrak emango nituzke DBH 4. maila arte.Deitu 666 37 41 71 telefonora.

## 6. MOTORRA

### 601. SALDU

**BMW 118 D salgai.** BMW 118 D. 2008ko uztailekoa. 55.000 kilometro. Urdin iluna. Aluminiozko llantak. Oso egoera onean, oso gutxi kontsumitzen du. Ordenagailua, aginteak bolantean dituen BMWekipo profesionala bluetooth-arekin. Bi guneko klimatizagailua. Bmw garantia ofiziala 2011ko azaroa arte. Sabairako barrak eta llanta joko bat oparitzen ditut. Interesatuek deitu telefono zenbaki honetara:656 75 95 37 (Joseba)

**Peugeot 206 XS HDI 2.0.** Gehigarri guztiak ditu, ekipamendu guztia, gris metalizatua, aluminiozko hagunak ditu.. Leheneskukoa da, kolpe gabekoa eta oso ondo zaindua. Harremanetarako telefono zenbakia: 650 27 48 80.

**Furgonetarako aulkia.** Vw california T5 furgonetaren aulki birakaria salgai. 605 76 07 59 edo 618 72 68 34.

**Renault camper.** Renault Master. 150 zaldi potentzia. 2007koa. 32.172 km. Oso ondo zaindua. Luzera 5,45. Zabalera 1,99. Altuera 2,70sintermovil-ek eginiko ekipamendua. sei lagunek bidaiatzeko, 4 lagunek lo egiteko. Sukaldea, hozkailua, komuna, dutxa, berogailua, toldoa.. Kabinan gehigarri guztiak ditu (aire girotua, airbag-a..). Ander 699 33 71 60

**CSR ona sport 125-eko motorra salgai.** Csr ona sport edition motorra salgai. Itv-a pasa berria. Beti garajean gordea. Gorri kolorekoa. Zilindrada aldaketagatik saltzen da. 950 euro. Ikustea pena merezi du. Deitu 686 89 77 32zenbakira

**Yamaha jog scooter bat salgai.** Yamaha jog motorra salgai. 2.000 km. lata pasatuta. Ezer aldatu barik, dena originala. Beti egon da garajean. stratokaster@gmail.com Deitu 650 17 22 85 zenbakira.

## 7. ANIMALIAK

### 701. SALDU

**Astoa salgai.** Urte biko asto arra, etxean jaio eta hazitakoa. Txipa jarrita. 656 77 29 94

**Idisko bat salgai.** Mallabian, piriniar arrazako hasitarako idisko bat salgai. Deitu 606 70 91 18 telefonora.

**Setter ingelesa.** 6 urtekoa. Oilagor eta galeperrak ehizatzeko. Saldu beharra dugu, ezin dugulako zaindu. Oso merke. 649 84 67 09

**Untxiak salgai.** Untxiak salgai, handiak. 2 eta 3 hilabete arteko untxiak. Grisak eta marroiak. Aita 8 kilo ditu eta amek 5 eta 6 kilo. Deitu 19:00etatik 21:00etara. Harremanetan jartzeko telefono zenbakia: 94-621 82 57

### 704. BESTELAKOAK

**Arratoi txakurra.** galdu zen otsail hasieran Elosu inguruan. Arra da, zuri-marroia, eta bi lepokorekin. Batean txintxarria dauka zintzilik. "Argi" izenari erantzuten dio. Aurkitu edo ikusi baduzu, deitu zenbaki honetara, mesedez. Kontxi.630 62 15 97.

**Katu eme txuria galdu da Aramaion.** Ikusi edo aurkitu baduzu mesedez deitu telefono hauetara. Eskerrik asko. Harremanetarako deitu 699 40 73 35 edo 669 15 36 58 telefono zenbakietara.

**Katuak eman Gasteizen.** Berri onak ditugu: katu batzuk jada babesetxea daukate jada eta ziur aski laster adoptatuko dituzte; zeuk ere katutxoa har edo harreran eduki dezakezu, hurrengoa izango zara? gure jarduera ezagutzeko hemen aurkituko gaituzu: www.esperanzafelina.com edo 650-80 76 72 telefonoan. Hileko lehenengo larunbateetann Gasteizko merkatuan gaude, alde zaharrean. Erdu!

**Txakurrak emateko.** Txakurtegi bat itxi dute eta inork ez baditu hartzen bertako txakurrak sakrifikatuko dituzte. Deitu 629 27 82 38 edo 629 27 82 39 telefono zenbakietara.

## 8. DENETARIK

### 801. SALDU

**Ekipaje kutxa.** Zafira kotxe gainean eramateko, erabili gabeko ekipaje kutxa salgai. 50 euro.692 70 42 71

**Furgonetarako aulkia.** VW California T5 furgonetaren auki birakaria salgai.Deitu 605 76 07 59 edo 618 72 68 34 telkefono zenbakira.

**Kafe makina.** Nespresso kafe makina. "Essenza Delonghi automatica" modeloa. Beltza eta zilar kolorekoa. Berria. Abendura arteko bermearekin. Dendan 149 euro balio du eta nik 80 euroan saltzen dut.639 29 40 11 edo 943 79 81 19

**Karateko** kaskoa eta babesgarriak salgai. Homologatuak. M neurrikoak. 80 euro.Deitu 690 22 05 56 telefonora.

**Labeak.** Bigarren eskuko labe eta mikro-uhin labea dauzkat salgai. 6 urte baino ez daukate eta berri-berri daude. Materiala: altzairu erdoilgaitza. Candy etxekoak. Enkastragarriak dira. Labea: 200 euro. Mikro-uhin labea: 125 euro. Sukaldatzeko plantxa elektrikoa opari.Kontaktua:653 01 54 11

**Mobil Homea.** Santo Domingo de la Calzadan (Errioxa) dagoen mobil homea salgai. Ba&ntil-de;ares kanpinean. Egoera onean dago. Interesatuok deitu zenbaki honetara:635 70 66 02

**Ordenagailu eramangarria eta home cinema** salgai. Interesatuok deitu zenbaki honetara:943 79 60 89

**Umeendako kapazoa.** Oso egoera onean dagoen umeendako kapazoa eta aulkia. Arrue Derby modeloa. 180 euro. Zakua opari. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 652 74 85 82

**Xbox + kinect.** Adventure jokoarekin, salgai. Kutxatik atera barik. 260 euro. Interesatuok deitu zenbaki honetara:649 77 74 60

### 806. GALDU

**Baserritar mandarra Altsasun.** Baserritar traje bateko mandarra galdu zen otsailaren 5ean, gauean, Altsasun. Harizkoa eta beltza da. Topatu duenak hots egin dezala 948-56 38 72 telefonora.

**Egurrezko makila.** Arrasaten aratuzte gauean egurrezko makila metalezko puntaduna galdu neun Ekaitz eta Ilutz tabernen hartean . Norbaitek aurkitu badu dei dezala 667 95 73 16 telefono zenbakira.

**Erloju beltz bat galdu dut.** Swatch markako erloju beltz bat galdu zait lasarteko polikiroldegi inguruan. Jaso duen pertsonari bueltatzeak eskertuko nioke, opari bat zen eta. Eskerrik asko. Mikel 647995050 (mikelgnieto@terra.es)

**Kartera gorria galdu da.** Urtarrilak 9 eguerdian kartera gorri txiki bat galdu zen, ametsa taberna edo inguruetan. Diru dexenterekin. Mesedez, deitu 618049662ra.

**Giltza sorta galdu Altsasun.** Otsailaren 5ean giltza sorta bat galdu zen altsasun. Aurkitzen duenak, mesedez, Guaixen utz dezala.

**Patinete urdin argia galdu da.** Aretxabaletan, araba ibilbidean dagoen plazan. 618-49 28 56

**Patinetea.** Otsailaren 25 edo 26an Aretxabaletako Ibarra futbol zelaitik patinete gris eta urdina hartu zuen norbaitek. Mesedez, eraman zuenak udaletxean utzi edo telefono zenbaki honetara dei dezala: 943 79 85 65 .

**Jertsea.** Urtarrilaren 5ean Zumaian parrandan volcom markako jertse bat galdu nuen, marra urdin eta beltz horizontalak dazka tono diferentetan, baten batek bilau baldin ba du deitu zenbaki honetara 676 744 052.

**Txamarra Oñatin.** Ternua etxeko txamarra beltz bat galdu da Oñatin, otsailaren 13 edo 14an. 10 neurrikoa. Norbaitek aurkitu badu, deitu dezala 678 37 85 42 telefono zenbakira.

**Txamarra eta giltzak galdu.** Otsailaren 5etik 6rako gauean, ganbara tabernan, norbaitek txamarra beltz bat (marra zuriekin) hartu zuen konfusioz. Bertan giltza batzuk zeuden. Eskertuko genuke telefono zenbakia hauetara deituko balu, txamarren aldaketa eta giltzak jasotzeko asmoarekin. 675-00 95 11 / 688-64 30 92

### 804. HARTU

**Ordenagailuarendako pantaila hartu.** Pantaila emateko moduan bazaude, guk gustura hartuko genuke. 635-20 18 56

### 807. AURKITU

**Haurren betaurrekoak aurkitu dira.** Haurren betaurrekoak aurkitu dira Altsasuko Zumalakarregi plazan. Altsasuko udaletxean daude.

**Haurren berokia Altsasun.** 8 urteko beroki beltz bat topatu zen altsasun santa ageda egunean. Guaixeko bulegotik pasa behar da jasotzera.

**Giltza batzuk aurkitu ditut.** Giltza batzuk aurkitu ditut santutegia baino apur bat beherago. Bihotz formadun giltzatako bat dauka, gorria eta cuore hitza zuriz idatzita. Harremanetan jartzeko deitu telefono zenbaki honetara: 617-81 54 22

**Pesa bizkaia txartela.** Berrizen otsailaren 4an pesa bizkaia txartel bat agertu zen izaro ziarsoloren izenean, berrizko kiroldegian dago.

## 9. HARREMANAK

### 902. HARREMANAK

**Emakume laztantxoaren billa.** Kaixo! hitzegitea (euskeraz edota erderaz), txango kulturalak, musika, bizikleta, zine-antzerkia, masajea, natura, etabar, gustoko dituen donostiako gizon atsegina, antzeko emakume laztantxoa ezagutu nahiko luke. Abisuak: nire euskerazko maila ez da oso altua, gaztelaniaz hobeto moldatzen naiz. Pilotan jokatzen zale izandakoa orain dela bost hilabete eskubiko aldakatik(cadera) operatuta nago baina ez da nabaritzen. Gustatuko litzaidake udaberrirako jantzi berriak erostea... 616-12 03 10

### 904. BESTELAKOAK

**Autoa partekatu.** Ikaslea gertu Bergara-Donostia-Bergara ibilbidean autoa partekatzeko. Ordutegi malgua. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 629 06 93 60

**Autoa partekatu (Beasain -Miramon-Beasain).** Beasaindik, ordiziatik... Miramonera egunero joateko autoa partekatu nahiko nuke. 7:30etan miramonen egon behar dut eta 15:30etan bueltatzen naiz etxera.

**Sarriguren - comarca II.** Autorik gabeko mutil bat naiz. Sarriguren - comarca ii industrialdea ibilbidea egin beharko nuke lan-egunetan, autoz. 08:30 aldera atera / 17:30ean bueltatu. Gastuak partekatzeko. 670-96 96 56 - alfonso

ARAMBURU
Etxeen administrazioa
Higiezinen kudeaketa
943-65 17 13 / 664-37 25 60
www.aramburunet.net

SALGAI
- **Etxebizitza.** Amazabal kalean, igogailuarekin, Leitzan,Nafarroa.
- **Lokala.** Foruen kalean, Tolosan.
- **Garaje itxiak eta irekiak.** Tolosa, Ibarra eta Iruran.

ALOKATZEKO
- **Etxeak.** San Frantzisko kalean, Paper kalean, Herreros kalean eta Agintari kalean, Tolosan.
- **Garajeak.** Larramendin, Tolosan.
- **Txokoa.** Tximinia, komuna, ohe bikoitza, ordezko ohea eta terraza, Baraibarren.
- **Lokala** Iurre auzoan, Tolosan.

www.inmosalbide.com
Salbide
SALBIDE
Higiezinen zerbitzuak

**Aia.** Eraikuntza berria. 3 logela, 2 bainugela eta 127 m2ko terraza. 46.588.000 pezeta.
**Aizarnazabal.** 3 logelako etxebizitza. Oso prezio onean. 28.500.000 pezeta.
**Bergara**. San Lorentzo kalean. 67 m2 etxebizitza 35 m2ko etxabe estalia. Eraikuntza berria. Estreinatzeko. Promotoretik salneurri berezia. 41.000.000 pezeta.
**Getaria.** Herrerieta kalean. 3 logela eta 2 bainugelako etxebizitza. Trastelekuarekin. Egoera onean. 41.000.000 pezeta.
**Zarautz.** Langako plaza (Salbiden). 2 logela eta bainugela bat. Guztiz berritua. 45.000.000 pezeta.
**Zarautz.** Vista Alegren. 3 logela, bainugela eta aseoa. Terraza handia hegoaldera. Bista ederrak. 50.000.000 pezeta.
**Zarautz.** Erdialdean. 2 logelako atikoa erabat berritua. Igogailua eta gasa. 51.500.000 pezeta
**Zarautz.** 4. pisua igogailurik gabe. 2 logela. Berritu beharra dago. 35.000.000 pezeta.
**Zestoa.** Erdialdean. Etxe bifamiliar batean, 3 logelako etxebizitza. 31.000.000 pezeta.

Bizkaia kalea, 6 • 20800 Zarautz
Telef.: 943-01 07 00 • Mug.: 665- 71 85 96

Etxebila higiezinak
943-44 61 66

SALGAI
**AMARA** Altua. Bistak ibaira. 3 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Terraza. 49.700.000 pta
**AMARA** 3 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Altua. Balkoia. 44.000.000 pta
**AMARA** 3 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Terraza. 48.250.000 pta
**AMARA** Ferrerias. Logela, sukaldea, egongela, bainugela. Sartzeko. 44.700.000 pta
**GROS** Apartamentu oso polita. Logela-egongela-sukaldea, bainugela. 28.000.000 pta
**AIETE** Duplexa oso polita. 2 logela, 2 egongela, sukaldea, bainugela. Balkoiak. 70.500.000 pta
**ERDIALDEA**. Urbieta. Logela, sukaldea, egongela, bainugela. Balkoia. 43.500.000 pta
**EGIA** Karmengo Ama. Igogailua. 2 logela, sukaldea, bainugela. Berritua. 41.500.000 pta
**ANTIGUO** Benta Berri. 90m2. Altua. Terraza. Garajea, trasteroa. Polita.
**ANTIGUO** Matia. 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Balkoia. Igogailua. 47.990.000 pta
**MARTUTENE** 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Berritua. Kanpora. Parkina. 28.990.000 pta
**HERRERA** 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Kanpora. Berritua. 36.200.000 pta
**ALTZA** 2Logela, egongela, sukaldea, bainugela. Trastelekua. Igogailua. 24.500.000 pta
**ALTZA** 108m2. 4 logela, sukaldea, egongela, 2 bainugela. 30m2tako terraza. 46.500.000 pta
**USURBIL** 100m2. 3 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Tximeneta. Jardina. Parkina. 43.500.000 pta
**PASAI SAN JUAN** 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Berritua. 23.800.000 pta
**ERRENTERIA** Erdialdean. 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Terraza. 26.900.000 pta
**LEZO** Eraikuntza berria. 2 eta 3 logeletakoak. Terraza. Garajea. 280.000€ tik gora.

ALOKAIRUAN
**AMARA ZAHARRA** Apartamentu oso polita. Kanpora. 775€
**AMARA ZAHARRA** Salud. 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Igogailua. 800€
**ALDE ZAHARRA** Konstituzio plaza. Apartamentu altua. 750€
**AMARA** 3 logela, sukaldea, egongela, 2 bainugela. Balkoia. 900€
**BIDEBIETA** 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Balkoia. 750€
**GROS** Iparragirre. 2 logela, sukaldea, egongela handia, bainugela. 970€

www.etxebila.net
Felipe IV etorb. 4 - DONOSTIA

INMOKOSTA
INMOBILIARIA
SALDU

**GETARIA**. Erdigunean. Zeharo eraberritua. 2 gela, sukalde-saloia, bainugela, trastelekua, balkoia. Dena kanpora begira eta eguzkitsua. **204.345 euro (34 milioi)**.
**ZARAUTZ.** ZIGORDIA kalea. 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela eta balkoia. **276.470 euro (46 milioi)**.
**ZARAUTZ.** VISTA ALEGRE. 3 gela, sukaldea, bainugela, saloia. **211.490 euro (48.5 milioi)**.
**ZARAUTZ.** IXPILLA. 2 gela, saloi-jantokia, sukalde hornitua, bainugela. Trastelekua. Txukun-txukuna. Aitzakiarik gabea.
**ZARAUTZ.** ARITZBATALDE. 2 gela, saloia, sukalde hornitua, 2 bainugela, balkoia. Trastelekua. Txukun-txukuna. Aitzakiarik gabea.
**ZARAUTZ.** ERDIALDEAN. 85m2. 2 logela, egongela ederra, sukalde hornitua, despentsa, bainua. Igogailua.
**ZARAUTZ.** MENDILAUTA. 3 logela, egongela bista ederrekin, sukalde hornitua, 2 bainu, balkoia, garajea. Aurretiko bistak.
**ZARAUTZ.** ERDIALDEAN.100 m2. 3 edo 4 logela aukeran. Igogailua. **390.660 euro (65 milioi)**
**ORIO.** ERAIKUNTZA BERRIA. 2 gela, saloia, sukalde hornitua, bainugela, komuna, dena kanpora begira eta eguzkitsua. Garajea eta trastelekua.
**ORIO.** Familia bakarreko etxe zoragarria. 3 solairu. 130m2 eta atikoa. Lorategia eta terrazak. Txukun-txukuna. Aitzakiarik gabea.
**ZESTOA** 3 gela, saloia, sukaldea, bainugela, balkoia. Trastelekua. Igogailua. 198.330 euro
**GARAJE SALMENTA.** MENDILAUTA: GARAJE ITXIA. LEKU BAT. ERDIGUNEAN: BIKOITZA.

943-83 55 18
www.inmokosta.com
Orape, 20 - behea • 20800 Zarautz

# Ugaritu egin dira salaketak posten hartzaile multipleak erakusteagatik

▶ Lege berriarekin, isunak 900 eta 600.000 euro artekoak dira

**JON BEREZIBAR** | ARRASATE

Pertsona sorta bati e-posta bidali eta hartzailearen helbideaz gain gainontzeko jasotzaileen helbideak ere agerian uztea Datuen Babeserako Legearen kontra doa; eta geroago eta salaketa gehiago dago gai honen inguruan. Zigorrak, gainera, gogorragoak dira orain. Espainiako Datuen Babeserako Agentziak emandako datuen arabera, 24 izan ziren 2010ean jaso zituzten kexak, baina aurten dagoeneko bederatzi jaso dituzte.

Datuen Babeserako Lege organikoak zehazten du 10. artikuluan hartzaile multipleak ez ezkutatzeak (CCO delako eremua agerian lagatzea, alegia) komunikazioen sekretutasuna urratzen duela. Posta elektronikoa datu pertsonal bezala hartzen da 1999. urteaz geroztik.

**Zigorrak gogortu**

Joan den zapatua ezkero, baina, Ekonomia Sostengarriaren Legea dela eta, zigorrak gogortu egin dituzte. Aurrerantzean, urraketa arinek 900 eta 40.000 euro arteko isunak izango dituzte eta larrienak 600.000 eurora irits daitezke, ze lege berriak hauste larritzat jotzen baitu sekretutasuna ez gordetzea.

Iaz aztertu zituzten 24 salaketetatik, lau artxibatu egin zituzten, lege-urraketarik egon ez zela ikusita. Baina sei salaketaren ondorioz, isuna ipini zuten, eta beste bost oraindik erabakitzeko daude.

Gainerako kasu guztietan, tramiteak hasi eta gero, ez zela urraketarik gertatu erabaki zuten.

# 'Eroski Malaga' eta emakume biluziak, Google-en 'bonba' baten

'Eroski Malaga' bilaketaren emaitza kontaktuen orri batekin lotu dute

**J.B.** | ARRASATE

Google-en *Eroski Malaga* terminoak bilatuz gero, azken egunetan irudi pornografikoak agertu dira. *Google Bombing* izeneko fenomenoaren biktima izan da Eroski; hau da, termino horiek eta kontaktuen orrialde bat lotu egin dituzte bilaketak emaitza hori eman dezan. Eroskitik bertatik esan dute neurriak hartzen dabiltzala "mota horretako edukiak" euren "markarekin lotu ez daitezen".



Irudien bilaketak eman izan duen emaitza. | JON BEREZIBAR

**'Txantxa' ezaguna**

*Google Bombing* fenomenoa ez da berria, inondik inora, baina oraingoan Eroskiri tokatu zaio txantxen jomuga izatea. Aurretik oso ezagunak izan ziren zenbait politikari ezagunen izenak bilatzailean idatzi eta *Miserable, Payaso* edota *Mentiroso* moduko emaitzak ematea. Eroskiri antzeko trikimailua egin diote, baina *Eroski Malaga* terminoekin kontaktu orri baterako lotura estekatu dute eta irudien bilaketaren emaitzetan irudi esplizituak agertu dira. Orain, berria zabaldu denez, bilaketa horrek erreferentzia gehiago ditu albisteetara, kontaktuen orri horretara baino. Twitter bidez bolobolo zabaldu da gaia eta *trending topic* izan da.

**Algoritmoarekin jolastuz**

Google-en bilaketa algoritmoarekin jolastuz lortzen da hori, PageRank delakoarekin. Google-ek webguneak emaitzen zerrendan ordenatzeko erabiltzen duen metodoa da hori. Horren arabera, webgune bati beste webgune ezagun batzuek erreferentzia asko egiten badizkiote, zerrenda horretan gorago egongo da. Nola lor daiteke hori? Goian kokatu gura den orri horretara ahalik eta orri gehienetan loturak sartuz. Lotura horietan gura diren bilaketa termino horiek estekatzen dira. Eroskiren kasu honetan, ehunka orritan *Eroski Malaga* hitzak kontaktu orri horrekin lotu dituzte. Azken astean inork Malagako Eroski supermerkatuaren irudiak bilatu baditu, biluzik dauden emakumeen irudiak aurkitu ditu trikimailu horri esker.

## Spotify zerbitzuak jadanik milioi bat ordainpeko harpidedun dauzka

**J.B.** | ARRASATE

Milioi bat ordainpeko erabiltzaileen marka gainditu berri du Spotify zerbitzuakk. Orain bi urte bi milioi ziren erabiltzaileak guztira –doako harpidedunak zein ordaintzen dutenak– eta orain kopuru hori soil-soilik ordainpekoena da; streaming zerbitzuaren errentagarritasuna argi geratu da, hortaz, agi denez.

*On line* musika zerbitzuaren hazkundea geldiezina izan da azken urteetan eta hala egiten jarraituko du mundu osoan. Itxura guztien arabera, aurten gaindituko duen beste marka orotara 10 milioi erabiltzaile izatearena izango da.

**Estatu Batuetan sartzear**

Uneotan Spotifyk Estatu Batuetako diskoetxe nagusiekin hitzarmenak ixten dihardu, zerbitzua han aurki abiatzeko helburuarekin. Zailtasunak zailtasun –diskoetxe amerikarrek jarrera nahiko zurruna dute-eta streamingaren aurrean–, esamesek diote 100 milioi dolar jaso dituela dagoeneko Suediako konpainiak inbertitzaileen partetik. Oraingoz, jakin den gauza bakarra izan da dagoeneko EMI eta Sony etxeekin egin dituztela hitzarmenak. Hala ere, gakoa Universal Music-ekin legoke eta ostean Warner sartuko litzateke. iTunes-en aurrekariak, baina, ez dira onak.

## SMS kodeek ordezkatuko dituzte zigiluak Danimarkan eta Suedian

**J.B.** | ARRASATE

Posta tradizionalaren garapenean beste mugarri bat izan daitekeen zerbitzua abiatzekotan dira Suediako eta Danimarkako gobernuak. Gutunetako zigiluak kodeengatik ordezkatu ahalko dira eta kode horiek SMS bitartez eskuratu ahal izango dira. Metodoa, hasiera baten, eta iragarri dutenez, aski erraza da: SMS bitartez eskuratutako kode hori bera eskuz idatziko litzakete gutunazalean, eta horrekin nahikoa litzakete. Ordainketa SMS horretan egongo litzateke. Zerbitzu hori aurten abiatuko dutela ofizial egin du Suediako Postak eta antzeko asmotan legoke Danimarka ere. Hala ere, arduradunek ez dute ezer aurreratu gura eta azaleko azalpenak eman dituzte, oraingoz.

**Esamesak**

Sistema berria indarrean ezartzen lehena Danimarka izango litzateke, zurrumurru guztien arabera, eta apirilaren lehenengo egunean liratekе hastekoak, gainera.

Iruzur egiteko erraztasuna aipatu da sistema berriaren kritikoen artean, baina erakundeetatik diote posta tradizionalak besteko arriskua duela SMS bidezkoak. Bi kilo baino gutxiagoko gutun eta paketeentzat izango litzateke.

## Ekonomia Ministerioa hackeatu dute Frantzian

**J.B.** | ARRASATE

Frantziako Ekonomia eta Finantza Ministerioko 150 ordenagailutan barneratzea lortu zuten joandako abenduan "piratek", ministerioak orain-tsu jakinarazitakoaren arabera. Budget ministroak atzo iluntzean telebistan emaniko azalpenen arabera, "hain modu ikusgarrian eraso egiten dieten lehen aldia" izan da eta, antza, piratek, gainera, Troiako zaldi sinple baten bidez lortu dute sarbidea. 30 laguneko taldea dabil arazoa konpondu eta kaltetutako artxiboak konpondu guran, eta, diotenez, beste ministerio batzuk erasotzen ere saiatu ziren, baina ez ei zuten lortu, iturri ofizialen arabera.

**Txinatik**

*Paris Match* astekari ezagunak eman du erasoaren berri, baina egileen informaziorik ez dute zabaldu, oraindik orain. Ministeriotik argitu dute norbanakoen daturik ez dagoela arriskuan, eta, gehienbat, aurki egitekoa den G-20aren bilerari buruzko agiriak atera dituztela. *Paris-Match*-ek zabaldutakoaren arabera, web txinatarretatik zuzendu da erasoa, ministerioko goi-kargudun batek esan dienez, eta susmoa dute 150 funtzionario espiatzen saiatu direla.

## Chrome nabigatzaile berria kalean, %66 arinagoa

**J. B.** | ARRASATE

Chromeren 10. bertsioa da berriena; interfaze berri eta intuitiboagoarekin eta aurrekoa baino %66 arinagoa errendimenduari dagokionez. Abiaduraz gain, interfazearen aldaketa da berritasunik deigarriena, erabiltzeko errazagoa. Google-ekoen esanetan, hasiera-orria erraz aldatu ahalko da eta beste nabigatzaileetatik markatzaileak inportatzea ere erraztu egin dute. Horretaz gain, seguruagoa dela ere esan dute, batez ere, Windows Vista eta bertsio berriagoen erabiltzaileentzat.

**Firefox**

Firefox nabigatzaileak ere aurki ipiniko du eskuragarri bertsio berria. Diseinuz minimalistagoa izango da eta gailu ezberdinen artean sinkronizatzeko aukera emango du gailu berriak.

## TELE-BEGI



AMAIA PAVON
'twitter.com/amaiapavon'

# Martxoaren 8a

Pasa den astean ospatu zen Martxoaren 8a; 100. urteurrenez.

100 urte luze pasa diren honetan, emakumearen borrokak egun ekarri duen egoeraz hausnartu dute Berria telebistako *Esan ahala* saioan. Ordu erdiko elkarrizketan lanketa sakona egiteko asti handirik egon ez den arren, ikuspegi ezohikoa eskaini digute Josebe Iturriotz eta Miren Aranguren elkarrizketatuek.

Estatu eta autonomia mailako hedabideetan ikusi genituen emakume suhiltzaileak, poliziak… aldarrikatzen emakumearen berdintasun desiratu eta lortua. Horren aurka, Iturriotz eta Arangurenek itxurazko berdintasunaren gaineko gogoetak plazaratu zituzten, itxurazkotasun horretan instituzioek duten pasibotasuna behin eta berriz aldarrikatuz.

Josebek bota zuen perla: "Egun, emakumeak dira inoiz baino emakumeagoak eta gizonezkoak inoiz baino gizonagoak". Gizarte-gaiak bipolarizatzeko dagoen betidaniko obsesioan, Iturriotzek nabarmendu zuen hedabideetan emakumearen eta gizonezkoaren rol eta estereotipoak muturrera eraman direla eta gaztetxoengan eragin ikaragarria duela, emakumearen askatasun eta berdintasunetik urruti.

## ASTEA GOIENAN

### GOIENA TELEBISTA

#### ASTELEHENA, 14



**Mendi bizikleta txapelketa**

22:30

Euskadiko BTT opena Aramaion hasi zen domekan. Bada, horri buruzkoak jasoko ditugu *Harmailatik* saioan, besteak beste.

**13:15** Marrazki bizidunak
**13:35** Kantari
**14:10** Berbetan
**14:45** Berriak
**15:10** Nere herrie
**16:00** Ikusmira
**16:25** Gipuzkoa kultura
**16:45** Berriak
**17:15** Marrazki bizidunak
**17:40** Jaiak: Aratusteak 2011
**18:25** Marrazki bizidunak
**18:45** Berriak
**19:15** Kantari
**19:45** Goiena Magazinea
**20:45** Harmailatik
**21:30** Goiena Magazinea
**22:30** Harmailatik
**23:15** Gipuzkoa kultura
**23:45** Goiena Magazinea

#### MARTITZENA, 15




**'Erremeixuak' ikus-entzunezkoa**

20:45

*Erremeixuak: osasuna munduko ondasuna* lana eskainiko dugu; sendabelar eta bestelako erremedioei buruzko saioa.

**13:15** Marrazki bizidunak
**13:45** Kantari
**14:15** Onein
**14:45** Berriak
**15:15** Harmailatik
**16:00** Kulturzulo
**16:15** 28.Klip
**16:45** Berriak
**17:15** Marrazki bizidunak
**17:45** Harmailatik
**18:25** Marrazki bizidunak
**18:45** Berriak
**19:15** Kantari
**19:45** Goiena Magazinea
**20:45** Erremeixuak
**21:20** Goiena Magazinea
**22:30** Sakonduz
**23:00** Goiena Magazinea

#### EGUAZTENA, 16



**Kirol egokitua mintzagai**

19:45

Kirol egokitua lantzen duen *Dortoka* taldea gehiago ezagutuko dugu *Magazinea*-n Arritxu Barruso eta Txomin Madinarekin.

**13:15** Marrazki bizidunak
**13:35** Kantari
**14:00** Harmailatik
**14:45** Berriak
**15:15** Onein
**15:45** Bi tartean
**16:30** Leku txiki bat
**16:45** Berriak
**17:10** Marrazki bizidunak
**17:30** Gabiriako Rallya
**18:00** Berbetan
**18:30** Marrazki bizidunak
**18:45** Berriak
**19:15** Kantari
**19:45** Goiena Magazinea
**20:45** Tertulia
**21:45** Goiena Magazinea
**22:45** Tertulia
**23:45** Nere herrie

#### EGUENA, 17




**'Gipuzkoa kultura'**

22:!5

dFERIA jaialdia dantza topaketa eta *KKnull and the noiser* taldearen kontzertuari buruzkoak jasoko ditugu, esaterako.

**13:15** Marrazki bizidunak
**13:45** Kantari
**14:15** Onein
**14:45** Berriak
**15:10** Sakonduz
**15:40** Bi tartean
**16:25** Ikusmira
**16:45** Berriak
**17:15** Marrazki bizidunak
**17:45** Ipupomamua
**18:15** Marrazki bizidunak
**18:45** Berriak
**19:15** Kantari
**19:45** Goiena Magazinea
**20:45** Sakonduz
**21:15** Goiena Magazinea
**22:15** Gipuzkoa kultura
**22:45** Erremeixuak
**23:45** Goiena Magazinea

#### EGUBAKOITZA, 18



**Eñaut Elorrietari elkarrizketa**

15:45

Eñaut Elorrieta elkarrizketatuko dute pailazoek *Leku txiki bat* saioan. Programa hori Hamaika Telebistak ekoizten du.

**13:15** Marrazki bizidunak
**13:45** Kantari
**14:15** Onein
**14:45** Berriak
**15:15** Ur eta lur
**15:45** Leku txiki bat
**16:15** Erremeixuak
**16:45** Berriak
**17:15** Marrazki bizidunak
**17:45** Gipuzkoa kultura
**18:15** Ipupomamua
**18:45** Berriak
**19:15** Kantari
**19:45** Goiena Magazinea
**20:45** Gipuzkoa kultura
**21:15** Goiena Magazinea
**22:15** Gabiriako Rallya
**23:45** Goiena Magazinea

### ARRASATE IRRATIA

**Lortu 'Anaki' haur antzerkirako sarrerak Arrasate Irratiarekin**

Logela Multimediaren *Anaki* haur antzerkia martxoaren 19an izango da Amaia antzokian, 17:00etan. Ikuskizunera joan nahi baduzu, parte hartu zozketan. Horretarako, bi bide daude: 943 25 05 05 telefonora deituta edo *irratia@goiena.com* helbidera idatzita.

**'Igo autobusera!' irratsaioa zuzenean 10:30ean**

*Igo autobusera!* irratsaioa astelehenetik egubakoitzera zuzenean entzun dezakezue, 10:30etik 11:30ak bitartean. Edozelan ere, 107.7arekin bat egiteko beste aukera batzuk ere badituzue: 14:00etan, 17:00etan, 19:00etan eta 22:00etan, hain justu ere.

**Joxe Landa eguraldi adituaren iragarpenak egunero 107.7an**

Datozen egunotako eguradia zein izango den jakin nahi baduzue, Arrasate Irratian Joxe Landa eguraldi adituak emango dizue horren berri. Egunero egiten digu eguraldi iragarpena Landak eta asteburuan-edo kanpora joateko intentzioarekin bazaudete, enkarguzko iragarpenak ere egingo dizkizue.

## TELE-ALBISTEAK

# 'Hamaseigarrenean aidanez' pelikula ikusgai

Zinema-tertuliaren ostean, Anjel Lertxundik zuzendutako filma eskainiko dugu telebistan

A.T. | ARRASATE

Txomin Madina aurkezlearen gidaritzapean, eguazteneko *Tertulia* saioan Imanol Gallego eta Alex Silva izango dira.

Hitz egingo dute aurtengo *Huhezinema* jaialdiari buruz. Laugarren edizioa prestatzen dabiltza Huheziko Ikus-Entzunezko Komunikazioko irakasle eta ikasle talde bat eta lanak aurkezteko epea zabalik dago hilaren 25era arte. Jaialdia, berriz, maiatzaren 11n egingo da. Hilabete honetako zinema estreinaldiak ere hizpide izango dira saioan.

**'Hamaseigarrenean aidanez'**

*Tertulia* amaitzeko, *Hamaseigarrenean aidanez* Anjel Lertxundik zuzendutako filmaren nondik norakoak kontatuko dizkigute. Pelikula Lertxundiren beraren eleberri baten dago oinarrituta eta pantaila handira 1985ean eraman zuen. Borobiltzeko, bukaeran Lertxundiren filma ikusi ahal izango da Goiena telebistan eguaztenean, 20:45ean hasita.



Anjel Lertxundi zuzendaria. | GOIENA

# Goiena telebista eta Arrasate Irratia, sarean

A.T. | ARRASATE

Goiena telebistak eta Arrasate Irratiak badute euren lekua Interneten ere. Zehazki esateko, *Goiena.net* atarian telebistak bere atala dauka eta Arrasate Irratia zuzenean entzuteko aukera ere eskaintzen du dagoeneko.

Horrela, gure bailaratik kanpo daudenei ere aukera ematen diegu Goiena telebistako programazioaz disfrutatzeko eta Arrasate Irratiaz belarriak gozatzeko. Ikus-entzuleak dauden tokian egonda ere, gure telebistan eta irratian jorratzen ari garen albisteen berri jasoko dute eta jorratutako gaiei buruzkoak jasoko dituzte.

**Telebista**

*Ustream* bitartez, Goiena telebista momentuan emititzen ari dena Internet bidez ikusteko aukera dago. Gainera, askotariko bideoak ageri dira telebista atalean: bideo-iritziak, albisteak, solasaldiak…




*Magazinea* saioa. | GOIENA

**Irratia**

Arrasate Irratia Internet bidez entzuteko aukera ere badaukagu hemendik aurrera. Modu horretara, entzuleak irratiarekin bat egiteko beste modu bat izango du.

# Astelehenetik egubakoitzera 'Magazinea' zuzenean

AMAIA TXINTXURRETA | ARRASATE

Aste honetan ere *Magazinea* saioa zuzenean eskainiko dugu astelehenetik egubakoitzera bitartean, 19:45ean.

Astelehenean, besteak beste, mugimendu feministari buruz hitz egitera etorriko dira Edurne Epelde eta Miren Aranguren; martitzenean, berriz, Mikel Irizar Kutxa fundazioko zuzendari-albokoa izango dugu elkarrizketan; eguaztenean, kirol egokitua izango dugu mintzagai; eguenean, ostera, lunbalgiari buruz hitz egingo dugu Aitor Odriozola fisioterapeutarekin; eta egubakoitzean, kultura kontuak jorratuko ditugu.

Astelehenetik eguaztenera *It-puntua* ere izango dugu; eta eguenean, berriz, lehiaketa.

# ZORION AGURRAK



BERGARA
**Ion Lazkano Palacios**
Martxoaren 19an, 6 urte. Zorionak, mutikote. Sei muxu handi-handiak etxeko guztien partetik.



BERGARA
**Maitane Agiriano Carrion**
Martxoaren 18an, 2 urte. Familiaren eta bereziki Ionen partetik.



BERGARA
**M. Antonia eta Unai Irizar**
Zorionak, bikote! Etxekoen partetik. Unaiek 9 urte, martxoaren 18an eta bere amamak martxoaren 20an. Ondo pasatu eta muxu handi bat.



ANTZUOLA
**Jone Garitano Ruiz**
Martxoaren 17an, 7 urte. Zorionak, sorgintxua! Ondo pasatu zure egunean eta muxu handi bat etxekoen partetik.



ARETXABALETA
**Karmele Untzueta**
Martxoaren 12an. Zorionak, amama eta ama! Bazkari ederra atzokoa. Amamarik onena zara! Muxu handi bat etxekoen partetik.



ARRASATE
**Maren Carmen Joosten**
Martxoaren 17an, 6 urte. Zorionak etxekoen partetik.



ARRASATE
**Manolo Parra eta Eli Mendizabal**
Martxoaren 17an, 45 urte. Zorionak ,bikote! Ederto pasatu eguna. Pintxopotean erronda bat zuen kontu hartuko dugu koadrilla guztiak. Muxu goxo potoloak laguntxo guztien partetik. Patxoak bioi!



ARETXABALETA
**Iratxe Bengoa**
Martxoare 17an, urtebetetzea. Zorionak, Iratxe! Ordua zan zure eguna aillegetako! Aurten eukikou zure tortilla patata on horreitako bat probetako aukeria? Uhmmm... Lankidiak.



ARRASATE
**Lide Ezpeleta Sanpedro**
Martxoaren 16an, 6 urte. Gure etxeko erreginaren seigarren urtebetetzean, zorionak! Oso ondo ibili zure egunean. Aitatxo, amatxo eta Intza.



ARETXABALETA
**Iker Seijo Fernandez**
Martxoaren 16an, 7 urte. Zorionak, maitea! Ondo-ondo pasatu eguna eta muxu mordoa etxeko guztion partetik.



ARRASATE
**Asier Baena Mendizabal**
Martxoaren 15ean, 4 urte. Zorionak, Asier, txapeldun! Oso ondo pasatu egun berezi hau, 4 muxu goxo-goxo eta belarri tirakada handi bat, laguntxo guztien partetik. Ederto ospatu eta patxoak, *guapo*!



ARETXABALETA
**Urko Egia Barandiaran**
Martxoaren 15ean, 6 urte. Zorionak, pirata! Ondo-ondo pasatu eguna eta laztan handi bat etxeko guztion partetik!



OÑATI
**Anne Anduaga Fernandez**
Martxoaren 14an, 6 urte. Zorionak, potxola! Familia guztiaren partetik patxo handi bat eta jarraitu horrelako formala izaten. Oso harro gaude zutaz. Ondo-ondo pasatu eguna zure lagun eta familiakoekin.



OÑATI
**Mattin Garai**
Martxoaren 14an, 4 urte. Zorionak, potxolo, familia guztiaren partetik. Dagoeneko lau urte gure etxeko gizontxuak. Ondo pasatu zure urtebetetze egunian.



ARRASATE
**Maider Olabarria Iturbe**
Martxoaren 14an, 5 urte! Zorionak, laztana, eta urte askotarako. Oso ongi pasatu eguna. Muxu potolo handi bat etxeko guztien partetik.



ARRASATE
**Iban Arroiabe**
Martxoaren 14an, urtebetetzea. Zorionak, Iban! Oso ondo pasatu zure egunean eta merixenda ederra prestatu guretako. Muxu handi bat Anartz, Jon eta batez ere Naiararen partetik.



ARRASATE
**Iker Ullibarrenarana**
Martxoaren 14an, urtebetetzea. Zorionak, Iker! Oso ondo pasatu zure urtebetetze egunian eta opari asko izan. Muxu handi bat Anartz, Jon eta batez ere Ainhoaren partetik.



ARRASATE
**Jon Berezibar Urizar**
Martxoaren 14an, 29 urte. Zorionak Goienako it-boyari! Ondo pasatu zure eguna eta gora bihotzak! Muxu bat sorgiñen partetik...



BERGARA
**Iker Ugarte Gabilondo**
Martxoaren 14an, 9 urte. Zorionak etxekoen partetik.



ARETXABALETA
**Eider Aranegi Leturiaga**
Martxoaren 14an, 7 urte. Zorionak, printzesa! Muxu eta besarkada potolo-potolo bat opa dizute etxeko guztiek, baina bereziki Irati, Haritz eta Oierrek.



OÑATI
**Marta Leturia**
Martxoaren 13an, urtebetetzea. Martirio, zorionak! Oraindik ere gazteklub-eko bazkide zara!



ARRASATE
**Xabier Urtzelai**
Martxoaren 13an, urtebetetzea. Badator udaberria. Hasi mailota prestatzen! Lankideak.



BERGARA
**Julen Arriola Gallastegi**
Martxoaren 12an, 9 urte. Zorionak, txapeldun! Patxo pila bat etxekoen eta, bereziki, amama eta Aneren partetik.



BERGARA
**Uxue Azkarate Unamuno**
Martxoaren 12an, 7 urte. Urte askotarako, printzesa! Etxeko guztien partetik eta, bereziki, Aneren partetik.



OÑATI
**Aintzane Eceolaza**
Martxoaren 11n, 32 urte. Zorionak, guapa, kuadrillakoen partetik. Eguna ondo-ondo pasatu eta igandean ospatuko. Muxu handi bat!



ARRASATE
**Izar Ijurra Goñi**
Martxoaren 11n, 13 urte. Zorionak eta ondo-ondo pasatu zure egunean. Familia eta lagun guztien partetik.



OÑATI
**Amaia Txintxurreta**
Martxoaren 11n, urtebetetzea. Zorionak, Amaia! 23 urtetzar! Lagunen partetik ondo pasatu eguna eta mila muxu!



ARETXABALETA
**Andoitz Iztueta**
Martxoaren 10ean, 33 urte. Zorionak eta urte askotarako! Zerainen txokolate goxo-goxua janez ospatukou danok eguna. Patxo handi bat Atxabaltako familixa danan partetik. Batez be Araitz eta Doltzaren partetik.



ARRASATE
**Ander Monedero**
Martxoaren 10ean, urtebetetzea. Zorionak, *Mone*! Aprobetxatu jaiegunak baina bueltan ez ahaztu hamarretakoa! Lankideak.



ARAMAIO
**Mertxe Alonso Esquina**
Martxoaren 6an, 39 urte. Zorionak, tia Mertxe! Oso ongi pasatu eguna Aretxabaletan, baina mozorrotuta, e? Txokomarrubizko muxu pila-pila patata tortila etxekoen eta, bereziki, zure loba Beñat eta Marenen partetik. Patxoak, *gitana*!



ARETXABALETA
**Ekaitz Biain Gastañaga**
Martxoaren 6an, 6 urte. Zorionak, pirata! Elegante pasau geuen zure egunian. Ondo zaindu hamsterra, e! Aupa Erreala! Aupa UDA! Muxu potoloak zuretzako: June, Malen, Julen, Nagore, Jokin eta Lander.

## Zorionak!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak. Hiru bide dituzu GOIENAren bidez zoriontzeko:

**Internet**
Sar zaitez *goiena.net* atarian eta *Zorion agurra bidali* botoia sakatu. Bete eskatutako datuak eta bertan argitaratuko da zorion agurra. Baita Goiena paperean ere.
**Posta elektronikoa**
Mezu bat bidali *zorionagurrak@goiena.com* helbidera, adieraziz: izen abizenak, herria, urtebetetze data eta nahi duzun testua.
**Ordezkaritzak**
Etor zaitez GOIENAko ordezkaritza batera.

Egubakoitzeko 11:00ak arte jasotako zorion agurrak bakarrik iragarriko ditugu.

Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

## JAIOTAKOAK



**Eider Leturiaga Agiriano**

Eskoriatza 3,850 kilo. Martxoaren 6a. Gurasoak: Lorea eta Jon. Argazkian, umea amarekin.



**Elene Axpe Zubizarreta**

Oñati 3,570 kilo. Martxoaren 3a. Gurasoak: Xabi eta Maite. Argazkian, Ander eta Ion lehengusuekin.



**Lexuri Altube Arkonada**

Oñati 3,220 kilo. Martxoaren 2a. Gurasoak: Jon eta Saioa. Argazkian, Lexuri lotan.



**Lia Saiz Guijarro**

Arrasate 3,370 kilo. Martxoaren 4a. Gurasoak: Elena eta Mikel. Argazkian, umea amarekin.



**Xabat Zillaurren Iria**

Aretxabaleta 3,250 kilo. Martxoaren 6a. Gurasoak: Nagore eta Jokin. Argazkian, umea gurasoekin.



**Nahia Beltza Silbar**

Arrasate 3,300 kilo. Martxoaren 5a. Gurasoak: Adelaida eta Ion. Argazkian, umea sehaskan.



**Jon Royo Lazkano**

Eskoriatza 3,700 kilo. Martxoaren 9a. Gurasoak: Oihana eta Alberto. Argazkian, umea sehaskan.



**Laia Ortiz de Zarate**

Durango 3,400 kilo. Martxoaren 8a. Gurasoak: Jasone eta Egoitz. Argazkian, umea gurasoekin.



**Aner Orobengoa Nevado**

Eskoriatza 3,220 kilo. Martxoaren 8a. Gurasoak: Ana eta Patxi. Argazkian, umea gurasoekin.



**Maider Alonso Santacruz**

Antzuola 2,890 kilo. Martxoaren 8a. Gurasoak: Nerea eta Markos. Argazkian, umea amarekin.



**Ana Sofia Correa Gomez**

Arrasate. Martxoaren 8a. Gurasoak: Sandra Milana eta Jhon Edwuin. Argazkian, umea ama eta amamarekin.



**Naroa Dominguez Cabanillas**

Arrasate 3,200 kilo. Martxoaren 10a. Gurasoak: Iraia eta Jose. Argazkian, umea amarekin.



**Irati Aperribai Mujika**

Bergara 2,975 kilo. Martxoaren 10a. Gurasoak: Maite eta Aitor. Argazkian, Irati izeba Olatzekin.

BABESLEA


Lazarraga 4 OÑATI 943 08 23 32

## DENBORA-PASA

### HITZ GEZIDUNAK




### BILA-BILA 7

Bila itzazu zazpi ezberdintasun bi irudien artean.





### SOLUZIOAK

HITZ GEZIDUNAK



BILA-BILA 7



## AI, ENE!

### Leku barik gaudenerako



Sofa, mahaia, telebista, liburutegia... Egongelak txiki geratzen dira askotan dena sartzeko. Hona hemen konponbidea.
**www.nopuedocreer.com**

## AHOBERO

### "Kritikatzen nauetenek bizimodu aspergarria eta erdipurdikoa dute"

CHARLIE SHEEN | AKTOREA

Espainian Belen Esteban denaren pareko ari da bihurtzen Estatu Batuetan Charlie Sheen. Ez du lanik, baina inoiz baino ezagunagoa da. Bere hitzetan egia puntu egon daitekeen arren, ezin daiteke esan bere bizimodua eredugarria denik.
**ABC telebista katea**

## EGURALDIA



**Max.** 16º
**Min.** 8º

Zerua hodeitsu hodeitsu eta euria egingo du, batez ere egunaren bigarren zatian.
**euskalmet.net**


ASTELEHENEKOA

# goiena"

2011-03-14

**HARPIDETZA:** ARETXABALETA 20550, E05 BASABE POLIGONOA | TEL.: 943 08 10 50 | HARPIDETZA@GOIENA.COM


## HAMARREKOA

**Abel Barriola** Leitzako pilotariak duela hamahiru urte egin zuen debuta eta lesioak lesio, punta-puntan ibili da beti. Bere hitzak entzunda, nabari da pilotarekiko grina barruan daramala | **TXOMIN MADINA**

# "Kendu ez dit ezer ere egin, pilotak dena eman dit"

**1. Zer gosaldu behar du batek zu bezalako mutiltzarra izateko?**
Nik eta kirol munduan gauden denok ahalik eta hobekien eta garbien gosaltzen saiatu behar dugu. Nik neuk, egunero zerealak gosaltzen ditut normalean.

**2. Pilotari ikuspegitik, ze tankera hartzen diozu 2011ri?**
Ondo hasi da eta dudan itxaropena da ondo amaitzea. Pilotarako eta nire bizitzarako betikoa eskatzen diot 2011ri: osasuna. Osasuna badugu, beste guztia bizitzako gauza normalak dira.

**3. Lesioek ez zaituzte larregi errespetatu. Zer sentitzen da etenaldiaren ostean frontoia zapaltzean?**
Poz handia eta lasaitasuna. Pilota da gehien gustatzen zaidana, eta kantxetatik kanpo zaudenean ez zara oso eroso egoten. Pilotan jokatzeko moduan nagoenean, askoz erosoago eta gusturago egoten naiz nire buruarekin.

**4. Final bat hasi aurreko minututan gaude. Non duzu burua?**
Gauzak ahalik eta hobekien egitean. Urduritasuna hor izaten da, eta urteekin onartu egiten duzu. Horren gainetik, daukadan guztia ematean dut burua.

**5. 21era joan eta galtzean, nola geratzen da bat?**
Pena eta amorrua handiarekin. Gero lasaiago hartzen duzu, baina 22-21 galtzea, min gehien ematen duen emaitzetako bat da.




LEXURI DOYAGE

### LEHENDAKARIA BANINTZ

#### "Euskal kultura errespetatuko nuke"

"Benetan ere galdera zaila da egiten didazun hau! Lehendakaria izango banintz, gauzak ahalik eta hobekien egiten saiatuko nintzateke, besterik gabe. Hori bai, euskal kultura eta orokorrean Euskal Herriaren oinarriak eta sustraiak asko errespetatuko nituzke".

**6. Pilotari gazte askok miresten zaituzte, baina nor miresten zenuen zuk gaztetan?**
Kirolari asko; esaterako Miguel Indurain. Pilotan, zorionez ispilu asko izan ditugu eta aukeratzekotan, Fernando Arretxe: goizetik oheratu arte, kirolari handia zen.

**7. Goazen partidu idealaren bila: aukeratu txapelketa bat, aurkari bat eta frontoi bat.**
Eskuz banakako finala, Irujoren kontra eta Donostiako Atanon. Irabazle ni neu, noski! Egun onena denari txapelketa hori irabaztea, pilotari guztiok sinatuko genuke.

**8. Zer eman eta zer kendu dizu pilotak?**
Kendu ez dit ezer ere egin, pilotak dena eman dit. Gauza batzuk egitea galarazi dit, esaterako lagunekin parrandak. Baina gauza garrantzitsuagoak lortu ditut, beraz dena eman dit.

**9. Zein izan da ehizatu duzun azken pieza?**
Oilagor bat Huescan, urtarrila bukaeran.Orokorrean mendira joateak, deskonektatzeko balio dit, horixe da nire terapia nagusia.

**10. Gomendatu iezaguzu urteko sasoi bat Leitzara joateko.**
Gehien udazkena gustatzen zait: tenperatura ona, mendian kolore oso bitxiak... Lehenengo mendira joan eta gero herriko jatetxeren baten bazkalduko nuke.

## BIHARAMUNA



**JOSEMARI VELEZ DE MENDIZABAL**

### Errekak bizirik

Errekak izan ditut betidanik auzoko. Toribio Agirre –Olarte– kalean bizi nintzela Aramaioko urek bainatzen zituzten etxeko zimenduak. Artean ume, Ibai Ondo-ra aldatu zuen sendiak egoitza, aramaioar jarioari beherantz segituz. Eta duela 36 urtetik, etxeko leihoetara azaltzen naizenean Aramaio eta Deba dira egunero agurtzen nautenak. Ez nau, beraz, uretako joan-etorriaren magiak bizitza osoan abandonatu. Kolore anitzeko magia: gardena aspaldi, irudika ditzakegun margo espektro zabalekoa urtetan, eta orain, berriz ere, nahiko magia garbia.

Olartekoan bizi ginela aitazenak aingiraren bat harrapatu zuen Lorenzo tabernaren zubitxopean, sardexka baten laguntzaz. Nik neronek Ibai Ondoko etxeko lehen solairutik salabardoa botatzen nuen uretaraino, Etxe Txikietako kantero eta ameluarron razzietatik libratutako ezkailuren baten esperantzan. Gero txikizioa etorri zen, hondamena, eta mende erdi bat igaro da errekak ostera garbi antzean ikusi arte.

Orain arraintxoak ikusten ditut noizean behin. Iruditako ehiztaria aspaldi bihurtu nintzenez, Deba eta Aramaioko ur ertzetatik ibiltzen naiz nire kamerarekin, amuarrainen bat noiz *arrainduko* irrikan.


